




INGURUMEN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN PLAN ZUZENTZAILEA

II. zatia Zerbitzu Teknikoak






2022ko abendua
2024ko lehen
seihilekoan
eguneratua

2022an prestatzeko laguntza
teknikoa:

ain

Nafarroako Industriaren Elkartea



AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	5
EGIKARITZE-LABURPENA.....	6
1. KANPOKO ANALISIA.....	8
1.1 Europar Batasunaren ingurumen politika.....	8
1.2 Estatuko testuingurua.....	11
1.3 Nafarroako egoera gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetan.....	13
1.4 Konparazioko analisia beste autonomia-erkidego batzuekin.....	16
2. BARNEKO ANALISIA.....	19
2.1 Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren (IZN) aurkezpena.....	19
BASOEN ETA EHIZA KUDEAKETAREN ZERBITZUA.....	27
2.2.1 Zerbitzuaren egoera orokorra.....	27
2.2.2 Analisia barneko pertzepziotik.....	30
2.2.3 Interes-taldeen ekarpenak.....	38
2.3 BIODIBERTSITATEAREN ETA ARRANTZA KUDEAKETAREN ZERBITZUA.....	41
2.3.1 Zerbitzuaren egoera orokorra.....	41
2.3.2 Analisia barneko pertzepziotik.....	44
2.3.3 Interes-taldeen ekarpenak.....	50
2.4 EKONOMIA ZIRKULARRAREN ETA BERRIKUNTZAREN ZERBITZUA.....	53
2.4.1 Zerbitzuaren egoera orokorra.....	53
2.4.2 Analisia barneko pertzepziotik.....	55
2.4.3 Interes-taldeen ekarpenak.....	59
2.5 NAFARROAKO KLIMA ALDAKETARAKO BULEGOAREN ZERBITZUA.....	62
2.5.1 Zerbitzuaren egoera orokorra.....	62
2.5.2 Analisia barneko pertzepziotik.....	64
2.5.3 Interes-taldeen ekarpenak.....	66
3. AMIA ANALISIA.....	69
3.1 AMIA analisia: Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzua.....	69
3.2 AMIA analisia: Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzua.....	72
3.3 AMIA analisia: Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzua.....	75
3.4 AMIA analisia: Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoaren Zerbitzua.....	77
4. ESPARRU ESTRATEGIKOA.....	80
4.1 Printzipio estrategikoak.....	80
4.2 Estrategia 2024-2027.....	81

Esparru estrategikoaren egitura orokorra	81
Planaren helburuak	82
1. ARDATZA. Arauen eta zerbitzuen garapena	83
2. ARDATZA. Talentuaren eta ezagutzaren kudeaketa	84
3. ARDATZA. Antolaketaren egokitzapena	85
4. ARDATZA. Modernizazioa eta efizientzia	86
5. ARDATZA. Ikusgaitasuna eta kanpoko taldeekiko kudeaketa	87
5. EKINTZA PLANA	89
6. ANTOLAKETA	100
6.1 Antolaketaren aldaketak	100
6.2 Beharrezko dimentsionatzea eta indartzea	101
7. PLANAREN KUDEAKETA ETA GOBERNANTZA	104
7.1 Planaren gobernantza	104
7.2 Aurrekontua	105
7.3 Aginte-taula	106
I. ERANSKINA Eredu matematikoak. IZNko plantillaren dimentsionatze optimoa	107
AURKEZPENA	109
EREDU MATEMATIKOAK	110
Plantillaren optimizazioa lan-kargaren eta langile moten zuzeneko estimazioa erabiliz (LKLMZE)	110
Plantillaren optimizazioa lan-kargaren probabilitatezko zuzeneko ebaluazioa erabiliz (LKPZE)	113
Dimentsionatzearen emaitzak Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuan	115
Emaitzak Ikuskapenen Atalean eta Kutsaduraren aurkako Prebentzio Atalean	115
Dimentsionatzearen emaitzak Basoen eta Ehizaren Zerbitzuan	117
Emaitzak Basoak Kudeatzeko Atalean	117
Emaitzak Baso Plangintzarako Atalean	119
Emaitzak Ehiza Atalean	121
Emaitzak Administrazio Laguntzako Bulegoan	124
Dimentsionatzearen emaitzak Biodibertsitatearen Zerbitzuan	127
Emaitzak Naturaguneen eta Espezie Babestuen Atalean	127
Emaitzak Ibai Ingurunearen Atalean	131
Emaitzak Ingurumen Eraginaren Atalean	134

AURKEZPENA

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren (IZN) Plan Zuzentzailea 2022an idatzitako kudeaketa tresna bat da, 2024ko lehen seihilekoan eguneratu dena IZNren beraren egitura berrira egokitzeko. Haren helburua da jarduteko gidalerroak ezartzea Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuentzat.

Planak bi zati ditu, eta haietatik lehena, zerbitzuetako baten ezaugarriak direla-eta, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldeari dagokio. 2019ko otsailean, antzeko lana egin zuen Ingurumen Hezkuntzaren, Kalitatearen eta Zaintzaren Zerbitzuak, eta horren emaitza izan zen “Basozainen Kolektiboaren Plan Zuzentzailea, 2019-2022”. Plan horren helburuak berraztertu behar izan ziren 2022an, eta Ekintza Plana ere eguneratu egin zen: hura da, hain zuzen, IZNren Plan Zuzentzailearen I. Zatia. Plan Zuzentzailearen bigarren zatia agiri hau berau da, non helburuak, ildoak eta ekintzak zehazten baitira IZNk kudeatzen dituen gainerako zerbitzuentzat, zerbitzu teknikoak deritzenentzat. Beraz, Plan Zuzentzailearen II. zati honek zerbitzu tekniko hauei eragiten die:

- Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoaren Zerbitzua
- Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzua
- Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzua
- Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzua

Helburua da **aztertzea bai egungo egoera, bai zerbitzuoi dagozkien erronkak** (hemendik aurrera, zerbitzu teknikoak), **eta esparru zuzentzaile bat ezartzea**, haiei loturik. Aintzat hartzen du, halaber, zer harreman dagoen Ingurumen Hezkuntzaren, Kalitatearen eta Zaintzaren Zerbitzuarekin (IZNren Plan Zuzentzailearen I. Zatian aztertua), bai eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko beste antolaketa unitate batzuekin eta IZNri esleitutako eginkizunak betetzearekin lotura duten beste interes talde batzuekin ere.

EGIKARITZE-LABURPENA

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren Plan Zuzentzailearen II. Zatia osatzeko, diagnostiko eta hausnarketa lan bat egin du Zuzendaritzak, kanpoko zein barneko alderdiak kontuan hartuta. Prozesu horretan IZNko zerbitzu teknikoetako 65 lagunek baino gehiagok parte hartu dute eta izan dute inplikazioa, bai eta 30 pertsona edo entitatek baino gehiagok ere, kanpoko interes taldeak ordezkatuz.

Diagnostiko prozesuaren ondotik, planak esparru estrategiko bat ezartzen du, bost lan-ardatz dituen: ***arauen eta zerbitzuen garapena, talentuaren eta ezagutzaren kudeaketa, antolaketaren egokitzapena, modernizazioa eta efizientzia, eta ikusgaitasuna eta kanpoko taldeekiko kudeaketa.***

Plana garatzeko, **15 lan-ildo** espezifiko baliatzen dira, lehen aipatu diren ardatzen barnean txertaturik, eta ildook aurrera eramateko, badira **83 ekintza**. Inplementatzeko 100 M €-tik gorako urte anitzeko aurrekontua dago, plana gauzatzeko aldi guztian zehar mantendu beharrekoa.

Planaren II. Zatia behar bezala eta eraginkortasunez aurrera egin dezan, zerbitzu teknikoetako zuzendariak ezinbesteko deritzote ***lehentasuna ematea antolaketaren egokitzapenari***. Esparru estrategikoaren erdigunean kokatua, ardatz horrek zenbait alderdi ukitzen ditu bereziki, hala nola behin-behinekotasuna murriztea, lehendik dauden antolaketa unitateak indartzea eta antolaketaren egitura erronka eta behar berrietara egokitzea.



1

KANPOKO ANALISIA

1. KANPOKO ANALISIA

1.1 Europar Batasunaren ingurumen politika

Ingurumena Europaren politiken erdigunean

Badira hamarkada batzuk ingurumenaren babesa nazioarteko politiken parte izan dela mundu mailan.

Europar, ingurumenaren arloko politika jada sortu zen Parisen, 1972an, egin zen Kontseilu Europarrean. Kontseilu hartan, estatuburuak eta gobernuburuak (Nazio Batuen ingurumenari buruzko lehen konferentziaren ondotik) aitortu zuten beharrezkoa zela Europako Erkidegoak politika bat ezartzea ingurumenaren arloan, ekonomia-hedapenarekin batera baliatzeko.

Aurreneko jarduketa horren ondotik, bada, Europak ingurumen politika aktibo bat sortu du beretzat, urte anitzeko ekintza planen bidez antolatua, zeinen bidez finkatzen baitira etorkizuneko lege-proposamenak eta helburuak Europar Batasunaren ingurumen politikarentzat.

Azken mugarren artean, nabarmendu behar da 2019an Europako Itun Berdea argitaratu zela, Europar Batasunak bultzatua. Itun hori ("Green Deal" ere deitua) tresnatzat baliatu nahi da, kontinente osoa klima neutraltasunera gidatzeko 2050erako, eta ingurumen politikaren esparru berriena da, estu loturikoa ekonomia-garapen jasangarriarekin.

Europako Batzordeak ia bilioi bat euroko aurrekontua esleituko dio itun horri, eta haren helburu bakarra da ondasun eta zerbitzuen ekoizpena ingurumenarekin bateragarri egitea hura errespetatuz eta, hartara, ekonomia berde eta jasangarria sustatzea.

Hona hemen Europako Itun Berdearen ekintza ildoak:

1. **KLIMA:** Klimari buruzko Europako Legearen bidez, anbizio handiko helburu bat ezartzen da, alegia, berotegi-efektuko gasen isuri garbia 2030erako izan dadin -% 55 gutxienez, 1990eko mailekin erkaturik.
2. **ENERGIA GARBIA, JASANGARRIA ETA SEGURUA.** Planak sortuz Europar Batasuneko estatu guztientzat.
3. **INDUSTRIA JASANGARRIA ETA ZIRKULARRA,** eredu eta paradigma berri gisa.
4. **ERAIKUNTZA ETA BIRGAITZE** efizienteak, energiaren aldetik zein baliabideen aldetik.
5. **MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA ADIMENTSUA,** garraioaren isuriak % 90 murrizturik.
6. **ETXALDETIK MAHAIRA,** nekazaritzako elikagaien balio-katerako estrategia gisa, zirkuitu laburrak eta elikagai ekologiko eta osasungarriak sustaturik.
7. **EKOSISTEMEN ETA BIODIBERTSITATEAREN BABESA:** Europako bioekonomia sustaturik eta aukera berriak sorturik industriarentzat.
8. **ZERO KUTSADURA:** ur, aire eta lurzoruetarako.

“Green Deal” delakoa argitaratu ondoren, urte anitzeko ingurumeneko ekintza planak berritu beharrekin batera, 2020an argitara eman zen **zortzigarren Ingurumen Plana**. Plan horrekin, Europar Batasunak neurtu asmo du zer aurrerapen egin den Itun Berdeko ingurumen eta klima helburuetan. Era berean, helburu du trantsizioa lasterragotzea honako ezaugarri hauek dituen ekonomia baterantz: neutroa klimaren aldetik, efizientea baliabideak erabiltzean, eta birsortzailea, planetari gehiago itzultzen diona, hartzen diona baino. Aitortzen da ezen, giza ongizatea eta oparotasuna egonen badira, mugitzen garen ekosistemek osasuntsu egon beharko dutela.

Azken ekintza plan horren sei ingurumen helburuak honako hauek dira:

1. Berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko helburua lortzea 2030erako, **bai eta klima neutraltasuna ere 2050erako**.
2. Hobetzea **egokitzeko gaitasuna, erresilientzia sendotzea eta kalteberatasuna murriztea klima-aldaketaren aurrean**.
3. Aurrera egitea **hazkunde-eredu birsortzaile** baterantz, hazkunde ekonomikoa baliabideen erabileratik eta ingurumenaren degradaziotik banantzea, eta lasterragotzea **ekonomia zirkular baterako trantsizioa**.
4. **Zero kutsaduraren helburua** lortzen saiatzea, aire, ur eta lurzorurako ere bai, eta europarren osasuna eta ongizatea babestea.
5. **Biodibertsitatea babestu, kontserbatu eta oneratzeko**, eta kapital naturala hobetzea, bereziki honako hauei dagokienez: airea, ura, lurzorua, basoak, ur geza, hezeguneak eta itsasoko ekosistemak.
6. **Murriztea ekoizpenari eta kontsumoari lotutako ingurumenaren eta klimaren gaineko presioak**, bereziki honako arlo hauetan: energia, industriaren garapena, eraikin eta azpiegiturak, mugikortasuna eta elikadura sistema.

Europar Batasunak Mid-Term ebaluazio bat egingen du 2024an zortzigarren Ingurumen Planaz, eta 2029an programa osoaren ebaluazioa egingen du, hura berraztertzeko. Helburuaren lorpena neurtu eta komunikatzeko, Ingurumen Planaren jarraipenerako esparru berri bat adostu zen, adierazle kopuru mugatu batean oinarriturik. Adierazle horien artean, badira adierazle sistemiko batzuk, aintzat hartzen dituztenak ingurumen eta gizarte politiken, batetik, eta ingurumen eta ekonomia politiken, bestetik, arteko harremanak. Horrek Europar Batasunari eta Europar Batasuneko estatuei zehazten lagunduko die zein neurritan ari garen *ongi bizitzen, planetaren muga barnean*.

Urte anitzeko jarduketa planez gain, ingurumenak baditu estrategia eta politika horizontal osagarriak ere.

Hain zuzen, honako hauek:


- Naturaren arloko zuzentarauak: Uraren Esparru Zuzentaraua, Habitaten Zuzentaraua eta Hegaztien Zuzentaraua, besteak beste.
- Europar Batasunaren klimaren aldeko ekintza.
- Europa Jasangarria (Komunikazioa. 2019ko urtarrila).
- Biodibertsitateari buruzko estrategia, 2030 (2020ko maiatza).
- Ekonomia zirkularrerako ekintza plana (2020).
- “Etxaldetik mahaira” estrategia (2020ko maiatza).

Ingurumen arloko legedia: garapen esponentziala Europako eredu berriaren testuinguruan

Europar Batasunak (EB) ingurumen estandar gorenetakoa du munduan, hamarkadetan garaturikoa. Ingurumen politikak EBko ekonomiari laguntzen dio ingurumena gehiago errespetatzen, Europako natura-baliabideak babesten ditu, eta herritarren osasuna eta ongizatea babesten ditu.

Bultzada hori gero eta azkarragoa da arauen arloan eta politiken eta araudien ezarpenean, ez bakarrik babesari edo kontserbazioari begira, baizik eta beste politika batzuk sostengatzeko ere, hala nola garapenerako ekonomia-eredua, finantzak edo gizarte ikuspegia.


Nabarmena da Europar Batasunak ingurumen arloan egiten duen bultzada, alde handia ateratzen dio nazioartean ezarritako araudiari; izan ere, bi aldiz handiagoa da haren ekimenen kopurua, haren parekoak izan daitezkeen munduko beste leku batzuetakoekin erkaturik, esaterako, Estatu Batuetako edo Kanadakoekin.



Batzordeak emandako zuzentzarak eta erregelamenduek izan duten eboluzioa azken hamarkadetan, ingurumen arloan bakarrik. *Iturria: European environmental policy at 50: Five decades of escaping decision traps (Artikulua, 2019)*

Nahitaezko arauen eta borondatezko ekimenen xehakapena ingurumen, gizarte eta gobernantza arloetan (ESG), Estatu Batuetan, Kanadan eta Europar Batasunean, azken 10 urteetan. *Iturria: Marjella Lecourt-Alma, Datamaran 2020*

Breakdown of ESG mandatory regulations & voluntary initiatives in the United States, Canada and European Union over the last 10 years



1.2 Estatuko testuingurua

Estatuko agenda eta estrategia nagusiak

Estatuaren aldetik, Europako garapenari jarraikiz, ekimen, estrategia eta politika ugari ezartzen dira hainbat jarduera esparrutan.

INGURUMENAREN KALITATEA ETA EBALUAZIOA

- Atmosfera eta airearen kalitatea
 - [Airearen kalitateari buruzko planak eta programak](#)
 - [Atmosferaren Kutsadura Kontrolatzeko I. Programa Nazionala](#)
- Hiri mugikortasuna
 - [Mugikortasun Jasangarrirako Espainiako Estrategia.](#)
- Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa
 - [Planak eta programak](#)
- Produktu kimikoak
 - [Stockholmeko Hitzarmena eta Kutsatzaile Organiko Iraunkorrei buruzko 850/2004/EE Erregelamendua Aplikatzeko Plan Nazionala \(APN\)](#)

URA

- Klima-aldaketara egokitzea
 - [Espainian Klima-aldaketara Egokitzeko Ingurumena Sustatzeko Plana \(PIMA-Adapta-AGUA\)](#)
- Emakidak eta baimenak
 - [Jabari publiko hidraulikoaren \(JPH\) erabilera pribatiboak: Uraren Erregistroa: "Alberca" programa](#)
- Uren egoera eta kalitatea
 - [Lurrazaleko urak: jarraipen programak](#)
 - [Espainiako lur azpiko uren kalitate kimikoari jarraipena egiteko programa](#)
- Ur baliabideen ebaluazioa
 - [ERHIN programaren informazioa](#)
- Jabari publiko hidraulikoa mugatzea eta leheneratzea
 - [Ibaiak Leheneratzeko Estrategia Nazionala](#)
 - [PIMA Adapta AGUA plana](#)
 - [Ibaietarako Boluntariotza Plana](#)
 - [Jabari publiko hidraulikoa mugatzea: LINDE proiektua](#)
- Uholde arriskuen kudeaketa
 - [Uholde arriskuak kudeatzeko planak](#)
 - [Uholde Eremuen Kartografiako Sistema Nazionala \(SNCZI\)](#)
 - [PIMA Adapta AGUA plana](#)
- Presa eta urtegien segurtasuna
 - [Presen segurtasunaren kudeaketa](#)
- Plangintza hidrologikoa
 - [Plangintza prozesua](#)
 - [Uraren Esparru Zuzentaraua Ezartzeko Estrategia Erkidea](#)
 - [Plan Hidrologiko Nazionala](#)

- [Uren Kalitaterako Plan Nazionala: saneamendua eta arazketa, 2007-2015](#)
- [Indarrean diren arroko plan hidrologikoak](#)
- Lehortearen Behatoki Nazionala
 - [Larrialdietarako planak](#)
 - [Lehorterako plan bereziak](#)

BIODIBERTSITATEA

- Planak
 - [Espezie basatien nazioarteko trafiko eta ezkutuko harrapaketa aurre egiteko Espainiako ekintza plana](#)
 - [Naturako eta Biodibertsitateko Turismoaren Plan Sektoriala, 2014-2020](#)
 - [Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Plan Estrategikoa, 2011-2017](#)
 - [Hezeguneen kontserbaziorako eta erabilera arrazionalerako Espainiako Plan Estrategikoa](#)
 - [Lehentasunezko Jarduketan Plan Nazionala hidrologia eta basoak leheneratzeko, higadura kontrolatzeko eta desertifikaziotik babesteko](#)
 - [Espainiako Baso Plana](#)
 - [Basogintza Sektorearen Aktibazio Sozioekonomikorako Plana](#)
 - [Espainian Merkaturatzen den Zuraren Legezkotasun-kontrolerako Plana](#)
- Estrategiak
 - [Azpiegitura berdearen eta konektagarritasun eta leheneratze ekologikoen estrategia nazionala](#)
 - [Basaunak eta basafloren espezieak kontserbatzeko estrategiak](#)
 - [Dibertsitate biologikoa kontserbatzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko Espainiako estrategia](#)
 - [Espainiako Baso Estrategia](#)
 - [Baso-baliabide genetikoak kontserbatzeko estrategiak](#)
 - [Desertifikazioaren aurkako Estrategia Nazionala](#)
- Gidalerroak eta programak
 - [Baso-suteak kudeatzeko orientabide estrategikoak](#)
 - [Taxonak berriro sartzeko gidalerroak eta programak](#)
 - [Natura 2000 Sarea Kontserbatzeko Gidalerroak](#)
 - [Zumarren baliabide genetikoak ebaluatzeko eta kontserbatzeko eta grafiosiarekiko erresistenteak diren aleak lortzeko Espainiako programa](#)
 - [Desertifikazioaren aurkako Ekintza Plan Nazionala \(PAND\)](#)

KLIMA

- Energiari eta Klimari buruzko Plan Nazional Integratua (2021-2030), Ingurumen Azterketa Estrategikoa eta Ingurumen Adierazpen Estrategikoa
 - [PNIEC, EAE eta DEA](#)
- Klima-aldaketara Egokitzeko Plan Nazionala, 2021-2030
 - [Klima-aldaketara egokitzeko Plan Nazionala \(PNACC\)](#)
- Ingurumena sustatzeko planak (PIMA)
 - [PIMA planak](#)

- Malgutasun mekanismoak eta hustulekuak
 - [Klima-aldaketari lotutako sektoreetan Espainiako ekonomia nazioartekotzea sustatzeko plana.](#)
 - [Espainiako Gobernuaren politika malgutasun mekanismoen arloan](#)
- Dokumentazioa
 - [Klima-aldaketari eta Energia Garbiari buruzko Espainiako Estrategia](#)

1.3 Nafarroako egoera gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetan

Nafarroako gizarte, ekonomia eta ingurumen esparrua

Nafarroako Foru Komunitateak aspalditik eraman izan ditu aurrera politika aktiboak naturaren kontserbazioari loturik, bertako gizartearen ingurumen sentsibilitate handiaren ildotik eta bat etorritik Nafarroaren aitzindari-izaerarekin, ekonomia-garapen jasangarriko eredu bat izanik.

Nafarroan askotariko ekosistemak daude eta ikuspegia izan da natura zaintzea; hori dela eta, posible izan da hainbat politika garatzea, Administrazioak bultzatzaile, arautzaile eta finantzatzaile gisa jokatu. Gainera, ingurumena dagokigun arlo bat izanik, dela jarduerak egiteko, dela ekonomia-aurrerapenerako, herritarrok parte hartzen dugu politika horietan, eta arduraz aintzat hartzen ditugu.

Eskualdeko sustapen horren indargarri, badira ekonomia-garapenerako hainbat politika sektorial, eta are gehiago kontuan hartzen bada Europako Itun Berdea (“Green Deal” deitutakoa), helburutzat baitu klimatikoki neutroa den lehen kontinentea bilakatzea. Azken urteetan Nafarroan garatutako estrategia eta proiektuen artean, honako hauek dira aipatzekoak:

. [Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030](#) (ENS-2030-NEJ), Gobernuaren erabakiz onetsi zen 2023ko urriaren 4an, eta haren helburua da metodologia erabilgarria ezartzea, politika publikoek Nafarroako Foru Komunitateko garapen jasangarrian dituzten eraginak ebaluatzeko. **Esparru-dokumentu** bat da, eskualde- eta toki-eremura ekartzen dituen garapen jasangarriari buruzko nazioarteko ebazpenak, eta, bereziki, Nazio Batuen Agenda 2030.

Estrategia
Navarra
Sostenible



Nafarroako
Estrategia
Jasangarria

. [Nafarroa Green, trantsizio ekologikoren ibilbide Nafarroan](#), Nafarroako Gobernuak 2020an abiarazi zuen, eta haren helburua da bizitzeko, lan egiteko, aberastasuna sortzeko eta esparru publikoa kudeatzeko modua eraldatzea, eraginkortasun eta jasangarritasun handiagoz ingurumenaren aldetik.

Estrategia honetan honako lan-arlo hauei eman zaie lehentasuna: klima-aldaketa, elikadura jasangarria, landa-berrikuntza, eraikuntza jasangarri eta eraginkorra, biodibertsitatearen kontserbazioa eta kudeaketa, ekonomia zirkularra eta mugikortasun berritzaile eta jasangarria.



Klima-aldaketaren arloan, besteak beste, onetsi dira [4/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzkoa](#), eta [LIFE NADAPTA](#) (2017-2025) proiektua. Proiektu horren helburu nagusia da Nafarroak klima-aldaketara egokitzeko duen ahalmena handitzea, hura txertatuz politika sektorialen programazioan eta garapenean. Eskualdeko proiektua da, arreta bost sektoretan jartzen duena, haietan modu jasangarrian aurreratzeko: ura, basoak, nekazaritza eta abeltzaintza, osasuna eta azpiegiturak, eta lurralde plangintza.



Klima-aldaketari buruzko estrategia integratu honetan sartzen da, orobat, [Nafarroako Klima-aldaketaren Ibilbide-orria HCCN-KLINA \(2017-2030-2050\)](#), Nafarroako Gobernuak 2018ko urtarrilaren 24an onetsia. **Nafarroan ingurumen-estrategia integrala eta zeharkakoa** onesteko eta ezartzeko beharrari erantzuten dio. Hala, klima-aldaketaren aurrean Nafarroak hartutako konpromisoei heltzen die, bere egiten ditu nazioarteko hainbat helburu –besteak beste, Europar Batasunaren Estrategiakoak, Parisko Hitzarmenekoak (COP21) eta NBERen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)–, eta trantsizioa sustatzen du emisio gutxiko ekonomia baterantz eta lurralde jasangarri eta erresiliente baterantz.



Biodibertsitateari buruzko estrategian jasotzen dira, esaterako, [Nafarroako Foru Komunitateko natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko foru legearen](#) proiektua edo [Nafarroako Basogintza Agenda \(NBA\)](#), maila estrategikoan kokatua, eta beste politika eta estrategia



batzuekin baterakoa: Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH), klima-aldaketa (eredu sozioekonomiko eta energetiko berria), kontserbazio bereziko eremuak (KBE) kudeatzeko planak, S4 estrategiak eta abar.

Nafarroako Basogintza Agenda esparru-dokumentu bat da, bost ekintza-ardatz dituen. Horiek programetan garatzen dira, helburu eta neurri batzuk esleiturik, bete daitezzen. Hona hemen ardatzak:

- 1. ardatza: Baso arloko gobernantza.
- 2. ardatza: Klima-aldaketa eta arrisku naturalak.
- 3. ardatza: Basogintza sektorea sustatzea.
- 4. ardatza: Biodibertsitatearen kontserbazioa.
- 5. ardatza: Berrikuntza eta ezagutza.

Haren helburua da jarduketa eremu nagusiak zehaztea, eta lanerako programa bat ezartzea 2019tik 2023ra bitartean, eta, esparru horretan, programazio eta jardute mailak garatzea baso ekintzarako plan batean eta proiektu zehatzetan, datozen 20 urteetarako.


Ekonomia zirkularrari buruzko estrategian sartzen da, beste proiektu batzuen artean, [Nafarroan Ekonomia Zirkularra Garatzeko Agenda 2030 \(NEZ 2030\)](#). Hona hemen oinarri hartzen dituen printzipioak:



- 1) Garrantzizkoak eta estrategikoak diren arlo, jarduera eta produktuen gainean jardutea, Nafarroan ekonomia zirkularrak ematen dituen aukera ekonomiko eta sozialei erantzuteko.

- 2) Ekonomia zirkularraren printzipioak gure egitea, zentzu zabalean, indartuz inguruneak berak eta ekosistema naturalek ingurumen zerbitzuak segurtatzeko duten ahalmena.
- 3) Lerrokatzea politika, funts eta baliabide ekonomiko propioak eta Europar Batasunarenak.
- 4) Aurreratzea lankidetzan oinarritutako gobernantza inklusiboan, balio komuna sortzeko eta eragileen arteko koordinazioa lortzeko.

. [Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia edo S4 \(2021ean berritua\)](#), non jasangarritasuna eta ekonomia berdearen sustapena berariaz jasoriko zeharkako palankak



baitira. Estrategien (S4) helburua da jasangarritasuna hobetzea berrikuntzaren bidez, klima-aldaketari aurre egiteko helburuak alde batera utzi gabe. Enpresen egokitzapen digitala errazteko tresna ba da, zabaltzen diren aukerak aprobetxatzen dituen. Horrela, lagundu nahi dute Europa 2050ean klimaren aldetik neutroa den lehen kontinentea izateko helburua lortzen.

S4ren 2030 IKUSPEGIA

Nafarroa erreferentziatzeko eskualdea Europan, lurraldearekin eta pertsonekin konprometitutako ekonomia jasangarri eta digitalerako trantsizioan

. [Navarra Zirkular](#) lankidetza publiko-pribatuko ekimen bat da, helburutzat duena enpresetan ekonomia zirkularraren ezarpena sustatzea, hau da, jasangarritasunerako ekonomia-eredu bati jarraitzea, baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuz eta ahalik eta hondakin gutxien sortuz. Proiektua sustatu dute Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak, bai eta SODENA, GAN-NIK eta LASEME enpresa publikoek ere.



Navarra Zirkular-ek 2025erako erdietsi beharreko helburuak hauek dira: 200 enpresa edukitzea atxikirik; gutxienez ekonomia zirkularreko 75 proiektu gauzaturik; 6 balio-kate aztertutik, eta ekonomia zirkularraren arloko prestakuntza ematea 200 ikasleri eta administrazio publikoko 100 langileri.

Navarra Zirkular-en barnean, halaber, Ekonomia Zirkularraren Katalogoaren hirugarren edizioa egin zen. Katalogo horretan jasotzen dira Nafarroako enpresek eginiko jardunbide egokiak, ekonomia zirkularrari dagokionez, enpresa horien erakusgarri izan dadin, bai eta beste enpresa batzuen erreferentzia ere.

Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren

Nafarroako Estrategiak (ENEAS 2030)

esparru berri bat definitu nahi du, ingurumen hezkuntzaren ikuspegi berrietara egokitua; izan ere, ikuspegiok hertsiki lotuak daude larrialdi klimatikoaren eta jasangarritasunaren arloko nazioarteko eztabaidekin, gizarte eta ingurumen arloetan dauzkagun erronka berrieekin eta Nafarroako Gobernuak eskualde-mailan, nazio-mailan eta nazioartean harturiko konpromisoekin. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzak aurrean dituen erronka horiek direla-eta, esan daiteke funtsezko tresna bat izanen dela inpaktuak murriztea eta ingurunearekin ditugun harremanak –tokian tokikoak eta globalak– hobetzea ahalbidetuko duten soluzioak bilatu eta abian jartzeko, bai eta aurrerapausoak egiteko ere garapen jasangarriaren bidean, alde sozial eta ekonomikotik eta ingurumen aldetik begiratuta.



Estrategia Navarra de
Educación Ambiental
para la Sostenibilidad

Iraunkortasunerako
Ingurumen Hezkuntzaren
Nafarroako Estrategia

1.4 Konparazioko analisia beste autonomia-erkidego batzuekin

Beste autonomia-erkidego batzuen ingurumen planak

Nafarroan bezala, beste autonomia-erkidego batzuetan plan monografikoak dira nagusi estrategia eta esparru zuzentzaileen artean, eta askotan arau jakin batzuk ezartzeari erantzuten diete; hala bada, neurri gutxiagoan izaten dira barne funtzionamenduko edo izaera zuzentzailekoak.

Ez da erraza aurkitzea kudeaketa-ikuspegiko plan zuzentzaileak edo barne plan zuzentzaileak, alegia, Nafarroako Gobernuak Ingurumen Zaintzaren Zerbitzuak egindakoaren gisakoak. Kasu batzuetan, badira ingurumen estrategia batzuk gai jakinetarako lehentasun orokorrak ezartzen dituztenak, baina barne analisirik egiten ez dutenak jarduteari buruz, antolaketari buruz edo langileei buruz, nola egiten baita Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren 2024-2027 aldirako Plan Zuzentzailean.

Hala, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE), esaterako baditu ingurumeneko esparru programak. Orain indarrean dagoena [Euskadiko 2030eko Ingurumeneko V. Esparru Programa](#) da. Programa 8 proiektutan antolaturik dago, eta haietan ingurumen arazoak zeharkakotasunez jorratzen dira, betiere jasangarritasunari loturik. Besteak beste, erosketak, kontsumoa, osasuna eta finantzak daude 8 gai horien artean, eta halakoetarako programak eta ekintzak zehazten dira, jardunbide jasangarriagoak sortze aldera.



Euskadiko 2030eko Ingurumeneko
Esparru Programa zehazteko prozesua

Andaluziakoa beste adibide bat da, non gaur egun [Andaluziako 2030eko Ingurumeneko Esparru Estrategia](#) garatzen ari baitira. Helburua da berrikustea, integratzea eta sinplifikatzea, barnean hartzeko autonomia-erkidegoko Ingurumen Departamentuan diren 30etik gorako plan zuzentzaileak.

Gainerako lurraldeetan, plan zuzentzaile monografikoak daude, honako hauek buruzkoak: klima-aldaketa, ingurumen-hezkuntza, paisaien babesa, biodibertsitatea, basogintzako

estrategiak, jasagarritasun agendak, edo ekonomia-garapen jasagarria. Horien artean, gehiago dira ikuspegi sakonak hartzen dituztenak, erreferentziazko esparru integratzaileak baino.

Ingurumenari loturiko antolaketa egiturak

Autonomia-erkidegoen antolaketa-egiturak ere askotarikoak dira. 17 autonomia-erkidegoei begiraturik, kontuan hartu behar da alde nabarmenak daudela lurraldearen azaleraren aldetik nahiz politiken irismenaren aldetik, batzuetan oso konparagarriak ere ez direla; dena den, honako hauek aipatzea merezi du:

- Egiturak zuzendaritza nagusi bakarra du: Nafarroa
- Egiturak zuzendaritza nagusi bakarra du, 2 zuzendariordetzatan banaturik: Kantabria
- Egiturak bi zuzendaritza nagusi ditu: EAE, Galizia, Gaztela-León, Gaztela-Mantxa, Aragoi, Katalunia, Murtzia, Extremadura, Asturias (ur-zuzendaritza bat)
- Egiturak bi zuzendaritza nagusi baino gehiago ditu: Valentzia (6), Madril (3), Balearrak (4)

Honen irismenari dagokionez, gogoeta egin behar da ea komenigarria den ala ez zuzendaritza nagusia egitura batean baino gehiagotan banatzea. Alderdi horri heltzeko, aztertu behar da zuzendaritzari dagozkion eginkizunetan gertatzen den saturazioa, horrek ondoz ondoko inpaktu bat sortzen baitu kudeaketako egituretarantz eta eragina baitu zerbitzuen jardunean eta garapenean.

Bestalde, aipatu behar da zein autonomia-erkidegotan departamentuak lurralde-eginkizunak ere badituen, iraganean Landa Garapeneko Departamentuarekin gertatu den bezala. Hala bada, departamentuek eskumenen aldetik:

- Autonomia-erkidego hauetan, departamentu berean daude bai lurralde-antolamendua, bai ingurune naturalari eta ingurumenari loturiko zuzendaritzak:
 - Galizia, Gaztela eta León, Madril

Puntu honetan, ez dira hain ugariak egituren lurralde-antolamendua bateratua dutenen kanpo-erreferentziak, eta, autonomia-erkidegoek erabilitako formulen artean, askotarikoak dira beste eginkizun batzuen irismenak.

2 BARNEKO ANALISIA

2. BARNEKO ANALISIA

2.1 Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren (IZN) aurkezpena

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren egitura

IZNren funtzionamendua arauturik dago bat etorritik Nafarroako ordenamendu juridikoan ezarritako eginkizunekin eta egiturarekin. Egungo egitura ezarrita dago azaroaren 15eko 255/2023 Foru Dekretuan, zeinaren bidez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren egitura oinarritzkoa ezartzen baita. Hona hemen¹:

- NAFARROAKO KLIMA ALDAKETARAKO BULEGOAREN ZERBITZUA
 - KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO EKINTZAK KOORDINATZEKO ATALA
 - GOBERNANTZA ETA SENTSIBILIZAZIO BULEGOA
 - URAREN KALITATEAREN ETA OBRA HIDRAULIKOEN ATALA
 - AIREAREN KALITATEAREN ETA KLIMA ALDAKETAREN ATALA
- EKONOMIA ZIRKULARRAREN ETA BERRIKUNTZAREN ZERBITZUA
 - ADMINISTRAZIO LAGUNTZAKO BULEGOA
 - KUTSADURAREN AURKAKO PREBENTZIO ATALA
 - BAIMEN BULEGOA
 - INGURUMEN IKUSKAPENEN ATALA
 - KONTROL ETA KALITATE BULEGOA
 - HONDAKINEN ATALA
 - HONDAKINEN PREBENTZIOAKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRA SUSTATZEKO BULEGOA
 - BERRIKUNTZAREN ETA EUROPAKO PROIEKTUEN ATALA
 - PROGRAMEN DINAMIZAZIOAREN, PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA TOKIKO AGENDEN BULEGOA
- BIODIBERTSITATEAREN ETA ARRANTZA KUDEAKETAREN ZERBITZUA
 - NATURAGUNEEN ETA ESPEZIE BABESTUEN ATALA
 - ESPEZIEEN BULEGOA
 - NATURAGUNEEN BULEGOA
 - PLANGINTZAREN ETA KLIMA ALDAKETAREN BULEGOA
 - INGURUMEN EBALUAZIOAKO ATALA
 - IEE-AREN ETA INGURUMEN JARRAIPENAREN BULEGOA
 - PROIEKTUEN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BULEGOA
 - ARRANTZA KUDEAKETARAKO ATALA
 - ARRANTZA BULEGOA
- BASOEN ETA EHIZA KUDEAKETAREN ZERBITZUA
 - ADMINISTRAZIO LAGUNTZAKO BULEGOA

¹ Zerbitzuetako bulegoak dira 2024ko urtarrilean indarrean daudenak. Baliteke aldagak bat egotea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emanen duen foru aginduan, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko bulegoen atxikipena eta eginkizunak onesteko.

- BASOAK KUDEATZEKO ATALA
 - BASOAK LEHENGORATZEKO BULEGOA
 - BASOKO SUTEEI AURREA HARTZEKO BULEGOA
- BASO PLANGINTZARAKO ATALA
 - INGURUNE NATURALEKO PLAN ETA PROGRAMEN BULEGOA
 - BASO ONDAREAREN BULEGOA
- EHIZA KUDEAKETARAKO ATALA
- INGURUMEN HEZKUNTZAREN, KALITATEAREN ETA ZAINTZAREN ZERBITZUA
 - ADMINISTRAZIO LAGUNTZAKO BULEGOA
 - BALIABIDEEN KUDEAKETARAKO ETA LAGUNTZARAKO BULEGOA
 - INGURUMEN KUDEAKETAREN KALITATEAREN BULEGOA
 - INGURUMEN HEZKUNTZAREN BULEGOA
- Ingurumena Zaintzeko Atala
 - KOORDINAZIO UNITATEAK: BIDASOKOA, AEZKOA-KINTOKOA, ERRONKARI-ZARAITZUKOA, IRUÑEKO, KOORDINAZIO UNITATE TRANSBERTSALA, INGURUMENAREN KOORDINAZIO UNITATE ZENTRALA, LIZARRA 1, LIZARRA 2, SAKANA-MENDIALDEKOA, AGOIZKOA, TAFALLA-ZANGOZAKOA eta TUTERAKOA

IZNren egitura eta lotura Departamentuko beste alor batzuekin

Halaber, zuzendaritza nagusiko zerbitzuek badute lotura Idazkaritza Tekniko Nagusiaren eginkizunekin. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari atxikitako unitate horrek zeharkako atal batzuk ditu gaur egun, bai IZNrentzat, bai Departamentuko beste bi zuzendaritza nagusientzat diharduena.

- IDAZKARITZA TEKNIKO NAGUSIA
 - LANDA GARAPENAREN, NEKAZARITZAREN ETA ABELTZAINZAREN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ATALA
 - INGURUMENAREN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ATALA
 - GAI ADMINISTRATIBOAK ETA BALIABIDEAK KUDEATZEKO ATALA
 - LANGILERIAREN ETA HERRITARREI ARRETA EMATEKO ATALA
 - AURREKONTUEN KUDEAKETARAKO ATALA
 - INFORMATIKA KUDEATZEKO ATALA
 - LANDA ETA INGURUMEN ESTATISTIKAREN ETA INFORMAZIOAREN ATALA

IZNko langileak

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak aldaketa ugari izan ditu eginkizunetan zein antolaketan, zuzendaritza bera egokitu beharrez azken legegintzaldietan esleituriko eskumenetara. Aldaketa horiek direla-eta, zaila da konparazioa egitea eginkizunen arloan zein haiei loturiko zerbitzu eta antolaketa-unitateek atxikita dauzkaten langileen arloan.

IZNko plantillan 260 langile daude 2023ko abenduan, bost zerbitzutan:

IZN-KO PLANTILLAREN EGITURA											
KONTRATAZIO MAILA	A		B		C		D				
KONTRATU MOTA	F	T	F	T	F	T	F	T	F	T	GUZTIRA
ZUZENDARITZAKO EGITURA	1	0	0	0	1	0	0	0	2	0	2
NAFARROAKO KLIMA ALDAKETARAKO BULEGOAREN ZERBITZUA	5 ¹	2	0	0	0	1	0	0	5	3	9
EKONOMIA ZIRKULARRAREN ETA BERRIKUNTZAREN ZERBITZUA	10	6	3	4	5	2	0	0	18	12	30
BIODIBERTSITATEAREN ETA ARRANTZA KUDEAKETAREN ZERBITZUA	9	12	0	2	2	6	3	5	14	25	39
BASOEN ETA EHIZA KUDEAKETAREN ZERBITZUA	10	5	4	7	3	4	0	0	17	16	33
INGURUMEN HEZKUNTZAREN, KALITATEAREN ETA ZAINTZAREN ZERBITZUA	1	1	9	0	88	47	0	2	98	50	148
GUZTIRA, AZTERTUTAKO 4 ZERBITZU TEKNIKOETAN	34	25	7	13	10	13	3	5	54	56	110
GUZTIRA, INGURUMEN ZUZENDARITZA NAGUSIAN	37	26	16	13	98	60	3	7	154	106	260

¹ Izendatzeko daude ataleko buru bat (1) eta bulegoko buru bat (1), 2023ko abenduan.

Taulan, pertsonak bereizten dira kontratazio mailaren arabera (A-D), kontratu motaren arabera (F: finkoa; T: aldi baterakoa), eta pertsonen ehuneko erlatiboaren arabera, unitate bakoitzaren barnean.


Nabarmendu behar da **zer handia den behin-behinekotasun maila IZNren Plan Zuzentzailearen II. Zatiari lotutako zerbitzu teknikoetan; izan ere, plantillako langileen % 50 baino gehiago da**. 2023ko azaroan, [Nafarroako Kontuen Ganberak aurkeztutako txosten batean](#), aditzera eman zen ezen **administrazio erroko behin-behinekotasun indizea % 34 zela, hau da, 4 zerbitzu horietan baino nabarmen txikiagoa**. Horietako bakoitzari eskainiriko atalean analisi zehatzago eta xehakatuago bat egiten da horren inguruan, lanpostuka.

Ingurumen Hezkuntzaren, Kalitatearen eta Zaintzaren Zerbitzuaren behin-behinekotasun indizea, 2023ko abenduan, % 34 da, administrazio erroak duenaren antzekoa. Hartara, IZN osorik kontuan harturik, zerbitzu hori barne, % 41era jaisten da guztira dagoen behin-behinekotasun indizea.

Zerbitzu teknikoetan 110 lanpostu daude guztira, eta horietatik % 10 dago bete gabe (2023ko abenduan). 4 zerbitzuetako langileen artean, % 56 dira gizonak, eta % 44 emakumeak. Zuzendaritza-postuei erreparatuz gero (zerbitzuko, ataleko zuzendariak eta bulegoburuak), gizonen ehunekoa % 68ra igotzen da, postu teknikoetan % 66 dira, beteriko lanpostuetan, eta administrazio-postuetan, horietako gehienak emakumeek betetzen dituzte, % 64 zehazki.

Azken urteetan, basozainetan plantilla handitu delako ari dira langileak gehitzen, alor teknikoetan baino gehiago (2023an, 15 lanpostu sortu ziren Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldean).

Hurrengo grafikoan ageri da IZNko langileetan izan den eboluzioa, azken urteetan. Argitu behar da ezen 2019an IZNk betetzen zituen eginkizun batzuk Ingurumenaren eta Lurraldearen Antolamenduaren Zerbitzu Juridikora transferitu zirela, bai eta langileetako batzuk ere.



Azken 11 urteetan (2012-2023), IZNko langileen batezbestekoa 244 izan da; alabaina, hor kontuan hartzen dira Ingurumen Hezkuntzaren, Kalitatearen eta Zaintzaren Zerbitzuko langileak, non plantillaren dinamika bestelakoa izan baita. Erreparatuz gero **lau zerbitzu teknikoetako plantillari, langile-kopuruaren batezbestekoa 108 izan da.**

Aurrekontua: bilakaera orokorra

IZNren aurrekontu orokorra 43 milioi eurokoa da 2024an. Grafikoan ageri denez, **azken 10 urteetan IZNren aurrekontua ia hiru halako handitu da** (2015ean 15 milioi pasa izatetik, 2023an ia 45 milioi izatera). Gehikuntza hori areagotu egin da 2022an eta, bereziki, 2023an, **REACT eta Next Generation/SEM funtsak kudeatzearen ondorioz.**

Funts horiek bestelako tokia dute aurrekontuan², eta 6. eta 7. kapituluetan biltzen dira. Zehazki, 6. kapitulua REACT funtsen ondorioz gehitzen da, eta 7. kapitulua, aldiz, Next Generation/SEM funtsengatik.

Aurrekontuaren barne-banaketari dagokionez, nabarmendu behar da ezen Ingurumen Hezkuntzaren, Kalitatearen eta Zaintzaren Zerbitzuak badituela gastuak 1. eta 2. kapituluan, baina ez transferentzietan edo hirugarrenentzako laguntzen kudeaketan; hartara, Europar Batasunaren finantzaketak ekarritako aurrekontu-gehikuntza kudeatzen dute IZNren Planaren II. Zati honen xedeko 4 zerbitzu teknikoek.



² 1. KAPITULUA: Pertsonal-gastuak

2. KAPITULUA: Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

4. KAPITULUA: Transferentzia arruntak

6. KAPITULUA: Inbertsio errealak

7. KAPITULUA: Kapital-transferentziak



Aurreko grafikoak ikusirik, ondorioztatzen da gehitu egin dela, azken urteetan, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontu osoa; alabaina, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- IZNren aurrekontuen **goranzko joera** –hain zuzen, grafikoan, azken bost urteetan, atzematen dena–, **bi kontzeptu bereiziren ondorioz gertatu da: suspertze-planak**

(REACT eta Next Generation/SEM), batetik, **eta funts espezifikoak** (hondakinen funtsa eta klima-aldaketaren funtsa), bestetik.

- Next Generation Suspertze Plana deritzon programaren funtsak 2026aren erdialdera arteko gauzatze-epea dute, eta funts horiek aurrekontu osoan sartzean, erabilgarri dauden urteetan, desitxuraturik ager daiteke IZNren aurrekontuaren eboluzioan izan den joera. Izan ere, **2026tik aurrera ez da izanen ekarpen gehigarri hori**.
- Aurrekontu osoan sartzen dira, orobat, IZNn ezarri diren funts espezifikoak, hots, hondakinen funtsa eta klima-aldaketaren funtsa. Zehazki, **klima-aldaketaren funtsari dagokionez, eboluzio positiboa espero da**, baso aprobetxamendu jasagarriak gehitzearen ondorioz eta beste ekarpen batzuen ondorioz (funtsa, gaur egun, guztiz arautzekotan dago). Aitzitik, **hondakinen funtsak beheranzko joera izan behar du**, isurketaren gaineko zerga baitu diru-iturri. Hondakinen kudeaketa hobetu ahala, hain zuzen, murriztu egingen da ezabaketara joanen den hondakin-zatia, bai eta, horrenbestez, horrek diruz hornitzen duen funtsa ere.
- “Gizarte intereseko beste xede batzuetarako” **zerga-esleipeneko funtsak** (% 0,7) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) datozenek **ia ez dute aldakuntzarik** izaten urteetan zehar; hala bada, ez dute ia eraginik aurrekontuaren eboluzioan.
- Azkenik, nabarmendu behar da ezen **IZNren oinarritzko aurrekontuak**, azken bost urteetan, **gehikuntza txiki bat** baizik ez duela izan, **% 1,46koa, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuak izaniko % 12,97ko** igoeraren aldean, behin Next Generation funtsak kenduta.

	URTEA	Next Gen/SEM	REACT	Next Gen/SEM eta REACT kenduta	Funtsen %, aurrekontu osotik	Aurrekontuen gehikuntza, funtsak kenduta
NG	2022	90,0	73,3	4.541,2	% 3,4724	
	2023	186,2	63,4	4.938,2	% 4,8119	% 8,74
	2024	173,2	0,7	5.578,4	% 3,0220	% 12,97
IZN	2022	2,6	3,4	30,7	% 16,3296	
	2023	8,5	4,0	31,8	% 28,1835	% 3,50
	2024	10,3		32,3	% 24,2740	% 1,46

- Zuhur hartu behar da IZNren aurrekontuak nabarmen gehitu izanaren irudi positiboa; izan ere, gehikuntza horren arrazoi gehienak aldi baterako egoera baten ondorio dira, eta ez dago bermaturik horren jarraipenik. Hori ahuleziaz hartzen da, nabarmentzen baita garrantzitsua dela behar adinako aurrekontua izatea IZNren erronka handiei aurre egiteko.


Aurrekontua: Gastuaren eboluzioa kapituluka

Gastuak kapituluka duen banaketari dagokionez, zeinek bere moduko eboluzioa izan dute:

- **1. kapitulua, pertsonal-gastuena, % 10 murriztu da 2017-2023 aldian**. Horren arrazoia izan da langile batzuk joan zirela; hain zuzen, Lurralde Antolamendukoak eta Idazkaritza

Tekniko Nagusiko batzuk. Beste arrazoi bat da aldi horretan plantilla gutxi finkaturik zegoela.


- 2. kapitulua, gastu arruntena, % 33 gehitu da aldi horretan berean. Kapitulu horretan sartzen da GAN-NIK sozietateari eta beste sozietate publiko batzuei eginiko enkarguen zati bat, gero eta gehiago baitira.
- Ildo beretik, aldi horretan % 44 gehitu da 4. kapitulua, transferentzia arruntei dagokiena. Kapitulu hori da, hain zuzen, zuzeneko laguntzak biltzen dituen.
- Azkenik, 6. eta 7. kapituluak, hots, aparteko funtsei loturiko jarduketak biltzen dituztenak, % 263 eta % 140 handitu dira, hurrenez hurren, batez ere REACT eta Next Generation/SEM funtsengatik.



Lankidetzeta sozietate publikoekin

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko sozietate publikoekin egiten den lankidetzari dagokionez, IZNk horietako 4rekin egiten ditu enkarguak: GAN-NIK, INTIA, NASUVINSA eta TRACASA; bai eta estatuko TRAGSA enpresa publikoarekin ere. Grafikoetan ikus daitekeenez, 2023. urtean, GAN-NIK sozietateak bildu zuen horrelako lankidetzeta-lanetarako esleiturik dagoen aurrekontuaren % 94, bera izanik IZNren berezko entitate instrumentala.


Horri dagokionez, interesgarria da aipatzea ezen IZNk garapenerako laguntzaren formula ezarri duela lan batzuetarako GAN-NIK sozietateari egiten dizkion enkarguetan, bestela lan horiei ekitea pentsaezina ere bailiteke.



Enkarguei loturiko aurrekontuen eboluzioan, ikusten da **% 47 gehitu direla 2015etik 2023ra bitartean**.

Bestalde, erreparatzen bazaio 2023ko “aurrekontua / esleitutako pertsonak” ratioaren datuari, IZNko kanpo-plantillaren eboluzioa zenbatets-edo daiteke, eta konparatu IZNko zerbitzu teknikoetako plantillaren eboluzioarekin. Hala, ondorioztatzen da IZNko plantillak egonkor dirauela, konparazio erlatiboari dagokionez (joan ziren langileak alde batera utzirik, lehen aipatu denez), eta GAN-NIK sozietate publikoan, ordea, plantilla gehitu egin dela, enkarguak gehitzearekin batera, hain zuzen, horrek kontratazio gehiago egin beharra baitakar.

Enpresa publikoei egiten zaizkien enkarguak direla-eta, beharrezkoa da dagokien prozedura, koordinazioa eta kudeaketa egitea. Horiek atal eta bulegoetako figura kudeatzaileek hartzen dituzte beren gain, eta, ondorioz, lan-karga areagotzen zaie postuoi.



2.2 BASOEN ETA EHIZA KUDEAKETAREN ZERBITZUA

2.2.1 Zerbitzuaren egoera orokorra

Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzua: Eginkizunak

Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzua osatzen duten atalek eta Administrazio Laguntzako Bulegoak³ eginkizun hauek betetzen dituzte (255/2023 FD):

- BASO PLANGINTZARAKO ATALA
 - Basoetako gaixotasun eta izurrien jarraipena eta kontrola egitea.
 - Ekintzak eta proiektuak garatzea basoei buruzko ikerketa eta esperimentaziorako.
 - Basoei buruzko estatistika egitea.
 - Aldizkako deialdiak prestatzea zerbitzuak izapidetzen dituen laguntzetarako.
 - Deialdiak prestatzea Europar Batasuneko programa kofinantzatuetan sartzen diren eta zerbitzuak izapidetzen dituen laguntzetarako, eta aipatu programen jarraipena egitea zerbitzuak kudeatutako neurriak jasotzen dituztenean.
 - Dirulaguntza kanpaina horietako espedienteen kudeaketa administratiboa.
 - Honako hauekin loturiko ekintzak: irizpide teknikoak ezartzea; basoen plangintza estrategikoa; eta, bereziki, zuraren eta baso biomasaren erabilera sustatzea.
 - Mendi babesleen eta onura publikokoen katalogoak mantentzea.
 - Baso industriarentzako laguntzen deialdiak gauzatzea eta horien jarraipena egitea.
 - Nafarroako Baso Ondareko finketan, esperimentazioa egitea baso aprobetxamendu nagusien eta bigarren mailakoen gainean, bai eta horiek bultzatu eta indartzea ere, zerbitzuak agintzen dizkion jarduketetan. Eremu babestuko deklarazioa duten Nafarroako Baso Ondareko finketan, behar den prozedura ezarriko da Biodibertsitatearen Zerbitzuarekin batera, egoki kudeatzeko.
 - Honako hauetarako parte hartzea eta koordinatzea: basoen esparruko landa garapeneko programazioa prestatzea; basoen esparruko arau-aldaketak, eta baso estrategia garatzea eta bultzatzea, Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuarekin lankidetzan.
 - Zurari buruzko EUTR Erregelamendua gauzatzea, ikuskapen sistema bat ezarririk, legez kontrako zurik ez merkaturatzea bermatzeko.
 - Lankidetzaren harremanak ezartzea unibertsitateekin eta ikerketa zentroekin, zuzendaritza nagusiaren lan arloetan.

³ Nahiz eta Administrazio Laguntzako Bulegoa ez den jasotzen 255/2023 Foru Dekretuan, departamentuaren egitura berria ezartzean, mantendu egin da beharren estimazioa egiteko. Hori bai, kendu dira ingurumen-hezkuntzari eta abelbideei dagozkien zereginak, ez baitira gehiago zerbitzuaren eskumenekoak

- Modernizatu eta sinplifikatzeko ekintzak abian jartzea zerbitzuaren prozeduretan. Barnean sartzen dira loturik daudenak zerbitzuaren jarduketak georreferentziatzeko tresnen aplikazioarekin.
 - Basogintzako elkarteei buruzko espedienteak kudeatzea eta horiekin solaskidetzan jardutea.
 - Basogintzako mantentze-lanetako jarduketak gauzatzea Donejakue bidean.
- BASOAK KUDEATZEKO ATALA
 - Antolatuak dauden mendiak aprobetxatu eta hobetzeko urteko planak prestatu eta onestea, eta haien jarraipena egitea.
 - Antolatuak ez dauden mendietan, hala herri-mendietan nola partikularretan, mozketak egiteko baimenak prestatu eta onestea, eta haien jarraipena egitea.
 - Mendiak antolatzeko proiektuak, horien berrikuspenak eta basoak kudeatzeko plan teknikoak prestatzea, eta haien jarraipena egitea.
 - Txostenak egitea okupazioak, desfektazioak eta mendi katalogatuak ukitzen dituzten ekintza guztiak baimentzeko espedienteen gainean.
 - Nahitaezko txostenak egitea baso lurrak ukitzen dituzten era guztietako jarduketetan, laguntza deialdien, planen eta proiektuen gainean, barnean direla Natura 2000ko kudeaketa planetan eta horien berrikuspenetan ezarritako neurriak.
 - Baso-suteak prebenitzeko behar diren ekintzak planifikatzea eta gauzatzea, eta izurriek eta beste hondamendi batzuek jotako baso eremuak leheneratzeko lanak egitea.
 - Nafarroako Baso Ondareko finkak kudeatzea, zerbitzuak agintzen dizkion jarduketetan. Eremu babestuko deklarazioa duten Nafarroako Baso Ondareko finketan, behar den prozedura ezarriko da Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzuarekin batera, egoki kudeatzeko.
 - Zerbitzuak eskumenekoak dituen laguntzetarako deialdien txostenak eta horien jarraipen teknikoak egitea.
 - Behar diren neurriak gauzatzea ibaiak eta basoak leheneratzeko, bai eta mendiak mantendu, hobetu eta modu jasangarrian erabiltzeko ere.
 - Natura-monumentu deklaraturako zuhaitz apartekoak kontserbatzea.
 - Bere eskumenen esparruan, espezie basatiak, habitatak eta naturagune babestuak babestu, zaindu eta kudeatzeko planetan jasotzen diren neurriak gauzatzea.
 - Beste unitate batzuei laguntzea ingurumen hezkuntzarekin loturiko jarduketetan, zerbitzuak hala agintzen dizkionean.
 - Laguntza ematea baso-ziurtapenera bideratutako lanetan.
 - Jarduketa eta inbertsio publikoak eta pribatuak sustatzea, karbono-hustubideak babestu eta hobetzeko, eta klima-aldaketara egokitzeko.
 - Aholkularitza teknikoak ematea ehiza jarduera kudeatzeari dagokionez, eta laguntzea Nafarroan ehiza lurralde-mailan planifikatzeko proposamenetan.

- Kudeaketa tekniko eta administratiboa ehiza antolatzeko planen esparruan.
- Ehiza barrutiak eratu eta aldatzeko espedienteak izapidetzea.
- Ehiza antolatzeko planak onetsi eta aldatzeko espedienteak izapidetzea.
- EHIKA KUDEAKETARAKO ATALA
 - Ehiaren plangintza integrala Nafarroan.
 - Ehiza faunaren populazioak kontrolatzea eta haien jarraipena egitea.
 - Ehiza jarduera kudeatzeko aholkularitza teknikoa.
 - Proposamenak prestatzea ehiza-debekualdiei buruzko eta harrapatu eta merkaturatu daitezkeen animalia espezieei buruzko xedapenetarako.
 - Ehiza-lizentziak kudeatzea.
 - Administrazio-baimenak kudeatzea ehiaren esparruan.
 - Ehiaren arloko laguntzak diseinatu eta kudeatzea.
 - Txostenak egitea Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak edo beste erakunde batzuek ehiari buruz edo ehiza-espeziei buruz eginiko eskaeren gainean.
 - Lankidetzan aritzea unibertsitateekin, ikerketa zentroekin eta bestelako entitateekin, ehiaren arloko proiektu edo azterlan pilotuetan.
 - Ehiaren akreditazioa ematea Nafarroan.
 - Ehiza-hegaztien erregistroa kudeatzea.
 - Ehiza-trofeoak homologatzea.
 - Epizootia eta zoonosi kasuetan, horietaz arduratzen diren beste erakunde batzuekin koordinaturik parte hartzea.
- ADMINISTRAZIO LAGUNTZAKO BULEGOA
 - Zerbitzuko zuzendaritzari lagundu eta harekin elkarlanean aritzea.
 - Atal eta bulegoen lan administratiboa antolatzea.
 - Zerbitzuari buruzko agiriaren sarrera-irteerak kontrolatu eta erregistratzea.
 - Kanpoko eta telefono bidezko eskaerei arreta ematea.
 - Aurrekontuen betetze-mailaren egoera-orriez arduratzea.
 - Zerbitzuaren artxibo, liburu eta agiriak kudeatu eta kontrolatzea.
 - Zerbitzuaren jardueren estatistika eta adierazleak lantzea.
 - Ehiari buruzko agiriaren sarrerak kontrolatu eta erregistratzea.
 - Ehiza barruti eta ehiza antolatzeko planetako erregistro, artxibo eta datu basea eguneratu eta mantentzea.
 - Ehiako Aholku Batzordeari dagozkion agiriak artxibatzea eta erregistratzea, bai eta antzeko beste organo batzuei dagozkienak ere.

Basoen eta Ehizaren Zerbitzua: Egitura eta plantilla

Egituraren ikuspuntu orokorretik, hurrengo taulan zerbitzuko kontratazio mailai eta lanpostu motei loturiko ezaugarriak azaltzen dira.

BASOEN ETA EHIZA KUDEAKETAREN ZERBITZUA											
KONTRATAZIO MAILA	A		B		C		D				
KONTRATU MOTA	F	T	F	T	F	T	F	T	F	T	GUZTIRA
Zuzendaria	1								1	0	1
Administrazio Laguntzako Bulegoa					3	4			3	4	7
Basoak Kudeatzeko Atala	4	1	3	4					7	5	12
Baso Plangintzarako Atala	4		1	3					5	3	8
Ehiza Kudeaketarako Atala	1	4							1	4	5
GUZTIRA, ZERBITZUAN	10	5	4	7	3	4	0	0	17	16	33

Zerbitzuaren behin-behinekotasun maila orokorra % 48,48koa da (aldi baterako lanpostuak / lanpostu guztiak). Ehiza Kudeaketarako Atalean biltzen da batik bat, han **% 80ra** iristen baita. eta hurrengoa Administrazio Laguntzako Bulegoa da, **% 57,14**. Basoak Kudeatzeko Atalean eta Baso Plangintzarako Atalean, behin-behinekotasun indizeak % 41,67 eta % 37,50 dira, hurrenez hurren.

Egitura honi gehitu behar zaizkio GAN-NIK enpresa publikoak jartzen dituen baliabide gehigarriak, kanpoko laguntza tekniko gisa. Izan ere, berak hartzen ditu bere gain, askotan, saturazio handia dela-eta Zerbitzuak erantzun ezin dien hainbat lan.

Behin-behinekotasun maila, barneko ikuspuntutik, arretagune bat da, honako hauek direla-eta: langile berriei prestakuntza emateak dakartzan arazoak, joaten diren pertsona prestatuek jardueraz duten ezagutzaren galera, zerbitzuaren zuzeneko jarduna, eta zeharkako beste ondorio batzuk, hala nola gainetik sortzen den zailtasuna, beste zerbitzu batzuekin partekaturiko espedienteak daudenean.

2.2.2 Analisia barneko pertzepziotik

Atal honetan, Zerbitzuaren barneko pertzepziotik aztertu nahi da bertan egiten diren jarduera eta zerbitzuen jarduna. Helburua da langile gehiagoren beharrak kalkulatzeko atal bakoitzerako, behar den moduan eta epean gauza ditzaten legediak eta, orobat, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren ekimenak eta plangintzak esleitu dizkieten eginkizunak.

Analisi hori Zerbitzuko teknikariek eta zuzendaritzako kideek prestatu zuten 2022. urtean, 2021eko datuak erabiliz, eta une hartan barne egiturak bazituen zenbait eskumen gaur egun beste zerbitzu batzuei dagozkienak. Horien artean zeuden, esaterako, abelbideak eta ingurumen-hezkuntza, eta haiei dagozkien lanak tauletatik kendu dira, 2024ko errealitatera egokitze aldera.

BASOAK KUDEATZEKO ATALA

Denboraren % 25 Basolanetarako Laguntzen kanpainan (ATF) erabiltzen da. Espedienteetako agiriaren azterketa teknikoa egiten da, bai eta eta espediente horien administrazio-kudeaketa ere. Landako azterketa Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldeko langileek egiten dute.

Bestalde, denboraren % 30 Atalari esleitutako aurrekontua kudeatzeko lanetarako erabiltzen da, eta egiten dira administrazio-prozedurei loturiko lanak nahiz lan horien jarraipenari eta gauzatzeari loturikoak. Gutxi gorabehera, denbora horren % 50 aipaturiko aurrekontuaren administrazio-kudeaketarako da, eta % 50 baizik ez da gelditzen (guztiaren % 15) beste lan batzuetarako, hala nola obrak gauzatzeko lanak, baso plangintza, suteak prebenitzeko plangintza, etab.

Denboraren % 15 erabiltzen da ebazteko **mendien eta baso-lurren gaineko jarduketaren espedienteak, salbu mozketenak.** Landako azterketa Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldeko langileek egiten dute.

Halaber, **denboraren % 20 inguru erabiltzen da beste unitate batzuek eginiko kontsultei erantzuteko,** haien espedienteak kudeatzeari loturik, salbu basolanetarako laguntzenak. Kontsulten gaiak askotarikoak dira, eta denbora franko behar izaten dute.

Atalean, **denboraren % 5 zura mobilizatzeko erabiltzen da.** Gaur egun, desoreka dago zuraren goranzko eskariaren eta horri erantzuteko dagoen ahalmenaren artean, Administrazioko giza baliabideei dagokienez. Batzuetan, epeak gainditzen dira zura mozteko baimenak ematerakoan. Dauden baliabideekin, ezin da denbora kendu beste zeregin batzuetatik –horiek administrazio-epe hertsia izaten baitituzte– lan hauetan erabiltzen direnak gehitzeko. Bestalde, aipatu behar da, lanok baso-kudeaketaren funtsezko oinarrietako bat direla.

Gainerako denbora, guztiaren % 5, erabiltzen da antolaketako zereginetan, bileretan, telefono-deietan, jendearentzako arretan, etab.

Bestalde, 2022ko udan **Nafarroan 16.000 ha erre ziren,** Foru Komunitatearen azaleraren % 1,5etik gora. 2022. urtearen bukaeran **zur-mozketaren fasea hasi zen,** eta, aurrerantzean egiten diren jarduketetan, leheneratze lanei ekinen zaie, gizarte osoaren eskaera izanik, bai eta legezko betebeharra ere, basoei buruzko legediaren esparruan.

Laburbilduz, egun dauden baliabideak ez dira nahikoak, baso plangintza egoki baterako ekintza guztiak egiten badira, barne direla suteen gaineko plangintza eta zuraren mobilizazioa, hots, hurrengo urteetarako funtsezkoak diruditen alderdiak.

Horiek horrela, kalkulatzen da Atala indartu behar dela profil teknikoko 6 langilerekin.

	ESPEDIENTE KOP. 2021ean	EGUNGO GAUZATZE DENBORA (min/esp.)	EGUNGO GAUZATZE DENBORA (min)	GAUZATZE DENBORA OPTIMOA (min)	Oharrak
GAMA					
Partikularrak	454	30	13620	27020	Espedienteen % 10ek, gutxienez, aurretiazko azterketa behar zuten onartu baino lehen; era berean, % 5etan komeniko litzateke kontrol tekniko egitea, lanak egin eta gero. Hortaz, kalkulatzeko da 200 minutu behar direla bisitaldi bakoitzerako.
Herri-lurrak	188	180	33840	146640	Teknikoki, jarraipen-bisita egin beharko lirateke (gutxienez bat hilean), eta bisita bat lanak bukatutakoan. Kalkulatzeko da, batez beste, baso ustiapena 2-3 hilabetekoa dela; hortaz, 3 bisitaldi kalkulatzeko dira, bakoitzerako guztira 200 minutu erabilita.
Egurak	176	30	5280	40480	Teknikoki, landa-bisita bat egin beharko litzateke, etxerako egurrak non markatzen diren ikusteko eta markatze irizpidea zehazteko. Kalkulatzeko da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
ATF-Basolanetarako laguntzak (pool)	465	600	279000	465000	Nahitaezko landa-bisita egin beharko lirateke laguntza eman baino lehen. Kalkulatzeko da bisitaldi bakoitzerako 400 minutu behar direla.
EXTR@					
Hirugarrenentzako txostenak egitea- (CORP)	153	880	134640	134640	
Konfederazioentzako txostenak egitea	42	20	840	4380	2022an, urriak 31 dituela, 219 espediente erregistratu dira, 2021eko guztizko zenbatekoa gainditurik. 219 espedientetarako behar den denbora kalkulatu da.
Erabilera-aldaketen baimenak	145	180	26100	55100	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzeko da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
Joko eta ikuskizunak	39	180	7020	14400	Kalkulatzeko da 2022ko bukaerarako izanen dela 2021eko kopurua halako bi. 80 espedientetarako behar den denbora kalkulatu da.
Ingurumen Eraginaren Atala	38	850	32300	63750	Kalkulatzeko da 2022ko bukaerarako izanen dela 2021eko kopurua halako bi. 75 espedientetarako behar den denbora kalkulatu da.
Azpiegitura Energetikoen Atala	2	850	1700	1700	
Lurralde Antolamenduaren Atala	34	60	2040	2040	
Ingurumenaren Araubide Juridikoaren Atala	38	250	9500	9500	
Hirigintza Atala-HT4	3	60	180	180	
Informazio publikoa eskuratzea	1	800	800	800	
Ingurumen arloko informazioa eskuratzea	95	800	76000	7600	
Basoa	298	100	29800	29800	
Naturaguneetako baimenak	28	120	3360	8960	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzeko da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
Abeltzaintzako laguntzen ingurumen-baimena	91	120	10920	29120	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzeko da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
Sua erabiltzea	29	120	3480	9280	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzeko da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
Belar-sastrakak garbitzea, landaretzatza moztea	196	120	23520	62720	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzeko da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
Informazio eskaerak	10	120	1200	3200	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzeko da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
Naturaguneetako baimenak	27	120	3240	8640	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzeko da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
Basoberritzeak	35	120	4200	11200	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzeko da bisitaldirako 200 minutu behar direla.

	ESPEDIENTE KOP. 2021ean	EGUNGO GAUZATZE DENBORA (min/esp.)	EGUNGO GAUZATZE DENBORA (min)	GAUZATZE DENBORA OPTIMO (min)	Oharrak
Espedienteen erregistroa					
Mendiko pistak irekitzea	14	120	1680	4480	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzan da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
Mendiko pistak hobetzea	20	120	2400	6400	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzan da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
Donejakue bidea	1	120	120	320	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzan da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
Beste batzuk	134	120	16080	42880	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzan da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
ASKOTARIKOAK					
Neguko erreketak	257	180	46260	97660	Ez da landa-bisitarik egiten Ataleko lantalde teknikoak baimena eman baino lehen; kalkulatzan da bisitaldirako 200 minutu behar direla.
Fakturak	146	1220	178120	178120	Barnean sartzen dira eskaintza-eskaera, eskaera-orriaren kudeaketa, fakturaren eskaera, ordainketaren gaineko txostena, obraren jarraipena, etab.
NOFYR					
Basoak Kudeatzeko Atala	68	3000	204000	204000	NOFYR-en % 10 dagozkie PLENaren bidezko lizitazio-prozedura publikoei. Egin beharreko izapideen artean daude baldintza-agirien idazketa, kontratazio-mahaiak, adjudikazioa, ordainketak, etab. Atal honi egotzen zaio lan horien jarraipenean erabilitako denbora. Plangintza-azterlanak eta obrak barne.
ORDUAK			19187	28974	
ATALEKO PERTSONA KOPURUA			12	18	

BASO PLANGINTZARAKO ATALA

Baso Plangintzarako Atalak **epe barnean erantzuten die bere gain dituen jarduketa guztiei**, foru aurrekontuaren, LGENFren eskaeren, proiektu kopuruaren eta abarren arabera. Dena den, **lana egin beharko litzateke zorrotasun tekniko eta eraginkortasun handiagoz**, eta egungo baliabideekin ez da posible inplementazio hori lortzea.

Lan-karga handia dela-eta, Atalak **ez ditu erabiltzen erabili behar lituzkeen baliabideak ingurumen arloko ezagutza sortzeko eta baso-kudeaketa planifikatzeko**, horiek biak haren eskumeneko arloak izanik.

Atala ohartu arren dedikazio eta garapen handiagoa behar duela esleituak dituen jarduerak egiteko, giza baliabideen faltak eta ataleko burutzaren saturazioak lan-ildo berriei ekitea galarazten diote.

Behin taula 2024an eguneraturik, hots, ingurumen-hezkuntzari eta abelbideei lotutako lanak kendurik, kalkulatzan da Atalak 4 teknikari gehiago behar dituela.

	ESPEDIENTE KOP. 2021ean	DENBORA OPTIMOA (ordu/esp.)	GAUZATZE DENBORA (ordutan)
GAMA APLIKAZIOA			
ATF-Basolanetarako laguntzak (pool)	465	3	1395
GAMako funtzionalitateak mantentzea	30	0,1	3
EXTR@			
Urbasako baimenak	126	1,3	160
Aziendaren igoera	499	0,1	35
Egurak	261	0,2	40
Hirugarrenentzako txostenak egitea-(CORP)	132	6	792
Basoa	77	1	77
Espedienteen erregistroa			
Naturaguneetako baimenak	8	1	8
Abeltzaintzako laguntzen ingurumen-baimena	1	0,5	0,5
Sua erabiltzea	1	1	1
Belar-sastrakak garbitzea, landaretza moztea	1	1	2
Basoberritzeak	1	1	1
Mendiko pistak irekitzea	1	24	24
Mendiko pistak hobetzea	1	24	24
Donejakue bidea	1	30	30
Beste batzuk	12	30	360
ASKOTARIKOAK			
Fakturak	211	0,1	21
NOFYR			
Foru agindua / Gobernuaren erabakia	29	9,7	280
RTAko ordainketak (nekazaritzako lurak basoberritzea)	90	0,25	22,5
Mendi-larreen izapideak	10	30	300
Basoen industria-izapideak	10	30	300
Inbertsioen kontratuak	5	35	175
ATF-Basolanetarako laguntzak ematea/ordaintzea	4	17,5	70
Altxonbideen sailkapena	1	450	450
Beste batzuk	18	2	36
BESTE BATZUK			
Ugalketarako baso-materialak. Askotariko ekintzak	10	1,5	15
Baso-osasuneko gorabeheren jarraipena	100	1	100
Sare Fitosanitarioaren ebaluazioa	83	0,5	41,5
Izurrien jarraipena	20	17	340
Basogintza Agendaren jarraipena/inplementazioa	1	150	150
EUTRren ikusapena eta jarraipena	10	10	100
Basoen gaineko ziurtapena	100	100	10000
Guztien jakinerakoak (weba, baso-tarifak...)	4	1100	4400
Patronatuak prestatzea. Mahai tematikoak	1	35	35
Prozeduren eskuliburuak, auditoretzak, LGP kudeatzea (Landa Garapenerako Progr.)	10	7	70
Life Nadapta eta Europako beste proiektu batzuk	1	600	600
LGPren estatistikak prestatzea, ministerioarenak eta beste batzuk	10	7	70
POCTEFA ADN PYR	1	114	114
ORDUAK			20642,5
LANALDIA			1592
BEHAR DIREN TEKNIKARIAK			13
ATALEAN DIREN TEKNIKARIAK			9
LANGILE BERRIAK			4

EHIZA KUDEAKETARAKO ATALA

Ehiza Kudeaketarako Atala 5 langilek osatzen dute, eta horietako 4k aldi baterako lanpostuak betetzen dituzte. Hala, lanpostu finko bakarria atalburuak betetzen du.

Atal honen **bereizgarria da oso maiz gertatzea langileen txandakatzea**; horren ondorioz, gaur egun, plantillako gehienek 2 urte baino gutxiago bertan lanean.

Analisia eginik, ikusi da Ehiza Kudeaketarako Atalak aurrera eramaten dituela haren gain utzitako jarduera eta espediente guztiak. Alabaina, hurrengo orrialdeko tauletan ageri denez, 2021ean izapidetu ziren espedienteetako askori epetik kanpo heldu zitzairen, **eta kalkulatzen da espedienteen % 21,3 epez kanpo kudeatu zirela**.

Espedienteak gauzatzean atzerapenik gertatuz gero, daitekeena da zehapenek preskribatzea.

Suposatzen da gauzatze denborak hein batean murriztuko direla, Ataleko langileek esperientzia eta gaiari buruzko ezagutza bereganatu ahala. Hala ere, hobeki antolatuko balira urtean zehar egin beharreko jarduerak, Atalak erantzuteko epeak laburtzen ahalko lituzke.

	ESPEDIENTE KOP. 2021	GAUZATZE DENBORA (ordu/esp.)	GAUZATZE DENBORA (ordutan)	Oharrak
GAMA				
Ehiztarien elkarteak. Habitaten hobeak	24	6	144	
Toki-erakundeak. Kalteen prebentzioa	6	4	24	
Toki-erakundeak. Ehizazainak kontratatzea	7	4	28	
Ehiztarien elkarteak. Ehizazainak kontratatzea	37	4	148	
EXTR@				
Ehiza-hegaztien erregistroan alta ematea	9	3	27	Atzerapen handiz erantzun zaie
Ehiza-hegaztien erregistroan baja ematea	2	1	2	Atzerapen handiz erantzun zaie
EAPak onestea edo aldatzea (ehiza antolatzeako planak)	97	30	2910	Atzerapen handiz erantzun zaie
Salbuespeneko baimenak	8	2	16	
Teknikari edo ikerlarietako baimenak	9	2	18	
Ehiza-barrutiak eratzea/aldatzea	36	15	540	
Hirugarrenentzako txostenak egitea (CORP)	94	3	282	Atzerapen handiz erantzun zaie
Foru agindua	1	50	50	
Ehizako salaketak	157	2	314	Ez zaie erantzun, teknikariek denborarik izan ez dutelako. Ugaritan kexatu dira Ingurumen Hezkuntzaren, Kalitatearen eta Zaintzaren Zerbitzua eta Araubide Juridikoaren Atala, zehapen batzuek preskribatu egin dutelako, izapideen atzerapen horiek direla-eta.
Espedienteen erregistroa				
Ehiza-espezieen gaineko baimenak (kalteak aparte)	382	3	1146	
Ehiza-faunaren kalteak	10	3	30	
Ehizarako gaitasunaren ziurtagiriak	341	3	1023	
Ehizako datu-basea (salbuespeneko baimenak)				Ebazteko legezko epea laburtu egin da, kalteei buruzko foru agindua indarrean sartzean
Untxia	66	2	132	
Korbidoak	18	2	36	
Orkatza, oreina eta basurdea (elkarrekin edo bereiz)	151	2	302	
Faisaia	30	2	60	
Azeriak	128	2	256	
Beste batzuk	6	2	12	
Txapelketak	7	2	14	

	ESPEDIENTE KOP. 2021	GAUZATZE DENBORA (ordu/esp.)	GAUZATZE DENBORA (ordutan)	Oharrak
Askotarikoak				
Trafiko istripuak	40	1	40	
Fakturak	20	0,5	10	
NOFIR				
Ehizarako laguntzak ematea/ziurtatzea	3	20	60	
Basogintza Agendaren jarraipena/inplementazioa	1	20	20	
BESTE BATZUK				
Ehiztari ikastaroa prestatzea	1	40	40	
Ehiztari azterketa	1	10	10	
Jendearentzako arreta	248	1,5	372	
Ehizako app-en jarraipena	Ez-aplik.	Ez-aplik.	15	
Ehizako webguneko informazioa eguneratzea	Ez-aplik.	Ez-aplik.	2	
Ehizako espezieen erantzunketaren informazioa/kudeaketa	4	0,5	2	
Ehizari buruzko liburuxka	Ez-aplik.	Ez-aplik.	15	
ORDUAK			8100	
LANALDIA			1592	
BEHAR DIREN TEKNIKARIAK			5,1	
ATALEAN DIREN TEKNIKARIAK			5	
LANGILE BERRIAK			0,1	

ADMINISTRAZIO LAGUNTZAKO BULEGOA

Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuko Administrazio Laguntzako Bulegoan **7 administrari daude: 3k lanpostu finkoa dute (horietako bat bulegoburuak betetzen du) eta 4 lanpostu aldi baterako langileek betetzen dituzte.** Hala bada, ahulezia handia dago epe laburrean langileak aldatzeari dagokionez.

Beheko taulan zerrendatu dira Zerbitzuan kudeatzen diren eta administrariak noizbait lantzen dituzten espediente mota guztiak. Ageri den espediente kopurua 2021ean gauzaturikoak adierazten ditu, eta espediente bakoitzeko denbora, ordutan, lan bakoitza egoki egiteko behar den denbora optimoa da. **Kalkuluen arabera, Administrazio Laguntzako Bulegoan 10 langile beharko lirateke.**

Batez besteko gauzatze denborak, administrariak espediente bakoitzean erabili beharreko orduetan			
	ESPEDIENTE KOP. 2021ean	DENBORA OPTIMOA (ordu/esp.)	BEHAR DEN GUZTIRA
GAMA APLIKAZIOA			
PARTIKULARRAK	454	1,5	681
HERRI-LURRAK	188	3,55	667,4
EGURRAK	176	0,33	58,08
ATF-Basolanetarako laguntzak (pool)	465	4,83	2245,95
Ehiztarien elkarteak. Habitaten hobekuntza	24	4,83	115,92
Toki-erakundeak. Kalteen prebentzioa	6	4,83	28,98
Toki-erakundeak. Ehizazainak kontratatzea	7	4,83	33,81
Ehiztarien elkarteak. Ehizazainak kontratatzea	37	4,83	178,71
EXTR@ APLIKAZIOA			
Urbasako baimenak	126	0,33	41,58
Aziendaren igoera	499	0,33	164,67
Egurak	261	0,33	86,13

Batez besteko gauzatze denborak, administrariak espediente bakoitzean erabili beharreko orduetan			
	ESPEDIENTE KOP. 2021ean	DENBORA OPTIMOA (ordu/esp.)	BEHAR DENBORA, GUZTIRA
Ehiza-hegaztien erregistroan alta ematea	9	0,25	2,25
Ehiza-hegaztien erregistroan baja ematea	2	0,25	0,5
EAPak onestea edo aldatzea (ehiza antolatzeako planak)	97	0,25	24,25
Salbuespenezko baimenak	8	0,25	2
Teknikari edo ikerlariantzako baimenak	9	0,25	2,25
Ehiza-barrutiak eratzea edo aldatzea	36	0,25	9
Ehiza xeheko egutegia	1	8	8
Hirugarrenentzako txostenak egitea-(CORP)	379	0,17	64,43
Foru agindua	1	0,25	0,25
Konfederazioentzako txostenak egitea	42	0,25	10,5
Erabilera-aldaketen baimenak	145	0,25	36,25
Beste atal batzuen kontsultak:			
Jokoa eta Ikuskizunak	39	0,25	9,75
Animalien Ongizatearen Atala	2	0,25	0,5
Ingurumen Eraginaren Atala	38	0,25	9,5
Azpiegitura Energetikoen Atala	2	0,25	0,5
Lurraldearen Antolamenduaren Atala HT2	34	0,25	8,5
Ingurumenaren Araubide Juridikoaren Atala	38	0,25	9,5
Hirigintza Atala-HT4	3	0,25	0,75
Informazio publikoa eskuratzea	1	0,25	0,25
IKUSKAPENA - SALAKETEN ALTA			
EHIZA	157	0,42	65,94
BASOGINTZA	375	0,42	157,5
Espedienteen erregistroa			
BAIMENAK (askotarikoak)	1089	0,45	490,05
NATURAGUNEETAKO BAIMENAK	35	0,45	15,75
BASOBERRITZEAK	36	0,45	16,2
MENDIKO PISTAK IREKITZEA	15	0,45	6,75
MENDIKO PISTAK HOBETZEA	21	0,45	9,45
DONEJAKUE BIDEA	2	0,45	0,9
BESTE BATZUK	147	0,45	66,15
EHIZAKO DATU-BASEA (SALBUESPENEZKO BAIMENAK)			
Ehiza-espezieen gaineko albuespenezko baimenak	381	0,28	106,68
Txapelketak	7	0,28	1,96
ASKOTARIKOAK			
Salaketak jakinaraztea	638	0,07	44,66
Uztondo-erreketa	110	1	110
Neguko erreketak	257	0,33	84,81
Ehiza-baimenak (pool)	21386	0,25	5346,5
Orkatz/orein ehizako besokoak (pool)	6402	0,67	4289,34

Batez besteko gauzatze denborak, administrariak espediente bakoitzean erabili beharreko orduetan			
	ESPEDIENTE KOP. 2021ean	DENBORA OPTIMOA (ordu/esp.)	BEHAR DENBORA, GUZTIRA
Trafiko istripuak	40	0,25	10
Fakturak	377	0,42	158,34
NOFYR			
Foru agindua/Gobernuaren erabakia/BESTE BATZUK	29	0,33	9,57
Ehiza Atala	14	0,33	4,62
Basoak Kudeatzeko Atala	68	0,33	22,44
BESTE BATZUK			
Kontratazio atarian argitaratzea	6	3	18
EBAOn argitaratzea	1	2	2
Zerbitzu-katalogoko fitxak argitaratzea	31	0,67	20,77
Jendearentzako arreta	5000	0,17	850
Urteko estatistikak/0 fitxak	2	30	60
Sarrera erregistroa	7106	0,08	568,48
DENBORA, GUZTIRA			17.038,02
URTEKO ORDUAK LANGILE BAKOITZEKO			1.592,00
BEHAR DIREN ADMINISTRAZIO-LANGILEAK			10,70


2.2.3 Interes-taldeek ekarpenak

Nafarroako Gobernuak IZNko Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuak, batez beste, 7,1 puntu lortzen ditu interes-taldeetako batzuek eginiko ebaluazioan (12 erantzun izan dira). Zerbitzuarekin interakzioa izan ohi duten entitate eta erakundeak jotzen dira interes-taldetzat.

Zerbitzuaren jardun-eremu bakoitzean atzemaniko gogobetetasun-maila konparatzean, ikusten da ez dagoela alde handirik haien artean eta, **oro har, interes-taldeek gogobetarik diruditela ematen zaizkien zerbitzuekin**. Zehazki, balorazio onenak izan dituzte herri-basoak eta partikularrenak aprobetxatzeko eta hobetzeko planek, batetik, eta basoetako izurrien jarraipen eta kontrolak, bestetik. Aitzitik, apur bat txikiagoa izan da ingurumen-hezkuntza eta -boluntariotzako programak prestatu eta gauzatzeak lortutako puntuazioa, gainerako jardueren aldean.

Esan behar da ezen inkestaturiko interes-taldeek ez dutela interakzioa izaten Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuko bulego guztiekin, eta horregatik handia dela ED/EE erantzunen ehunekoa, ez baitute ezagutzen Zerbitzuak zer funtzionamendu duen gainerako jardun-eremuetan.

GOGOBETETASUN-MAILA BASOEN ETA EHIZAREN ZERBITZUAREN JARDUN-EREMUEKIN



Alderdi positiboak	•Langileak prest egotea gai teknikoei erantzuteko. •Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko langileen ezagutza teknikoa (ehiza kanpo geratzen da, kanpo-pertzepzio horri dagokionez). •Adikortasuna, komunikazioa eta lankidetzat hainbat ingurumen gestiotan: beste departamentu batzuei laguntzea, larrialdiei erantzutea...
Hobetu beharreko alderdiak	•Arinago eta azkarrago izapidetzea txostenak, espedienteak, ebazpenak, etab. •Ezagutza finkatzea zenbait ataletan, hala nola Ehiza Atalean, non langileen txandakatzeko handia izan baita. •Lankidetzan aritzea kudeaketa arloan finkaturik dauden erakundeekin, jarduera batzuei kanpora ateratzeko, hala nola ehiza. •Bete beharreko eginkizunen plangintza: aginduak, deialdiak, baimenak, azterketak... prestatzea. Ez dira oso aurretiaz planifikatzen.
Interes-taldeak identifikatutako erroak	•Baliabide gehiago suteen kudeaketan eta suteen plangintzan, prebentzioan eta kontrolean. •Ahalmen handiagoa basoen kudeaketa eta mendien eta baso eremuen ustiapena izapidetzeko. •Epe luzeko politika estrategikoak definitzea (kontinuistak, legegintzaldietan aldaketak gertatu arren), erantzuna emateko ingurune naturalaren ziklo eta epeei. •Zerbitzuaren digitalizazioa, barne-kudeaketarako ez ezik, kanpoko erakundeek dokumentazioa aurkeztu eta emateko ere. •Bultzatzea eta sustatzea basogintzaren eta ehizaren arloko edukiei buruzko hezkuntza, sentsibilizazioa eta dibulgazioa. •Zuzendaritza nagusiak gehiagotan banatzea, hainbesteko saturazioa izan ez dezaten zuzendaritzako postuek.
Interes-taldearen proposamenak	•Nafarroako Ingurumen Kontseilua birpentsatzea, gizarte mailatik kanpoko parte-hartze egitura "kualifikatuak" izan ditzan. •Ingurumen gaietan aholkularitza espezializatua ematea Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuei. •Eginkizunen kudeaketa partekatua eta izapideak kanpoko erakundeekin egitea Ehiza Atalean. •Baso-kudeaketa handiagoa: baso aprobetxamendua sustatzea (baso industria, biomasa, artzaintza, zura...). •Zerbitzuak egiten dituen deialdietako dirulaguntzen eta laguntzen zenbatekoa handitzea. •Tokiko ekonomiaren garapena: basogintzaren eta ehizaren arloko ekonomia-jarduera sustatzea, batez ere gazteei begira. •Basogintzaren eta ehizaren arloko edukiei buruzko hezkuntza eta dibulgazioa. •Zenbait izapidetan, Zerbitzua oso garantista da, eta horrek moteldu eta luzatu egiten du izapideen iraupena: izapide sinplifikatuak ezartzea, edo erantzukizunpeko adierazpenen bidezkoak.

2.3 BIODIBERTSITATEAREN ETA ARRANTZA KUDEAKETAREN ZERBITZUA

2.3.1 Zerbitzuaren egoera orokorra

Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzua: Eginkizunak

Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzua osatzen duten atalek eginkizun hauek betetzen dituzte (255/2023 FD):

- NATURAGUNEEN ETA ESPEZIE BABESTUEN ATALA
 - Nafarroako Naturaguneen Sarea kudeatzea, eta, bereziki, Natura 2000 Sarea.
 - Naturagune deklaratzeko proposamenak eta naturaguneak aldatzeko proposamenak egitea, bai eta haiek planifikatzeko tresnak prestatu eta berrikustea ere, Natura 2000 Sareko lekuak barne.
 - Nafarroako Gobernuko edo beste administrazio batzuetako administrazio unitateek aipatu planak betetzen dituztela begiratzea, neurriak aplikatzeko eta arauak eta jarraibideak betetzeko arduradunak direnean, bakoitzaren eskumenen arabera.
 - Foru Administrazioak kudeatu beharreko naturagune babestuak administratzea, alde batera utzi gabe kudeaketa horretan beste administrazio unitate batzuek parte hartzea, bakoitzaren eskumenen arabera. Nafarroako Baso Ondareko lurretan dauden naturagune babestuen kasuan, behar den prozedura ezarriko da Basoen eta Ehiza Kudeaketarako Zerbitzuarekin batera, egoki kudeatzeko.
 - Naturaguneen kudeaketa arautuko duten kontserbazio irizpideak ezartzea, eta bermatzea guneen kudeatzaileek ere hartzen dituztela aintzat irizpide horiek.
 - Azpiegitura berdea garatzea, konektagarritasun ekologikoa hobetuz.
 - Basaflorako eta basafaunako espezieen populazioei eta habitat naturalei buruzko azterlanak, zentsuak eta, oro har, jarraipena egitea, eta dagozkien datu-baseak –kartografikoak zein alfanumerikoak– sortu, mantendu eta ustiatzea.
 - Espezie mehatxatuak eta kontserbazio egoera txarrean dauden habitat naturalak babestu eta leheneratzeko behar diren planak egitea, eta ezartzen diren neurriak betetzen direla bermatzea.
 - Espezie exotikoen gaineko prebentzio eta kontrolerako planak prestatzea, ezartzen diren neurriak betetzen direla bermatzea, eta herritarrek sentsibilizatzea espezie horiek sortzen dituzten arazoez.
 - Planak berrikustea, klima-aldaketak etorkizunean izanen dituen inpaktuak kontuan hartuz, eta horien egokitzapena. Horretarako identifikatuko dira bereziki kalteberak diren espezie eta habitatak, helburuak, ekintzak eta aurreratze eta betetze adierazleak, bai eta konektagarritasun planak beste espezie babestu batzuekin.
 - Habitatak eta espezie basatiak babesteko nekazaritza eta ingurumen arloko laguntzak diseinatzea, horien kudeaketaren ardura duten unitateekin batera.

- Habitatak berreskuratzeko, leheneratzeko edo mantentzeko neurriak gauzatzea, bai eta espezie babestuekiko bizikidetzan lagundu dezaketen jarduketak ere.
- Naturaguneetako erabilerei eta jardueri buruzko informazioa ematea, nahitaezkoa dena naturagune babestuetan, eta aukerakoa Natura 2000 Sareko lekuetan.
- Naturaguneetan erabilerak mugatzearen ondorioz bidezkoak diren kalte-ordainak izapidetzea, bai eta, Ingurumenaren Araubide Juridikoaren Atalarekin koordinaturik, espezie basatiek sortutako kalteen ondoriozkoak ere.
- Basafauna eta basafiorako espezieak ukitu ditzaketen jardueretan, nahitaezko txostenak eta baimenak ematea eta jarduera horien jarraipena egitea, eta Nafarroan animalia basatiak harrapatzeko bitarteko eta metodoak kontrolatzea.
- Foru Administrazioak dituen basafauna sendatzeko zentroak kudeatzea.
- Parke zoologikoetan dagoen basafauna babesteari buruzko eskumenak erabiltzea. Martxoaren 1eko 108/2004 Foru Dekretuan ezarri ziren aipatu eskumenak.
- Ex-situ eta germoplasma-bankuetan dagoen material genetikoa kontrolatzea.
- Txostenak egitea Estatuko Administrazio Orokorrarentzat, eta parte hartzea naturaguneen, habitaten eta espezie basatien arloan dauden batzorde eta lantalde teknikoetan.
- ARRANTZA KUDEAKETARAKO ATALA
 - Aholkularitza eta laguntza ematea ibaiak leheneratzeari buruz.
 - Txostenak ematea ibai-ekosistemei buruz.
 - Txostenak ematea konfederazio hidrografikoek eskatzen dituzten espedientei buruz, obren inguruan eta ibaietako biodibertsitatea leheneratzearen eta mantentzearen inguruan.
 - Txostenak ematea erretanak, isurbideak, idoiak eta horrelakoak garbitzeari buruz, horiek jatorriz naturalak zein artifizialak izan.
 - Azterlanak eta jarduketak egitea ibaietako biodibertsitateari buruz, bereziki honako hauei dagokienez: Natura 2000 Sareko ibai-inguruneko lekuak, naturagune babestuak, eta ibai-inguruneko espezie mehatxatuak leheneratzeko planak eta kontserbatzeko planak.
 - Proposamenak egitea habitatak eta ibai-espezieak leheneratzeko obretarako, bereziki Natura 2000ko lekuetan.
 - Neurriak definitzea ibai-inguruneko espezie babestuak leheneratzeko planetarako.
 - Arrantzaren plangintza integrala Nafarroan.
 - Arrain-faunaren populazioen kudeaketa eta plangintza jasangarria, populazio sedentarioak zein migratzaileak izan.
 - Ibai-inguruneko espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatu eta desagerrarazteko neurriak aplikatzea.
 - Arrantza antolatzeko planak prestatu eta aplikatzea.
 - Arrantza kudeatzeko aholkularitza teknikoa.
 - Proposamenak prestatzea arrantza-debekualdiei buruzko xedapenentarako.
 - Arrantza-lizentziak eta arloko administrazio-baimenak kudeatzea.

- Foru Administrazioaren titulartasuneko arrain-haztegiak kontrolatzea, bai eta arrain-espezieen birpopulatzeak ere, eta horien jarraipena egitea.
- INGURUMEN EBALUAZIORAKO ATALA
 - Indarreko legedian jasotako plan eta programen gaineko ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunt eta sinplifikatuko prozedurak izapidetzea eta haiei buruzko txostenak egitea.
 - Proiektuen gaineko ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunt eta sinplifikatuko espedienteak izapidetzea eta haiei buruzko txostenak egitea, ingurumenaren arloan indarrean dagoen legediaren arabera.
 - Txostenak egitea, administrazio publiko ukitu gisa, ingurumen-ebaluazio estrategikoko eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioko prozeduretan, ingurumen organoa Estatua edo autonomia erkidego mugakide bat denean.
 - Ingurumen ukipenen ebaluazio espedienteak izapidetzea eta haien gaineko txostenak egitea, Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.
 - Dirulaguntzen eta laguntzen espedienteak izapidetzea ingurumen-inpaktua prebenitzeko eta zuzentzeko inbertsioetarako.
 - Txostenak egitea espedienteen ingurumen-izapidetzeari buruzko kontsultetarako (partikularrak, udalak, Parlamentua, Arartekoa, ministerioa eta abar).
 - Jarraibideak prestatzea ingurumen-ebaluazioa behar duen jarduera mota bakoitza ezartzeko, indarreko legediarekin bat.
 - Aholku ematea eta ebaztea udal, profesional eta partikularrek honako hauei buruz egiten dituzten kontsulten gainean: batetik, ingurumen-azterketa estrategikoen edo ingurumen-inpaktuaren azterketen irispideari buruz, eta, bestetik, ingurumen-ebaluazioaren arloan indarrean dagoen legediaren mendeko plan eta proiektuak izapidetzean eskatzen diren ingurumen baldintzei buruz.
 - Arlo honetan indarrean dagoen legediaren arabera ingurumen-ebaluazioa behar duten plan, programa eta proiektuen jarraipena egitea, legediak ingurumen organoari esleitzen dion bezala. Neurri zuzentzaileen eraginkortasunaren jarraipena egitea. Ingurumen organoari laguntzea hari dagozkion jarraipen lanetan.
 - Ingurumen organoarekin lankidetzan aritzea ingurumen jarraipenerako batzordeetan, proiektu handien kasuan edo Nafarroako Foru Komunitatean garatzen diren proiektu estrategikoen kasuan.
 - Hitzarmenak prestatu, proposatu eta koordinatzea ingurune naturalean ondorioak dituzten jarduerak zuzentzeko.
 - Konektagarritasun ekologikoa eta azpiegitura berdearen garapena sartzeko arloko indarreko legediaren mende dauden ingurumen-ebaluazioko prozeduretan.

Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzua: Egitura eta plantilla

Egiturari oro har begiraturik, hurrengo taulan ageri dira, mailaren arabera, zer kontratu mota dauden Zerbitzuko antolaketa-unitate bakoitzean.

BIODIBERTSITATEAREN ETA ARRANTZA KUDEAKETAREN ZERBITZUA											
KONTRATAZIO MAILA	A		B		C		D				
KONTRATU MOTA	F	T	F	T	F	T	F	T	F	T	GUZTIRA
Zuzendaria	1								1	0	1
Zuzendaritzako administrazio-langileak						1			0	1	1
Zuzendariaren mendeko teknikariak	1	3							1	3	4
Naturaguneen eta Espezie Babestuen Atala	1	3		1	1	2		1	2	7	9
Ingurumen Ebaluaziorako Atala	3	4				2			3	6	9
Arrantza Kudeaketarako Atala	3	2		1	1	1	3	4	7	8	15
GUZTIRA, ZERBITZUAN	9	12	0	2	2	6	3	5	14	25	39

Zerbitzuaren **behin-behinekotasun maila % 64,10ekoa da** (aldi baterako lanpostuak / lanpostu guztiak). Atal batzuetan biltzen da batik bat, hala nola Naturaguneen eta Espezie Babestuen Atalean (% 77,78ko ratioa) eta, hurren, Ingurumen Ebaluaziorako Atalean (% 66,67) eta Ibai Ingurunearen Atalean (% 53,33).

Egitura honi gehitu behar zaizkio GAN-NIK enpresa publikoak jartzen dituen baliabide gehigarriak, kanpoko laguntza tekniko gisa. Izan ere, berak hartzen ditu bere gain, askotan, saturazio handia dela-eta Zerbitzuak erantzun ezin dien hainbat lan.

Behin-behinekotasun maila, barneko ikuspuntutik, arretagune bat da, honako hauek direla-eta: **jardueraren ezagutzaren aldetik dakartzan arazoak, zerbitzuaren zuzeneko jarduna, eta sortzen dituen zeharkako ondorioak espediente partekatuen izapidetzean eta beste zerbitzu batzuetan.**

2.3.2 Analisia barneko pertzepziotik

Atal honetan, Zerbitzuaren barneko pertzepziotik aztertu nahi da **bertan egiten diren jarduera eta zerbitzuen jarduna. Helburua da langile gehiagoren beharrak kalkulatzeko atal bakoitzerako**, behar den moduan eta epean gauza ditzaten legediak eta, orobat, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren ekimenak esleitu dizkieten eginkizunak.

Aipatu behar da ezen analisi hori Zerbitzuko teknikariek eta zuzendaritzako kideek prestatu zutela 2022. urtean, 2021eko datuak erabiliz, eta, nahiz eta berriki IZNren egituraren aldaketaren bat izan den, horrek ez duela ukitu izan Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzua. Hori dela-eta, emaitzak baliozkotzat jotzen dira plan zuzentzaile honetan.

ARRANTZA KUDEAKETARAKO ATALA

Lan-karga ebaluatzeko erreferentziazko datu gisa, egokitzen eman da kontuan hartzea langileek 2021. urtean izaniko dedikazioa, honako hauei loturik: Atalaren eskumenak, izapideturiako espedienteen zerrendako atzerapenak, egiteko dauden lanak eta aurreikusitako lan-karga gehigarria. Dena dela, lan-karga egokiago baloratzeko, profil batzuk bereizi dira: administrazio-

langileak, arrain-haztegiei atxikitako langileak eta Miluzeko zerbitzu orokorretako enplegatua, eta profil teknikoa.

Atalari atxikitako administrazio-langileek modua izan dute, oro har, dagoen administrazio lan-karga bere gain hartzeko. Alabaina, lan-goraldi puntualak izaten dira, arrantza-lizentzien eskaera gehiago egiten direla-eta, amuarrain-arrantzaren denboraldian: apirilean, maiatzean, ekainean eta uztailan. Halakoetan, laguntza puntuala eskatu behar zaie Zerbitzuko gainerako administrazio-langileei, eskaerei erantzun ahal izateko.

Arrain-haztegietako lanerako, ezagutza jakin batzuk izan behar dira arrainei eta haien ziklo, behar eta maneiuari buruz eta arazo eta gaixotasunei goiz antzemateari buruz eta; azken batean, izan behar dira lana behar den bermearekin egin ahal izateko oinarritzko ezagutzak. Maneiua egokia ez bada, daitekeena da espezie-aleak eta ekoizpenak galtzea eta hainbat urtetako lanari eragitea. **Gaur egun dauden langileek (guztiak gizonezkoak orain) esperientzia handia dute arlo horretan, baina behin-behinekotasuna oso handia da arrain-haztegietako langileen artean (% 50) eta gainerakoak erretiroa hartzekotan daude.** Arrain-haztegietako langileen lanpostuak zerbitzu orokorre atxikita daude, eta horien profilean ez da eskatzen arlo horretako ezagutza berariazkoak izan dezatela. Lanpostu hutsak, bajak eta erretiroak ez dira berehala betetzen, eta, ondorioz, ezinezkoa da arrain-haztegiak arduratzea gainerako langileen lanaldia handitu gabe. Halakoak bete eta gero, gainera, beharrezko prestakuntza ez duten langile batzuek egiten dituzte lanak.

Arrain-haztegiko lana asteko 7 egunekoa da, ezinbestean; hartara, dagoen langile kopurua txikia da eta ez da aski arrain-haztegi bakoitzean lan-txandak betetzeko asteburuetan, oporraldietan eta bajetan, halakoak daudenean. Miluzeko zerbitzu orokorretako langileek laguntza eman dute une jakin batzuetan arrain-haztegietan, behar handia zegoenean; hala ere, laguntza hori oso gutxi izan da, langile horiek libre baitituzte asteburuak eta arrain-haztegiko lana Miluzeko berezko lanarekin bateratu baitute.

Horrez gain, esan behar da ezen, nahiz eta beharrezkotzat jotzen den langile bat gehiagoren laguntza arrain-haztegiarako, ez dela hori kontuan hartu Atalean behar diren giza baliabideak proiektatzean, egokiago iritzi baitzaio langile hori laguntza tekniko baten bidez kontratatzeari, lanposturako behar diren betebeharrak beterik.

Ataleko teknikariek lan-karga handia dute gaur egun, hala Ibai Ingurunea Leheneratzeko Atalekoek nola Arrantza Kudeatzeko Bulegoak; hori dela-eta, espediente eta txosten batzuk atzerapenez eta epez kanpo egiten dira, eta beste zeregin batzuk egiteko gelditzen dira.

Oro har, Atalak ez du txostenik uzten egin gabe, baina, hala ere, gehiegizko lan-kargaren ondorioz, txosten bakoitzari ematen zaion dedikazioa ez da egokia (alde batera uzten dira in situ bisitak, analisi xeheagoak edo sustatzaileekiko bilerak) **eta erantzuteko epeak ez dira behar bezalakoak.** Eransten den analisisan ikus daitekeenez, Atalak izapideturiko espedienteen % 30 bakarrik ebazten dira hilabete bakoitzeko baino gutxiagoan, txosten, baimen eta salaketa-proposamenei dagokienez. Halaber, espedienteen % 75 ebazten dira 3 hilabete bakoitzeko baino gutxiagoan.

EXPEDIENTE MOTA	< = 1 HILABETE	>1 eta < = 3 HILABETE	>3 eta < = 6 HILABETE	6 HILABETE BAINO GEHIAGO	* BESTE BATZUK	GUZTIRA
Hirugarrenentzako txostenak egitea-(CORP)	61	129	38	4	11	243
Ibai ikuskapena	5	12	10	3	5	35
Hirugarrenentzako txostenak egitea (Arrantza)	2				1	3
Arrantza ikuskapena	52	22	6	4	1	85
Habitat ikuskapena				3		3
Arrantza txapelketetarako baimenak	1	2				3
Txapelketetako entrenamendurako baimena	1					1
Arrantza-espezieak maneiatzeko baimena	4	2				6
Arrain-laginketetarako baimena	1	2	1			4
Konfederazioentzako txostenak egitea	23	57	16	11	7	114
Zerbitzuko zuzendariaren baimen generikoa	5	7	2		2	16
GUZTIRA	155 % 30	233 % 45	73 % 14	25 % 5	27 % 5	513 % 100

Egoera hori apur bat kritikoagoa da **Leheneratze Atalean, han espedienteen % 23 bakarrik ebazten dira hilabeteen, eta % 73 ebazten dira 3 hilabeteen baino gutxiagoan**. Garrantzitsua da aipatzea **hilabetea dela konfederazioek espedienteak ebazteko ezarritako epea**. Horrenbestez, atal honen helburuak izan beharko luke hilabeteen ebaztea konfederazioek eskatzen dizkieten espediente guztiak, eta jasoriko espedienteen % 100 ebatzi beharko lituzke 3 hilabeteen baino gutxiagoan. Alabaina, helburu horiek ez dira bideragarriak egun erabilgarri dauden baliabideekin.

Ibai Leheneratze Atalak ez du bulegoburu bat, eta horrek gehiegizko eginkizun-karga dakar Ataleko buruarentzat, eragotzirik, hala, bestelako lanak aurrera eramatea zereginen plangintzarako eta jarduera berriak sustatzeko.

Aurreikusten da hurrengo urteetan lana handituko dela Next Generation/SEM funtsen kargura eginen diren obregatik, bai eta Europako funtsak jasotzen dituzten erakundeei egin beharreko txostenengatik ere; orobat, lana areagotuko da honako hauek direla-eta: arrantzari lotutako araudiaren aldaketak gauzatu beharra, Arrantza Kudeaketari buruzko Lege berriaren ondorioz; planen prestaketa (espeziei buruzko planak, oztopoei buruzko plan zuzentzailea, etab.), lehen aipatu araudia aplikatzeko; oinarri teknikoak eta plan proposamenak egitea arrain-espezieak leheneratzeko, bai eta beste batzuk ere, hala nola ibai-muskuiluak, Espezie Mehatxatuen Katalogoan baitaude, edo karramarro autoktonoa leheneratzeko plana berrikustea.

Laburbilduz, analitik ondorioztatzen da **Arrantza Kudeaketarako Atalak profil teknikoko 3 langile behar dituela**, esleituak dituen zeregin eta jarduera guztiak bere gain hartu eta gauzatzeko, behar den epearen barnean ez ezik, kalitate eta dedikazio onenekin ere (ikus hurrengo orrialdeko taula).

Honako koadro honetan ageri dira Ibai Ingurunearen Atalak, teknikariei dagokienez, kalkulaturako dedikazioak eta beharrak:

ZEREGINA	Egun egiten diren lanak		Egiteko edo aurreikusitako lanak		Beharrak, guztira	
	Dedikazioa (%)	Dedikazio orduak	Dedikazioa (%)	Dedikazio orduak	Dedikazioa (%)	Dedikazio orduak
Espedienteak ebaztea, ikuskapenak, txostenak, ibai ingurunearen gaineko jardueretarako baimenak	% 229	3.640	% 108	1.717	% 337	5.357
Ibai-ingurunea oneratzeko, leheneratzeko edo mantentzeko jarduketak	% 104	1.663	% 83	1.329	% 188	2.992
Kudeatzea ibai ingurunean jarduketak egiteko laguntzen deialdiak eta laguntzak ematea	% 19	298			% 19	298
Ibaien leheneratzearen arloko aholku eta laguntza ematea hala eskatzen duten udalerri, erakunde eta entitateei	% 22	350	% 12	185	% 34	535
Europako proiektuak, estrategiak eta planetan parte hartzea eta haien gaineko jarraipenerako lanak egitea	% 49	788	% 15	240	% 35	1.028
Arrain-haztegiak kudeatzea	% 41	651	% 7	108	% 48	759
Arrantzaren kudeaketa Nafarroan	% 54	857	% 35	556	% 89	1.413
Txostenak eta baimenak (laginketak, espezieen maneia, arrantzaren kudeaketa eta salaketak)	% 20	318			% 20	318
Azterlanak eta lan teknikoak uretako fauna babestuari buruz eta ibai-habitat naturalei buruz. Espezieen jarraipena egitea. Fauna exotikoa erreskatatzea eta desagerraraztea	% 62	991	% 58	918	% 120	1.909
GUZTIRA	600%	9.555	% 317	5.053	% 918	14.608
LANALDIA		1592		1592		1592
TEKNIKARIAK	Egungoak	6	Gehigarriak	3	Guztira	9

Azaldutako lan horrez gain, Arrantza Kudeaketarako Atalak enkargu bat egin dio GAN-NIK enpresa publikoari, laguntza tekniko gisa, egin ditzan arrain populazioaren kudeaketari eta ibai ingurunea leheneratzeko obrei loturiko lanak. **Lan horiek ez dira sartu aurreko analisian; hala bada, beharrezkoa da oraindik ere laguntza teknikoa, Atalera profil tekniko gehiago sarturik ere.** Enkargu horretan 4 pertsona ari dira lanean, profil teknikoa duten hiru lanaldi osoan (4.364 ordu), eta Goi-mailako Lanbide Heziketa duen langile bat (1.540 ordu).

NATURAGUNEEN ETA ESPEZIE BABESTUEN ATALA

Lan-karga ebaluatzeko erreferentziazko datu gisa, egokiagotzat eman da kontuan hartzea teknikariek 2021. urtean jarduera horietan izan duten dedikazioa, bat etorritik Atalaren eskumenekin eta Nafarroako eta estatuko araudiak nahiz Europako zuzentzauek ezarritako betebeharrekin. Era berean, beharko litzatekeen dedikazioa kalkulatu da, halako jarduerak behar bezala egiteko, epearen barnean eta behar adinako kalitatearekin, bai eta gaur egun, langile faltagatik, egin ezin direnei heltzeko ere.

Ez da aztertu jarduerok egiteko behar den administrazio-lana, uste delako Atalari atxikitako administrazio-langileekin behar den moduan egin daitekeela lan hori. Halaber, ez da analizatu, ez eta sartu ere, Bertizen lan egiten duen zerbitzu orokorretako langilearen jarduna.

Analisi honetan Ataleko teknikarien lana baizik ez da kontuan hartu, haien eginkizunen arabera. Hau da, ez da kontuan hartu GAN-NIK enpresako langileek egiten duten laguntza teknikoko lana, GAN-NIK eta INTIA enpresa publikoei eginiko enkarguen barnean.

Aintzat hartu dira azpijarduera bakoitza egiteko behar diren denbora minimoak. Askotan, batez besteko denborak kalkulatzeko zailak dira, erabiltzen diren orduak asko aldatzen direlako azpijarduera beraren barnean. Espedientei ez dagozkien zereginetan, baizik eta, legezko betebeharrak direla-eta, Atalak aztertu beharreko zeharkako lanak, are zailagoa da; izan ere, gehienetan, askoz denbora gehiago beharko litzateke halakoak egoki egiteko.

Azkenaldian, nabarmen gehitu dira eskaerak hainbat jardueraren inguruan, eta aurreikusten da hurrengo urteetan kudeaketa eta dedikazioa areagotu beharko direla horietako batzuetarako.

Teknikariak falta direla eta, ezin zaie behar bezala erantzun jarduera jakin batzuei, eta, ondorioz, **atzerapenak sortzen dira eskaerei erantzuteko garaian, eta ezin zaie heldu, orobat, Nafarroako eta estatuko araudiak nahiz Europako zuzentzarauek ezarritako betebeharrak**. Era berean, Atalak ez duenez behar den adina teknikari, gaur egun bulegoburuak eta atalburuak teknikariei dagozkien zereginak betetzen ari dira, beren karguen berezkoek gain.

Horrenbestez, kalkulatzeko **Atalean gutxienez 12 teknikari behar diela eta, hortaz, sartu beharko liratekeela naturaguneen kudeaketan gaituriko 4 langile eta espezieen kudeaketan gaiturik dagoen beste bat**. Kalkulu horretan ez dira sartu geodibertsitatearen arloan dauden kudeaketa beharrak, ez eta naturagune babestu guztien kudeaketa ere, biak ala biak Atalaren eskumenekoak izanik ere.

JARDUERA	NATURAGUNEAK		ESPEZIEAK	
	Behar den dedikazioa (orduak)	Egungo dedikazioa (orduak)	Behar den dedikazioa (orduak)	Egungo dedikazioa (orduak)
Txostenak eta baimenak naturaguneak, espezieak eta habitatak uki ditzaketen jardueren gainean	2.754	1.537	1.678	914
Naturaguneen kudeaketa	2.732	464	1.453	464
Espezieen eta habitaten jarraipena	1.261	4.874	350	3.350
Espezieen eta habitaten kontserbazioaren plangintza	163	833	70	328
Errekurtsoei eta salaketei buruzko txostenak	203	217	155	169
Nafarroako Natura 2000 Sarea eta azpiegitura berdea garatzea, eta espeziei eta habitatei buruzko txostenak, Europako zuzentzarauek bete beharrez	3.203	321	426	204
Estatu mailako koordinazioa naturagune eta espezieen arloan	195	102	195	102
Informazio publikoa eta gardentasuna	141	303	129	268
ORDUAK, GUZTIRA	10.651	8.651	4.456	5.800
ATALEKO TEKNIKARIAK	7	5	3	4
TEKNIKARI GEHIGARRIAK	4		1	

INGURUMEN EBALUAZIORAKO ATALA

Aurreko urteetakoen aldean, espedienteak batik bat gehitu dira proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren arloan, eta horren arrazoi nagusia da **esponentzialki gehitu direla izapidetzen ari diren energia berriztagarrien proiektuak (% 425etik gorako gehikuntza)**. Espediente horiexek dira, hain zuzen, lan eta dedikazio handienetakoak atal honetan izapidetzen diren guztien artean. Gainera, nabarmendu behar da **badirela lan batzuk langile faltagatik heldu ezin izan zaienak**.

Dauden giza baliabideek lortu dute espediente gehikuntza horri loturiko **lan-karga igoera beren gain hartzea, administrazio-lanari dagokionez, baina hori, ordea, ezinezkoa izan da profil teknikoari loturikoan**, eta atzerapenak izan dira, beraz, espedienteen izapidetzean. Ez da nahi inondik inora atzerapen horiek gertatzea, Nafarroako ekonomia-jardueran oso eragin positiboak dituzten jardura batzuk ukitzen dituztelako. Gainera, zenbait kasutan, horien ondorioz ondare arloko erreklamazioak egiten ahal zaizkio Administrazioari; esaterako, energia berritzagarrien proiektuen kasuan eta ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuak ezarritako “mugarrien” kasuan (horren bidez ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onesten dira).

Atalak ez du espedienterik uzten erantzun gabe; **alabaina, egungo gehiegizko lan-karga dela-eta, ez da posible betetzea erantzuteko lege ezarriak dauden epeak, ez eta, zenbaitetan, nahi den kalitate eta dedikazioarekin erantzutea ere**: landa-bisita gehiago egitea, sustatzaileekin bilerak egitea, etab.

IEEaren eta Ingurumen Jarraipenaren Bulegoari gehitu egin zaio kudeatu behar dituen espediente eta obren kopurua, langile kopurua gehitu gabe. Gaur egun, badira obra handi batzuk Nafarroan (AHT, haize-parkeak, eguzki parkeak, Nafarroako ubidea, lurzatiak biltzeko obrak, errepideak), etengabeko jarraipena behar dutenak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren betebeharrak behar den epean eta moduan bete ahal izateko, **Ingurumen Ebaluaziorako Atalak profil teknikoko 18,10 langileren jarduna behar du** Atalak kudeatzen dituen espedienteak izapidetzeko, erantsita datorren koadroaren arabera. Gaur egun, Ataleko giza baliabide propioak bakarrik dira profil teknikoko 4 langile, 2 bulegoburu eta atalburu bat (guztira, 7 teknikari).

Ezin denez dauden langileekin lan-kargari erantzun, **Ingurumen Ebaluaziorako Atalak badu laguntza tekniko bat, txosten teknikoak egiten dituen**. Gero, txosten horiek funtzionarioek ebaluatzen dituzte, behar diren administrazio erabakiak hartzeko, beren eginkizunak batez. Hala eta guztiz ere, uste da ezen, Atalak ongi funtzionatzeko eta disfuntzionaltasunik ez gertatzeko, **gutxi gorabehera lan teknikoaren 2/3 Administrazioaren baliabide propioek egin beharko lituzketela zuzenean**. Hartara, aintzat harturik arestian azaldutako beharrak eta lan-kargaren gehikuntza, **funtzionarioei profil teknikoko 4,10 langile berri gehitu behako litzaizkioke**.

Hona hemen Atalean behar diren profil teknikoko langile gehigarriak kalkulatzeko erabilitako analisia:

Jarduerak	Espediente kop.	Gauzatze denborak (orduak)	Gauzatze denborak, guztira
Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta (1. fasea)	25	30	750
Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta (2. fasea)	100	65	6.500
Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua	20	45	900
Ingurumen-ukipenatarako baimenak + Ingurumen-ukipenen ebaluazioa	136	25	3.400
Ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta	13	125	1.625
Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua	68	16	1.088
Hirugarrenentzako ingurumen-txostenak	124	7	868
Txostenak eta kontsultak ingurune naturalean egitekoak diren obra plan eta proiektuen ingurumen-ukipenei buruz (barnean sartzen dira IIE arruntaren izapideetan ukitutako administrazio gisa eginiko kontsultak, eta Parlamentuaren, Arartekoaren eta abarren kontsultak)	340	5	1.700
Obren ingurumen jarraipena (eginiko ikuskapen kop.)	150	45	6.750
Salaketa-proposamenak	0	14	0
Abifauna ukitzen duten linea elektrikoak zuzentzea	170	20	3.400
Haize-parkeetako gorabeheren hileroko kontrolak	400	2	800
Neurri zuzentzaileen eraginkortasunaren jarraipena.	50	10	500
Legegintza garapena	2	35	70
Linea elektrikoaren dirulaguntzarako deialdia	1	300	300
Nafarroako, ministerioko eta autonomia-erkidegoetako lantalde propioak, eta lotutako lan teknikoak: Garraioko Azpiegituren Zatikatzeta, Energia Berriztargarriak, Azpiegitura Berdea, Linea Elektrikoak, etab.	6	30	180
TEKNIKARI-ORDUAK, GUZTIRA			28.831
LANALDIA			1.592
BEHAR DIREN TEKNIKARIAK			18,1
LAGUNTZA TEKNIKOKO TEKNIKARIAK			7,0
ATALEKO TEKNIKARIAK			11,1
LANGILE BERRIAK			4,1


2.3.3 Interes-taldeek ekarpenak

Nafarroako Gobernuak IZNko Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzuak, **batez beste, 6,6 puntu** lortzen ditu interes-taldeetako batzuek eginiko ebaluazioan (15 erantzun izan dira). Zerbitzuarekin interakzioa izan ohi duten entitate eta erakundeak jotzen dira interes-taldetzat.

Jardun-eremuak banaka aztertutik, nabarmendu behar da batek ere ez duela eskuratzen 5 puntu baino gutxiago; hartara, **esan daiteke erabiltzaileen gogobetetasun-maila ertain-altua da**. Inkestaturiko interes-taldeek gehien baloraturiko jarduerak dira ibaiak leheneratzeko eta iragangarri bihurtzeko egin diren jarduketak eta ingurumen arloko informazioaren eskaerei emaniko erantzunak. Aitzitik, puntu gutxien lorturikoak dira abifauna kontserbatzeko nekazaritza eta ingurumeneko laguntzen aplikazioa, batetik, eta basafauna eta basafiorako espezieak ukitu ditzaketan jardueretarako baimenen izapidetzea, bestetik.

Eremu batetik bestera, nabarmen aldatzen da ED/EE erantzunen ehunekoa, inkestaturiko interes-taldeek ez baitute interakzioa izaten Zerbitzuko bulego edo gai-arlo guztietan.

GOGOBETETASUN-MAILA BIODIBERTSITATEAREN ZERBITZUAREN JARDUN-EREMUEKIN



Alderdi positiboak	•Langileak prest egotea gai teknikoei erantzuteko. •Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko langileen ezagutza teknikoak. •Adikortasuna, komunikazioa eta lankidetzaren hainbat ingurumen gestiotan: beste departamentu batzuei laguntzea, larrialdiei erantzutea...
Hobetu beharreko alderdiak	•Arinago eta azkarrago izapidetzea txostenak, espedienteak, ebazpenak, etab. •Kanpoko lankidetzaren areagotzea, hala Nafarroako Gobernutik kanpoko elkarte eta erakundeekin nola NGko beste zuzendaritza nagusi batzuekin. •Kanpo-komunikazioa hobetzea, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ematen dituen zerbitzuak ezagutarazteko.
Interes-taldeak identifikatutakoak	•Biodibertsitatea segurtatu eta babestea kontserbatuz espezie exotikoak, habitatak, abifauna... •Ura ingurumen arloko erronka gisa eta horri lotutako kudeaketa aktiboagoa; horrek berariazko zerbitzu bat beharko luke agian. •Parte-hartze handiagoa eta eragileen parte-hartzea planak eta programak argitara eman aurretik, daitekeena bada eragin-taldearen artean arbuioa sortzea. •Biodibertsitatea babestea ekonomia-jarduera babestearekin batera.
Interes-taldearen proposamenak	•Nafarroako Ingurumen Kontseilua birpentsatzea, gizarte mailatik kanpoko parte-hartze egitura "kualifikatuak" izan ditzan. •Gaur egun, Biodibertsitatearen Zerbitzuko Ingurumen Eraginaren Atalak koordinatzen/gainbegiratzen ditu ondare historiko eta/edo arkeologikoaren gaineko ukipenei loturiko zenbait zerbitzu, eta horiek NGko Ondare Zerbitzuak kudea litzake zuzenean. •Bikoiztasuna ibai-ibilguetan, han eskumena Estatuarena baita. •Laguntza eta sostengua neurriak ezartzeko: Nola egin liteke?

2.4 EKONOMIA ZIRKULARRAREN ETA BERRIKUNTZAREN ZERBITZUA

2.4.1 Zerbitzuaren egoera orokorra

Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzua: Eginkizunak

Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzua osatzen duten atalek eginkizun hauek betetzen dituzte (255/2023 FD):

- KUTSADURAREN AURKAKO PREBENTZIO ATALA
 - Ingurumen-baimen integratua eta ingurumen-baimen bateratua emateko espedientei buruzko txostenak egitea eta espediente horiek kontrolatzea eta izapidetzea, Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz, barnean dela Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legeak ezarritako neurri eta berme finantzarioak eskatzea.
 - Toki-erakundeei aholkularitza teknikoa ematea, ingurumenean eragina duten jardueren gaineko araudiaz.
 - Ingurumen-txostenak egitea ingurumen-ebaluazio estrategikoko plan eta programen administrazio prozeduretan, bai eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostenak ere, horiek guztiak kutsadura murriztearen esparruan.
 - Jarraibideak, irizpideak eta arau proposamenak ematea, aipaturiko 17/2020 Foru Legean eta aplikatu beharreko beste arau batzuetan jasotzen diren jardueri buruz.
 - Jabari publiko hidraulikora egiten diren isurketen gaineko ingurumen-txostenak egitea, Uren Legean eta dagokion foru araudian xedatutakoari jarraikiz.
 - Zaratari buruzko mapa estrategikoak eta zarataren aurkako ekintza planak egitea Iruñerriko hiri-multzoaren eremuan, Ingurunekeo zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2002ko ekainaren 25eko 2002/49/EE Zuzentzaraia aplikatuz.
- INGURUMEN IKUSKAPENEN ATALA
 - Ingurumen ikuskapenerako planak eta programak prestatzea eta gauzatzea, ingurumen-baimen integratua eta ingurumen-baimen bateratua behar duten industria jardueri dagokienez.
 - Industria jarduerak kontrolatu eta ikuskatzea honako hauei dagokienez: atmosferarako emisioak, efluente likidoen isurketak, hondakinen sorrera eta kudeaketa, eta zarata eta bibrazioen emisioa.
 - Ingurumen ikuskapeneko lanetarako egiaztapena duten kontrol organoak kontrolatu eta zaintzea.
 - Ingurumen ikuskapenaren arloan eskumenak dituzten agintariekin koordinatzea.
 - Igorpen eta Jatorri Kutsagarrien Nafarroako Erregistroa (PRTR) kudeatzea eta mantentzea, Estatuko Administrazioarekin koordinaturik.
 - Ingurumen arloko kudeaketa eta auditoriarako Europar Batasuneko sistemaren (EMAS) erregistroa mantentzea.
 - Europar Batasuneko etiketa ekologikoa erabiltzeko baimentzen duen erakunde eskuduna izatea Nafarroan, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren

2009ko azaroaren 25eko 66/2010 (EE) Erregelamenduak eta aplikatu beharreko gainerako arauak esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak betetzea.

- **HONDAKINEN ATALA**

- Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoa kudeatzea.
- Nafarroako Hondakinen Plana prestatzea, berrikustea eta haren jarraipena egitea.
- Nafarroako Hondakinen Funtza kudeatzea, bai eta hondakinen arloko beste funts batzuk ere.
- Txostenak egitea eta espedienteak izapidetzea, eta haien jarraipena egitea, hondakin-sortzailearen erantzukizun zabalduko sistemen baimen edo komunikazioari dagokionez, bai eta haietako bakoitzarekin sinatzen diren hitzarmenei dagokienez ere.
- Txostenak egitea hondakinak sortzeko eta kudeatzeko baimena emateko espedienteen gainean, eta espediente horiek izapidetzea.
- Prebentzioko eta aplikatutako ontzien ekodiseinuko enpresa-planen emaitzak berrikustea, bai eta hondakin arriskutsuak minimizatzeko planen emaitzak ere.
- Hondakinak garraiatzeko espedienteen gaineko txostenak egitea eta espediente horiek kontrolatu eta izapidetzea.
- Nafarroako Hondakinen Sortzaileen eta Kudeatzaileen Erregistroa kontrolatu eta mantentzea, eta haren ingurumen jarraipena egitea.
- Lurzorua kutsatzen ahal dituzten jardueren kontrola eta jarraipena egitea.
- Lur kutsatuen adierazpena eta lur horiek ingurumenaren aldetik leheneratzeko proiektuen onespina proposatzea.
- Lur kutsatuak leheneratzeko proiektuak abian jartzea.
- Nafarroan Ekonomia Zirkularra garatzeko Agenda prestatzea, berrikustea eta haren jarraipena egitea.
- Nafarroako produktu eta zerbitzuen karbono-aztarnaren erregistroa kudeatzea, Ekonomia Zirkularren Agendarekin loturik, eta Klima-alaketari buruzko Foru Legean ezarritako zehaztapenei jarraikiz.
- Nafarroan ekonomia zirkularra bultzatzeko dibulgazio eta sentsibilizazio lana egitea.

- **BERRIKUNTZAREN ETA EUROPAKO PROIEKTUEN ATALA**

- Lehentasuneko ildoak eta proiektuetarako aukerak identifikatzea, zuzendaritza nagusiari dagozkion gaietan.
- Proposamenak definitu eta prestatzea eta proiektuak dinamizatzea zuzendaritza nagusiaren arlo estrategikoetan baliabideak bereganatzeko.
- Baliabide publikoak kudeatzea zuzendaritza nagusiak sustatutako proiektuen finantzaketarako.
- Zuzendaritza nagusia eta hari atxikitako entitate publikoak partaide dituzten Europako proiektuen jarraipena eta kontrola egitea.
- Beste departamentu batzuekin eta zentro teknologiko eta enpresekin koordinatzea, Europako proiektuetan parte hartzea sustatzeko.
- Zuzendaritza nagusiaren intereseko eta jardun eremuko arloetan Espainian eta nazioartean dauden sareetan parte hartzea eta haien jarraipena egitea.

- Ingurumen arloko I+G+b sustatzea.
- Europako seihilekoen jarraipena egitea, parte hartuz zuzendaritza nagusiaren intereseko gaitan ministerioei laguntzeko eratzten diren autonomia erkidegoen batzordeetan.
- Ingurumen arloko diagnostikoetan, auditoretzetan eta neurrietan laguntzea, tokiko jasangarritasuna hobetzeko.
- Laguntza ematea Agenda 21 Tokiko Jasangarritasunerako Ekintza Planak eta Klimaren eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Planak (PACES) prestatu eta garatzeko.
- Jasangarritasun neurriak proposatzea departamentuaren instalazio, ekipamendu eta ekintzetarako, halako neurrien erreferente rola indartzeko gizartearen aurrean.

Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzua: Egitura eta plantilla

Egituraren ikuspuntu orokorretik, hurrengo tauletan zerbitzuko kontratazio mailai eta lanpostu motei loturiko ezaugarriak azaltzen dira.

EKONOMIA ZIRKULARRAREN ETA BERRIKUNTZAREN ZERBITZUA											
KONTRATAZIO MAILA	A		B		C		D				
KONTRATU MOTA	F	T	F	T	F	T	F	T	F	T	GUZTIRA
Zuzendaria	1								1	0	1
Administrazio Laguntzako Bulegoa					4	2			4	2	6
Kutsaduraren aurkako Prebentzio Atala	2		1		1				4	0	4
Hondakinen Atala	2	4	1	1					3	5	8
Ingurumen Ikuskapenen Atala	3	2							3	2	5
Berrikuntzaren eta Europako Proiektuen Atala	2		1	3					3	3*	6
GUZTIRA, ZERBITZUAN	10	6	3	4	5	2	0	0	18	12	30

*Pertsona horietako bat proiektu jakin baterako dago kontratatuturik, eta, beraz, proiektua bukatzean, 2025eko abenduan, atal horretan 4 lanpostu egon da.

Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren behin-behinekotasun maila % 40,0koa da (aldi baterako lanpostuak / lanpostu guztiak). Atal batzuetan biltzen da batik bat, hala nola Hondakinen Atalean, behin-behineko lanpostuak % 62,5 baitira.

Egitura honi gehitu behar zaizkio GAN-NIK enpresa publikoak jartzen dituen baliabide gehigarriak, kanpoko laguntza tekniko gisa. Izan ere, berak hartzen ditu bere gain, askotan, saturazio handia dela-eta Zerbitzuak erantzun ezin dien hainbat lan.

Barneko ikuspuntutik, onartu zen behin-behinekotasun maila handia zela zerbitzuen arazo larrietako bat, horren ondorioz, ateratzen den pertsonaren ezagutza galtzen baita, eta sartzen denari prestakuntza eman behar baitzaio. Horrek zuzeneko eta zeharkako arazo handiak dakartzala berekin, esleituriko eskumenak gauzatzeari begira.

2.4.2 Analisia barneko pertzepziotik

Atal honetan, Zerbitzuaren **barneko pertzepzioetik azertu** nahi da bertan egiten diren jarduerak eta zerbitzuen jarduna. Helburua da langile gehiagoren beharrak kalkulatzeko atal bakoitzerako, behar den moduan eta epean gauza ditzaten legediak eta, orobat, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren ekimenak esleitu dizkieten eginkizunak.

Aipatu behar da ezen analisi hori Zerbitzuko teknikariek eta zuzendaritzako kideek prestatu zutela 2022. urtean, 2021eko datuak erabiliz. Egun, Zerbitzua bitan banaturik dago (Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzua eta Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoaren Zerbitzua). Bereizi dira egungo zerbitzuaren eginkizunei loturiko analisiak, eta jatorrizko kontsultaren emaitzak mantendu dira, gai horiei dagokienez.

KUTSADURAREN AURKAKO PREBENTZIO ATALA

Ondoko taulan jasotako informazioaren arabera, non adierazten baitira zer jarduerak ez dira bete urtebeteko epean (2021), kalkulatu da Atalak **profil teknikoko langile bat** behar duela, egungo teknikarien lan-karga arindu dadin eta, horrela, prestakuntza egokia jasotzeko aukera izan dezan.

Gainera, aurreikusten da hurrengo urteetan gora egingen dutela industriako eta abeltzaintzako jarduerak ingurumen eskakizunetara egokitzeari loturiko adierazleek, ingurumen-baimen bateratuak (IBB) behar dituzten jarduerak gehitzearen ondorioz; hala bada, administrazio-jarduerak handiagoa izanen da, eta **profil administratiboko langile bat sartu beharko da Zerbitzuan**.

BETE EZ DIREN JARDUERAK	ADIERAZLEA			EGITEKO DAGOENERAKO BALIABIDE GEHIGARRIAK (ORDUAK)		
	AURREIKUSIA	BENETAKOA	EGITEKO	TEKNIKARIA	ADMIN.	GAN-NIK
01.01.02 Ingurumen-baimen integratuko espediente ebatziak	15	12	3	90	12	90
01.01.06 Ingurumen-baimen integratua berrikusteko espediente ebatziak	90	63	27	702	81	702
01.01.07 Simaurrak kudeatzeko planak onartzeko espedienteak	220	82	138	552	138	552
Ingurumen-baimen bateratua emateko espediente ebatziak						
Ingurumen-baimen bateratua irekitzeko espediente ebatziak						
Ingurumen-baimen bateratua aldatzeko irizpenen espediente ebatziak						
Ingurumen-baimen bateratua aldatzeko espediente ebatziak						
Ingurumen-baimen integratua irekitzeko espediente ebatziak						
Iruñerriko Zarata Mapa Estrategikoa prestatzea						
	325	157	168			
	ORDUAK			1344	231	1344
	LANALDIA			1592	1592	1592
	PERTSONA KOP.			0,84	0,15	0,84

INGURUMEN IKUSKAPENEN ATALA

Oinarrizko premisa batzuetatik abiatuz kalkulatu da Atalak zenbat langile behar dituen ikuskapen lanak egiteko. Ohar orokorrak:

- Ikuskapen lanaren garrantzia, kontrolatu behar baita instalazioek ingurumen arloko betebeharrak betetzen dituztela; izan ere, ingurumen araudi guztian jasotzen den eskakizuna da. Europar Batasuneko instalazio guztiak antzera kontrolatu beharra dago, “ingurumen paradisuak” egon ez dadin.
- Ikuskatzeko jarduerak konfidentzialtasuna dakar berekin, eta, ondorioz, konfiantza-harreman bat instalazioaren eta erakunde ikuskatzailearen artean. Hori dela-eta, ezin

dira esternalizatu ikuskapen eginkizunak, eta beti Departamentuko langileek bete behar dituzte.

Legezko betebeharrak

- 1/2016 Errege Lege Dekretua: “In situ bisiten maiztasuna instalazioaren arriskuen ebaluazioaren arabera izan da. Arrisku handieneko instalazioetan gutxienez urtean behin izan da, eta arrisku txikiagoko instalazioetan gutxienez hiru urtean behin.”
- 17/2020 Foru Legea. 56,1. artikulua. Nafarroako Gobernuari dagokio foru lege honen xede diren Nafarroan kokaturiko jarduera eta instalazioen ingurumen-ikuskapenak egiteko eskumena, baldin eta ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak ingurumen-inpaktuaren adierazpena, abian jartzeko baimena edo ingurumen-ukipenen txostena eman badu haietarako.
- Ez da maiztasun jakin bat ezartzen instalazio guztiak bisitatzeko, baina, lau urteko ikuskapen programa bat prestatzeko betebeharra ezartzen denez, irizten zaio instalazioak lau urtean behin bisitatu behar direla.

Instalazioak bisitatzeko maiztasuna aldatu egiten da, arriskuen ebaluazio baten arabera:

- Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuko (KPKI) instalazioetarako, bisita bat urtero 5. eta 6. taldekoetara, bi urtean behin 4. taldekoetara, eta hiru urtean behin 3., 2. eta 1. taldekoetara.
- Ingurumen-baimen bateratuko instalazioetarako (IBB), bisita bat urtero 5. eta 6. taldekoetara, bi urtean behin 4. taldekoetara, hiru urtean behin 3. taldekoetara, eta lau urtean behin 2. eta 1. taldekoetara.

Aurreko datuak kontuak harturik, bai eta teknikari bakoitzak ingurumen arloko beste ikuskapen jarduera batzuei ematen dien dedikazioa ere (salaketak, PRTR-España erregistroko datuak eguneratzea eta baliozkotzea, GAN-NIK enpresak eginiko txostenak aztertzea, disolbatzaileak kudeatzeko planak kudeatzea...), **kalkulatzen da Atalak izan beharko lituzkeela profil teknikoko 15 langile.**

	In situ bisitak (h)	Beste batzuk (h)	Guztira (h)
Orduak, guztira (profil tekniko)	11.992	6.521	18.513
Ingurumen ikuskapenerako dedikazioa	% 100	-	12 langile
	% 70	-	17 langile
	% 78	-	15 langile
Ataleko teknikari kopurua			5 langile
LANGILE BERRIEN KOP.			10 langile

Hala eta guztiz ere, profil teknikoko 10 langile sartuz gero, **egungo araudiak eskatzen dituen gutxienerako lanak beteko lirateke**, baina aurreikusten da ezen hurrengo urteetan gehitu egingen direla ingurumen arloko betebeharrak..

HONDAKINEN ATALA

Hondakinen Atalak lan egiten du, denetariko hondakinen plangintzan eta kudeaketan ez ezik, Ekonomia Zirkularraren Agendan eta lurzoru kutsatuetan ere. Egun 8 langilek osatzen dute Atala.

Haren askotariko jardueren artean, berriki sortu den bat, lan handikoa, Hondakinen Funtsa kudeatzekoa da, zeina sortu baitzuen Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legeak. Horrek barne hartzen du urtero funtsaren berezko araudia prestatzea, dirulaguntzen urteko deialdiak egitea, proiektuak berrikustea, dirulaguntzak onartzea eta eginiko justifikazioak kontrolatzea eta berrikustea. 2022. urtean areagotu egin dira hondakinei loturiko Next Generation/SEM funtsen eta ministerioaren funtsen kudeaketa eta izapideak, eta horrek lan-karga handia ekarri du berekin eremu honetan.

Hondakinen Atalak du langileen behin-behinekotasun tasa handiena IZNren barnean, eta hura hobetu beharreko gorabehera da, helburuak beteko badira eta esleituriko zeregin guztiak egiten badira. Gaur egun, teknikarien dedikazioa partziala da, beste atal batzuekin partekatua, eta haietatik % 75 aldi baterako langileak dira, hala nola Hondakinen Funtsa kudeatzeko ardura duen ekonomista. Gainera, gai batzuek ez daukate langile jakinik esleiturik, hala nola, besteak beste, etxeko zaborrek, ekonomia zirkularrak, lur kutsatuek edo Europako proiektuek; horren ondorioz, lan asko esternalizatu behar da GAN-NIK enpresa publikoaren bidez.

GAN-NIK enpresaren kanpo-laguntzari esker, Atalak behar bezala betetzen ditu bere eginkizunak; hala ere, zenbait eremutan barneko langileak gehitu beharko lirateke:

- **Lur kutsatuen eremuan**, han administraziozko zereginak modu mugatuan betetzen baitira, **langile bat gehiago** aritu beharko litzateke horretan, jardunbide aktiboa izateko, eta ez erreaktiboa.
- **Ekonomia zirkularrean**, etorkizun argiko eremu bat izanik, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dena, **langile bat gehiago beharko litzateke**, aplikatu dadin Europako esparruan hura sustatzeko egiten ari den politika, produktuen ekoizpenaren eta kontsumoaren arlo guztietan.

EUROPAKO PROIEKTUEN ETA TOKIKO JASANGARRITASUNAREN ATALA

Atal honetan ez da saturazio handirik atzeman, baina, dena dela, gehiago bultzatu beharko litzateke, kanpoko pertzepzioaren datuen arabera.

- Erantzun die Tokiko Agenda 21 dela-eta jasoriko eskaera guztiei.
- Parte hartu du eta lagundu du aztertutako 4 zerbitzuetako edozeinentzat interesekotzat jo diren proiektu guztietan.


2.4.3 Interes-taldeek ekarpenak

Nafarroako Gobernuak IZNko Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak, **batez beste, 5,76 puntu** lortzen ditu interes-taldeetako batzuek eginiko ebaluazioan (16 erantzun izan dira). Zerbitzuarekin interakzioa izan ohi duten entitate eta erakundeak jotzen dira interes-taldetzat.

Grafikoan ikus daitekeenez, Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko jardun-eremuen banakako puntuazioak nahikoa aldatzen dira batetik bestera. Alde positiboan, nabarmentzen dira, batetik, entitateei dirulaguntzak ematea hondakinen kudeaketa hobetzeko jarduketetarako eta, bestetik, Europako proiektuak, aukerak hautematea, bazkideen bilaketa eta kofinantzaketa; dena dela, biak gogobetetasun-maila ertainean daude. Alde negatiboan, aipatu behar da industriako eta abeltzaintzako ikuskapenen urteko programa, haren batez besteko puntuazioa ez baita 5era iristen.

Eremu batetik bestera, nabarmen aldatzen da ED/EE erantzunen ehunekoa, inkestaturiko interes-taldeek ez baitute interakzioa izaten bulego berekin, ez eta arrazoi berengatik ere.

GOGOBETETASUN-MAILA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ETA BERRIKUNTZAREN ZERBITZUAREN JARDUN-



Alderdi positiboak	•Langileak prest egotea gai teknikoei erantzuteko. •Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko langileen ezagutza teknikoa. •Adikortasuna, komunikazioa eta lankidetzaren ingurumenaren arloko hainbat gestiotan.
Hobetu beharreko alderdiak	•Arinago eta azkarrago izapidetzea txostenak, espedienteak, ebazpenak, etab. •Kanpoko lankidetzaren areagotzea, hala Nafarroako Gobernutik kanpoko elkarte eta erakundeekin nola NGko beste zuzendaritza nagusi batzuekin. •Kanpo-komunikazioa hobetzea, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ematen dituen zerbitzuak ezagutarazteko. •Kordinazio handiagoa beste departamentu batzuekin, kudeaketa integratuetarako.
Interes-taldeak identifikatu riko erronkak	•Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola: egun betetzen diren eginkizunak zabaltzea. •Ekonomia zirkularra: erakundeei ulertzen eta aurrea hartzen laguntzea. •NELS sarearen sustapena: ikusten da jarraipenik izan ez duen zerbitzu gisa, nahiz eta bere garaia izan zuen. •Irizpide argiagoak Hondakinen Funtzaren proiektuen balorazioan.
Interes-taldeak proposamenak	•Nafarroako Ingurumen Kontseilua birpentsatzea, gizarte mailatik kanpoko parte-hartze egitura "kualifikatuak" izan ditzan. •Zerbitzu espezifikoak garatzea autokontsumo industrialetarako, itxierak izapidetzeko eta kontsumo arduratsurako. •Proiektu handietan, ebaluazio bateratua Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin. •Laguntzak ekonomia zirkularreko neurriak ezartzeko.

2.5 NAFARROAKO KLIMA ALDAKETARAKO BULEGOAREN ZERBITZUA

2.5.1 Zerbitzuaren egoera orokorra

Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoaren Zerbitzua: Eginkizunak

Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoaren Zerbitzua osatzen duten atalek eginkizun hauek betetzen dituzte (255/2023 FD):

- KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO EKINTZAK KOORDINATZEKO ATALA
 - Lege eta erregelamendu proposamenak prestatzea klima-aldaketaren arloan.
 - Foru legean xedatutako kide anitzeko organoak bultzatzea eta kudeatzea, hala nola Klima-aldaketaren eta Energia-trantsizioaren Departamentuarteko Batzordea, Klima-aldaketaren eta Energia-trantsizioaren arloko Politikarako Gizarte Kontseilua, Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarra.
 - Klima-inpaktuak ebaluatze txostenak prestatzea.
 - Klima-aldaketari buruzko Nafarroako ibilbide-orria (KLINa) berrikustea eta haren jarraipena egitea.
 - Gauzatze maila ebaluatzea, Nafarroako klima-aldaketaren arloko neurriei dagokienez.
 - Nafarroako Klima Funtsa kudeatzea.
 - Fiskalitate berdea inplementatzen laguntzea, klima-aldaketaren aurkako borroka helburu, karbono-aztarnarekin koordinaturik.
 - Nafarroan bultzatzea, koordinatzea eta prestatzea estrategia, ekintza-plan eta lan-programetarako proposamenak, klima-aldaketaren arloan, estatuan eta Europar Batasunean harturiko konpromisoak oinarri direla.
 - Proiektuak bultzatzea eta sustatzea klima-aldaketara egokitze eta ingurune naturala leheneratzeko.
 - Toki-erakundeei laguntza ematea tokiko neurriak ezar ditzaten.
 - Gizarte osoa kontzientziatu eta informatzeko jarduerak sustatzea eta egitea, bai eta zabalkundekoak ere, klima-aldaketari lotutako alderdi guztiez. Klima-aldaketaren inguruko desinformazioari aurre egitera bideraturik.
 - Gizarte osoarentzat, eta bereziki herritarrentzat, etengabeko komunikazio eta dibulgazio lana egitea, sentsibilizatzea eta egokitze eta arintze neurriak sustatzera bideraturik.
 - Sustatzea enpresek, administrazioek eta beste instituzio nahiz erakunde batzuek parte har dezaten arintze eta egokitze arloko borondatezko programa eta proiektuetan.
 - Klima-aldaketaren arloko berrikuntza sozialeko proiektuei eta negozio eredu berriei laguntzea.
 - Parte-hartzea sustatzea klimaren arloko Espainiako, Europar Batasuneko eta nazioarteko batzorde eta sareetan, bai eta beste ordezkaritza-, lankidetzaz- nahiz erabakitze-organo batzuetan ere.
- URAREN KALITATEAREN ETA OBRA HIDRAULIKOEN ATALA
 - Aholkularitza eta laguntza ematea udalerrri, erakunde eta entitateei uren esparruan, horiek eskatzen dituztenean; ibai-ingurunea berreskuratzea, leheneratzea edo mantentzea, eta klima-aldaketara egokitzea, bereziki uholdeak prebenitu eta kudeatzeari dagokionez.
 - Urari buruzko 2030 Esparru Estrategia Integratua bultzatzea.

- Hiri erabilerarako uraren ziklo osoari buruzko Plan Zuzentzailearen jarraipena egitea, ingurumenari dagokionez.
 - Ingurune hidrikoaren plangintza eta kudeaketarako azterlanak eta ikerketak biltzea eta egitea, horiek Plan Zuzentzailearen esparruan sartuak ez badaude.
 - Uholde-arriskuaren gaineko txostenak egitea eta arlo horretako espedienteak izapidetzea.
 - Uholdeen aurkako prebentzio eta babes neurriei buruzko azterlanak eta ikerketak biltzea eta egitea.
 - Jarduketak sustatu, diseinatu eta gauzatzea, ingurune fisikoan klima-aldaketara egokitzeko, barnean direla uholde-arriskua prebenitzeko edo minimizatzekoak, gainerako zerbitzuekin lankidetzan.
 - Ibai-ingurunea berreskuratzeko, leheneratzeko edo mantentzeko obren proiektuak idatzi eta gauzatzea, bereziki Natura 2000 Sareko ibai-inguruneak lekuei dagokienez.
 - Klima-aldaketara egokitzeko jarduketak sustatzea, beste administrazio batzuekin lankidetzan, klima-aldaketak ingurumenean dituen inpaktuak minimizatzeko.
 - Jabari publiko hidraulikoko ur kontzesioen gaineko ingurumen txostenak egitea, Uren Legean xedatutakoari jarraikiz.
 - Kontrol piezometriko eta hidrometrikoko sareak eta uren eta bainuguneen kalitatekoak prestatu, ezarri eta mantentzea.
 - Aldian behin honako hauek aztertzea, konfederazio hidrografikoekin lankidetzan: plubiometriaren bilakaera; zirkulatzen duten emariak, eta nekazaritza, hiri eta industria kontsumoak.
 - Datu hidrologiko eta hidrogeologikoen bankua mantendu eta ustiatzea, eta informazioa ematea.
 - Deialdiak eta laguntzak ematea kudeatzea ibai-ingurunearen gaineko jarduketetarako, bai ibai-ingurunea leheneratzeko, bai uholde-arriskuak gutxitzeko.
 - Jarduketak eta proiektuak bultzatzea, klima-aldaketak Nafarroan dituen inpaktuen aurrean egokitzeko gaitasuna hobetzeko, eta egokitzapena politika sektorialetan txertatzeko.
- AIREAREN KALITATEAREN ETA KLIMA ALDAKETAREN ATALA
 - Ingurumen atmosferikoaren kalitatea ebaluatzea eta kontrolatzea, atmosferara egiten diren emisioen inbentarioak egitea eta airearen kalitateari buruzko planak eta atmosferaren kutsatzaileen emisioak murrizteko programak idaztea, klima-aldaketaren aurkako borrokaren barnean.
 - Ikuspegi eta kudeaketa integratua sustatzea airearen kutsadurari buruz eta horrek klima-aldaketan duen eraginari buruz; jatorria, prozesuak eta ondorioak.
 - Jarduketak sustatzea I+G+b arloko proiektuetan, klima-aldaketaren aurkako borrokaren esparruan.
 - Berotegi-efektuko gas isurketen salerosketan dauden instalazioak kontrolatzea eta horien jarraipena egitea.
 - Berotegi-efektuko gas isurketen inbentarioaren garapena koordinatzea, hustubideak barne, bai eta isurketa proiektzioen sistemena ere, nazioartean onetsi diren metodologiak oinarri harturik.

- Europar Batasuneko merkataritza araubidearen arloko eskumenak erabiltzea, berotegi-efektuko gas isurketen gaineko eskubideei dagokienez.
- Txostena egitea klima-aldaketari eragiten ahal dioten plan eta programetako ingurumen ebaluazio estrategikoetarako prozeduretan.
- Laguntza ematea toki-erakundeen esparruan aldaketa klimatikora egokitzeko.
- Komunitate zientifikoaren jarduerak sustatzea honako gai hauetan: klima-aldaketa, klima-sistemaren behaketa, eta eskualdeko ereduaren sorrera.
- Berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak kalkulatzeko metodologiaren jarraipena egitea.

Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoaren Zerbitzua: Egitura eta plantilla

Egiturari oro har begiraturik, hurrengo taulan ageri dira, zer kontratu mota eta maila dauden Zerbitzuko antolaketa-unitate bakoitzean:

NAFARROAKO KLIMA ALDAKETARAKO BULEGOAREN ZERBITZUA											
KONTRATAZIO MAILA	A		B		C		D				
KONTRATU MOTA	F	T	F	T	F	T	F	T	F	T	GUZTIRA
Zuzendaria	1								1	0	1
Administrazio-langileak						1			0	1	1
Klima Aldaketaren aurkako Ekintzak Koordinatzeko Atala	2	1							2	1*	3
Uraren Kalitatearen eta Obra Hidraulikoen Atala	1	1							1	1	2
Airearen Kalitatearen eta Klima Aldaketaren Atala	1								1	0	1
GUZTIRA, ZERBITZUAN	5	2	0	0	0	1	0	0	5	3	8

*Pertsona horietako bat proiektu jakin baterako dago kontratatutik, eta, beraz, proiektua bukatzean, 2025eko abenduan, atal horretan 4 lanpostu egon da.

Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoaren Zerbitzuaren behin-behinekotasun maila % 37,50ekoa da (aldi baterako lanpostuak / lanpostu guztiak). Zerbitzua sortu berria da, eta gaur egun, 2024ko apirilean, oraindik ez dira izendatu zenbait postu: burutzak, teknikariak eta administrazio-langileak.

2.5.2 Analisia barneko pertzepziotik

Atal honetan, Zerbitzuaren **barneko pertzepziotik aztertu** nahi da bertan egiten diren jarduerak eta zerbitzuen jarduna. Helburua da langile gehiagoren beharrak kalkulatzeko atal bakoitzerako, behar den moduan eta epean gauza ditzaten legediak eta, orobat, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren ekimenak esleitu dizkieten eginkizunak.

Analisi hau Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko teknikariek eta zuzendaritzako kideek prestatu zuten 2022. urtean, 2021eko datuak erabiliz, hark baitzituen, hain zuzen, egungo Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoaren Zerbitzuak dituen eskumenak. Bereizi dira egungo zerbitzuaren eginkizunei loturiko analisiak, eta jatorrizko kontsultaren emaitzak mantendu dira, gai horiei dagokienez.

KLIMA ALDAKETAREN ATALA

Atal hau 2019-2023 legegintzaldian sortu zen, eta bere gain hartu zituen Ekonomia Zirkularren Plangintza Estrategikorako eta Kontrolerako Atalak eta Ibaiak Lehengoratzeko eta Arrantza Kudeatzeko Atalak zituzten eskumenetako batzuk (atalok Ekonomia Zirkularren eta Uraren Zerbitzua izandakoan zeuden).

Jardunari buruzko datu eskuragarriak 2020. eta 2021. urteetakoak dira. Jarraian ageri den taulan ikus daitekeenez, **guztira izapidetu ziren espedienteen kopurua % 33,45 gehitu zen urte batetik bestera**, eta Ataleko langile kopurua, ordea, ez zen handitu. Hain zuzen, profil teknikoko 5 langile zeuden atal honetan 2023. urtean.

Taulako espedienteek gain, Atalak bestelako lanak ere egiten ditu, espediente baten barnean gauzatzen ez direnak: lehenik, klima-aldaketarako dedikazio zatia bulegoburu batek eta atalburuak egiten dute, non bulegoburuak batez ere KLINaren jarraipena eta komunikazio-jarduera osagarri generikoak egiten baititu (Klina Berri...), eta atalburuak, bestetik, eremu horretako askotariko jarduera ugari.

Jardun hori osatzeko, bi teknikari daude, NAdapta-n aritzen direnak: Europako proiektu horrek klima-aldaketa egokitzeko zatia biltzen du. Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko 4/2022 Foru Legeak **klima-aldaketarako bulego bat** sortzeko beharra jasotzen du. Ildo horretan, 255/2023 Foru Dekretuak horixe betetzen du IZNren egitura organiko berrian, eginkizun jakin batzuk dituen zerbitzu gisa.. Hori dela-eta, beharrezkoa izanen da klima-aldaketa egokitzeko egungo egitura finkatzea, 2025ean Europako proiektua bukatu eta harago begira; **hala, horretarako 2 teknikari-lanpostu horiek gehitu beharko dira plantillan modu egonkorrean, eta 2 langile gehiagoren laguntza beharko da arintze arloko zereginetarako eta gainerako eskumenetarako.**

Klima Aldaketaren Atalak barne hartzen du Uraren Kudeaketako Alorra, zeina arduratzen baita ur-baliabideez, uholde-arriskuaz eta uraren kalitateaz, lurrazaleko eta lurpeko uren kantitatea eta kalitatea kontrolatzeko sareen laguntzarekin. **Arlo hori eskumen teknikoak galduz joan da azken urteetan, 2016an zerbitzua izateari utzi zionetik. Beste langile baten laguntza teknikoa beharko luke.**

ESPEDIENTE MOTA	2020	2021	Aldakuntza (%)
Hirugarrenentzako txostenak (CORP)	118	149	% 26,27
Konfederazioentzako txostenak	45	78	% 73,33
Fakturen ordainketa	22	35	% 59,09
Ebazpenak	1	2	% 100,00
Berotegi-efektuko gasen baimenak	27	30	% 11,11
Berotegi-efektuko gasen gaineko txostenak	26	25	-% 3,85
Dirulaguntzen deialdiak	0	1	
Eskuragarri jartzea	1	2	% 100,00
Parlamentuko galderak	2	12	% 500,00
Enkarguak onartzea	4	6	% 50,00
Kontratu irekien espedienteak	5	1	-% 80,00
Kontratu txikien espedienteak	16	27	% 68,75
Ingurumen alorreko informazio-eskaerak	23	19	-% 17,39
GUZTIRA	290	387	% 33,45


2.5.3 Interes-taldeek ekarpenak

Nafarroako Gobernuak IZNko Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoaren Zerbitzuak, **batez beste, 5,5 puntu** lortzen ditu interes-taldeetako batzuek eginiko ebaluazioan (16 erantzun izan dira). Zerbitzuarekin interakzioa izan ohi duten entitate eta erakundeak jotzen dira interes-taldetzat.

Grafikoan ikus daitekeenez, jardun-eremu batzuen eta besteen banakako puntuazioak antzekoak dira. Puntuazio onena klima-aldaketa arintzeko neurrien jardun-eremuak lortu du, 6 batez beste. Puntuazio txikiena, aldiz, airearen kalitatearen kontrolari eman zaio, 5 pasatxo.

Eremu batetik bestera, nabarmen aldatzen da ED/EE erantzunen ehunekoa, inkestaturiko interes-taldeek ez baitute interakzioa izaten bulego berekin, ez eta arrazoi berengatik ere.

GOGOBETETASUN-MAILA NAFARROAKO KLIMA ALDAKETARAKO BULEGOAREN ZERBITZUAREN JARDUN-EREMUEKIN



Alderdi positiboak	•Langileak prest egotea gai teknikoei erantzuteko. •Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko langileen ezagutza teknikoa. •Adikortasuna, komunikazioa eta lankidetzaren ingurumenaren arloko hainbat gestiotan.
Hobetu beharreko alderdiak	•Arinago eta azkarrago izapidetzea txostenak, espedienteak, ebazpenak, etab. •Kanpoko lankidetzaren areagotzea, hala Nafarroako Gobernutik kanpoko elkarte eta erakundeekin nola NGko beste zuzendaritza nagusi batzuekin. •Kanpo-komunikazioa hobetzea, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ematen dituen zerbitzuak ezagutarazteko. •Koordinazio handiagoa beste departamentu batzuekin, kudeaketa integratuetarako.
Interes-taldeak identifikaturiko erronkak	•Klima-aldaketa: sostengua ematea erakundeei presta daitezen laguntzeko.
Interes-taldearen proposamenak	•Nafarroako Ingurumen Kontseilua birpentsatzea, gizarte mailatik kanpoko parte-hartze egitura "kualifikatuak" izan ditzan. •Zerbitzu espezifikoak garatzea autokontsumo industrialetarako, itxierak izapidetzeko eta kontsumo arduratsurako. •Proiektu handietan, ebaluazio bateratua Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin.

3

AMIA ANALISIA



3. AMIA ANALISIA

3.1 AMIA analisia: Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzua⁴

AMIA ANALISIA	
AUKERAK	MEHATXUAK
ARAU- ETA ESTRATEGIA-GARAPENA - Garatzea 4/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzkoa, eta Baso Kudeaketa Jasangarrirako Plana 15/2022 Errege Lege-dekretua, presako zenbait neurri hartzen dituen baso-suteen alorrean. - Arau-garapen planifikatua: Ehizaren Kudeaketari buruzko Foru Legea ZERBITZUAK ETA JARDUERAK - Baso-baliabideen kanpoko eskaria, basoen kudeaketa hobe eta mendiak garbitzea ahalbidetzeko	ARAU-ESPARRUAREN TAMAINA - Arauen ezarpenaren bolumena eta konplexutasuna, eta hori kudeatzeko ahalmena JARDUERAREN EBOLUZIOAREN AURREIKUSPENA - Europako NextGenEU funtsen bolumena, eta hori zuzen kudeatzeko ahalmena - Suteak ugaritzeko aurreikuspena, lurraldeko egiturazko faktore gisa

⁴ AMIA analisi hau Zerbitzuko teknikariek eta zuzendaritzako kideek prestatu zuten 2022. urtean, 2021eko datuak erabiliz, eta une hartan barne egiturak bazituen zenbait eskumen gaur egun beste zerbitzu batzuei dagozkienak. Horien artean zeuden, esaterako, abelbideak eta ingurumen-hezkuntza; beraz, AMIA analisitik kendu dira.

- Basogintzaren arloko esperimentazioa, arlo horretan ezagutza sortzeko, zeina erabiliko baita gero beste ekintza batzuk abian jartzeko

FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK

- Funts berriei loturiko finantzaketa: NextGenEU

INTERES-TALDEAK ETA HARREMANA HERRITARREKIN

- Gizartearen eta herritarren sentsibiltatea ingurumen arloan

INDARRAK

BARNE-KULTURA ETA GIROA

- Pertsonen konpromisoa eta bokazioa beren lanarekiko
- Barne-giro ona
- Langileen gogobetetasun handia beren lana egitean

ANTOLAKETA ETA EGITURA

- Zerbitzuaren antolaketa-egitura egokia gara dadin
- Ezagutzea bete beharreko eginkizunak eta horiei loturiko konpromiso mailak eta eskakizunak
- Langileen gogobetetasun handia beren lana egitean
- Telelana lantaldeak eta lan-malgutasuna kudeatzeko alternatiba gisa
- Jarduketak urtean zehar berriz planifikatzeko ahalmena, kargak berriz orekatzeko

AHULEZIAK

ZERBITZUEN ESTRATEGIA ETA GARAPENA

- Legezko epeak betetzeko ezintasuna, egungo ahalmenarekin
- Kudeaketa planen eta plan zuzentzaileen arabera garatu beharreko ekintza plan espezifikoetarako ez izatea behar den zehaztapen-maila

ANTOLAKETA, EGITURA ETA TALENTUA

- Zerbitzuan aldi baterako eta behin-behineko langileak % 48,48 dira
- Zerbitzuaren saturazioa eginkizun tekniko eta administratiboetan
- Talentuaren eta ezagutza-kudeaketaren galera, funtsezkoak diren pertsona batzuk joaten direnean Administrazioaren protokoloen ondorioz
- Ez dago ahalmenik prestakuntzak egiteko, lan-saturazioa dela-eta
- Ez ezagutzea beste lantalde batzuen (beste zerbitzu batzuen) eginkizun eta zereginak
- Administrazioako lanpostuak betetzeko sistema “zurruna” da, eta horrek inpaktua du gaitasunen egokitasunean eta loturiko eginkizunak gauzatzeko garaian. Ezin dira langileak kontratatu aldi jakin baterako eta profil jakin batzuekin.
- Aski ez izatea suteen prebentziorako baliabideak: are larriagoa da, uneko egoera dela-eta

KUDEAKETA- ETA HOBEKUNTZA-SISTEMAK

- Plan orokorrak egotea, lan-ildo nagusiak ezartzea ahalbidetzen dutenak: Basogintza Agenda eta beste batzuk
- Atalek ekimena izatea etengabe hobetzeko eta abian diren prozesuak sinplifikatzeko: Basoak Kudeatzeko Atala, kasurako

TEKNOLOGIA

- Teknologia modernizatzeko ahalmena: izapideak Extr@-ren bidez hedatzea, bai eta pixkanaka ezarritakoak beste tresna batzuen bidez ere

- Bi antolaketa-unitate gehiago behar dira: Pirinioetako eskualdea eta Nafarroako Erdialdeko eta Erriberako eskualdea

KUDEAKETA

- Koordinazio falta beste unitate batzuekin, eta zalantzak eskumenez eta proiektu batzuen garapenaren norainokoaz

TEKNOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Baliabide teknikoak: mugikorrik ez eta postuen eta bulegoen egokitzapenik ez.
- Aplikazio digitalik ez, bereziki ehizaren arloan

3.2 AMIA analisia: Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzua

AMIA ANALISIA	
AUKERAK	MEHATXUAK
ARAU- ETA ESTRATEGIA-GARAPENA - Garatzea 4/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa - Garatzea Nafarroako Natura Ondareari buruzko Foru Legea - Arrantzaren Kudeaketari buruzko Foru Legea - Aplikatzea Europako biodibertsitate-estrategia eta Natura Leheneratzeari buruzko Legea ZERBITZUAK ETA JARDUERAK - Definitzea eta ezartzea Nafarroako azpiegitura berdea - Garatzea Nafarroako hezeguneen inbentario berria - Estepako Hegaztien Kontserbaziorako Plana FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK - Funts berriei loturiko finantzaketa: NextGenEU INTERES-TALDEAK ETA HARREMANA HERRITARREKIN - Gizartearen eta herritarren sentsibiltatea ingurumen arloan	ARAU-ESPARRUAREN TAMAINA - Arauen ezarpenaren bolumena eta konplexutasuna, eta hori kudeatzeko ahalmena JARDUERAREN EBOLUZIOAREN AURREIKUSPENA - Europako NextGenEU funtsen bolumena, eta hori zuzen kudeatzeko ahalmena - Eginkizunen eta zereginen gehikuntza, Europako energia-politika berria dela-eta - Gero eta informazio eta lan gehiago eskatzen du Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak (MITERD), eskaerak maiz oso adosturik egon gabe autonomia-erkidegoek egiten duten kudeaketarekin INTERES TALDEAK - Talde jakin batzuen lobbyak jardutea naturagunean eta espezieak babesteko helburu batzuen aurka eta, ondorioz, jarduketa jakin batzuk zailago gertatzea
INDARRAK	AHULEZIAK

BARNE-KULTURA ETA GIROA

- Pertsonen konpromisoa eta bokazioa beren lanarekiko
- Barne-giro ona
- Langileen gogobetetasun handia beren lana egitean

ANTOLAKETA ETA EGITURA

- Koordinazio-egitura egonkorak ministerioarekin
- Zerbitzuaren antolaketa-egitura nahikoa egokia bere eginkizunak bete ditzan
- Ezagutzea bete beharreko eginkizunak eta horiei loturiko konpromiso mailak eta eskakizunak

KUDEAKETA- ETA HOBEKUNTZA-SISTEMAK

- Plan orokorrak egotea, nahiz eta kudeatzen zailak izan
- Telelana lantaldeak eta lan-malgutzea kudeatzeko alternatiba gisa

TEKNOLOGIA

- Teknologia modernizatzeko ahalmena: izapideak Extr@-ren bidez hedatzea, bai eta pixkanaka ezarriz doazen beste tresna batzuen bidez ere

ZERBITZUEN ESTRATEGIA ETA GARAPENA

- Administrazio-epeak ez betetzea honako hauetan, besteak beste: naturagune babestuen kudeaketa planen berrikuspena, espezie basatien maneiorako baimenak, naturagune babestuetan jarduerak egiteko baimenak, eta naturaguneen erabilera publikorako laguntzen kudeaketa
- Kudeaketa plan gehiegi haien gainean jarduteko, kontuan harturik Zerbitzuak dituen baliabideak: 42 plan aktibo gaur egun, falta direla haiei loturiko lehentasunak
- Barne-jardun desegokia atzematen da: kalitate gutxi, batez ere lizentzia eta baimenetan. Ez da egiten emandako baimenek behar duten kontrol maila

ANTOLAKETA, EGITURA ETA TALENTUA

- Zerbitzuan aldi baterako eta behin-behineko langileak % 64,10 dira
- Zerbitzuaren saturazioa eginkizun tekniko eta administratiboetan: ez dago administrazio bulegorik, IZNko gainerako zerbitzuetan ez bezala, eta ez dago, orobat, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketarako profilik edo unitaterik
- Gehiegizko mendekotasuna GAN-NIK enpresak Zerbitzuari ematen dizkion laguntza teknikoekiko
- Prozedura koordinatuak prestatzeko beharra, atalen artean partekatutako prozeduretarako
- Talentuaren eta ezagutza-kudeaketaren galera, funtsezkoak diren pertsona batzuk joaten direnean Administrazioaren protokoloen ondorioz
- Ez dago ahalmenik prestakuntzak egiteko, lan-saturazioa dela-eta
- Ez ezagutzea beste lantalde batzuen (beste zerbitzu batzuen) eginkizun eta zereginak
- Antolaketa-unitate berrien beharra gai jakin batzuetan. ibai ingurune obrak eta jarduketetarako edo ingurumen-ebaluazio estrategikoetarako

KUDEAKETA

- Prozedura koordinatuak prestatzeko beharra, atalen artean partekatutako prozeduretarako

- Koordinazio bilerak berreskuratzeko beharra

TEKNOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Baliabide tekniko osagarriak eskatzen dira: ibilgailu gehiago beste zerbitzu batzuekin partekaturiko kudeaketarako eta hornidura hobea bulegoetan
- EXTR@: prozesuak berrikusteko eskaera, bikoiztasunak kentzeko
- Aplikazio digitalik ez: datu-baseen tresnak, honako hauetarako: ingurumen-inpaktuko espedienteak, Natura 2000 Sareko lekuen kudeaketa eta espezie basatien datu-baseen kudeaketa

INTERES-TALDEAK ETA HARREMANA HERRITARREKIN

- Harremana aldatu behar da interes-taldeekin eta hobetu behar da zerbitzuaren jardueraren irudia

3.3 AMIA analisia: Ekonomia Zirkularren eta Berrikuntzaren Zerbitzua

AMIA ANALISIA

AUKERAK

ARAU- ETA ESTRATEGIA-GARAPENA

- Garatzea 4/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzkoa, eta Baso Kudeaketa Jasangarrirako Plana
 - IPCCren handitzea
- Garatzea 17/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen
- Garatzea Elikagaien Galeraren eta Xahuketaren Prebentziorako Legea

ZERBITZUAK ETA JARDUERAK

- Garatzea Nafarroako Industria Jardueraren Ikuskapeneko 2023-2026 Plana
- Garatzea Elikagaien Galeraren eta Xahuketaren Prebentziorako Legea

FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK

- Funts berriei loturiko finantzaketa: PEMAR, Hondakinen Funtsa, EMITER eta NextGenEU

INTERES-TALDEAK ETA HARREMANA HERRITARREKIN

- Gizartearen eta herritarren sentsibiltatea ingurumen arloan

MEHATXUAK

ARAU-ESPARRUAREN TAMAINA

- Arauen ezarpenaren bolumena eta konplexutasuna, eta hori kudeatzeko ahalmena
- Hiperregulazioa estatuko eta eskualdeko administrazioen artean koordinatu gabeko eremu batzuetan

JARDUERAREN EBOLUZIOAREN AURREIKUSPENA

- Kanpoko funtsen bolumena, eta hori zuzen kudeatzeko ahalmena

INDARRAK

BARNE-KULTURA ETA GIROA

- Pertsonen konpromisoa eta bokazioa beren lanarekiko
- Gardentasun kultura
- Barne-giro ona

ANTOLAKETA ETA EGITURA

- Balioaniztasuna eginkizunak gauzatzen eta talde-lanean
- Ezagutzea bete beharreko eginkizunak eta horiei loturiko konpromiso mailak eta eskakizunak
- Telelana lantaldeak kudeatzeko alternatiba gisa

TEKNOLOGIA

- Zerbitzu aitzindaria Extr@ eta gisako tresna telematikoak ezartzen eta erabiltzen

INTERES-TALDEAK ETA HARREMANA HERRITARREKIN

- Harreman onak enpresekin

AHULEZIAK

ZERBITZUEN ESTRATEGIA ETA GARAPENA

- Ezagutzaren galera uraren arloan (zerbitzu bat izan zen 2015era arte): ahaleginak areagotu beharko lirateke, izaera estrategikoa izanen duela aurreikusirik

ANTOLAKETA, EGITURA ETA TALENTUA

- Zerbitzuan aldi baterako eta behin-behineko langileak % 40 dira
- Zerbitzuaren saturazioa eta jardunari loturiko zailtasuna
- Talentuaren eta ezagutza-kudeaketaren galera, funtsezkoak diren pertsona batzuk joaten direnean Administrazioaren protokoloen ondorioz
- Prestakuntza falta
- Gehiegizko mendekotasuna GAN-NIK enpresak Zerbitzuari ematen dizkion laguntza teknikoekiko

KUDEAKETA

- Prozedura koordinatuak prestatzeko beharra atalen artean
- Gehiegizko burokratizazioa egiten diren prozesuetan

TEKNOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Extr@: gehiago hedatu behar da teknikarien administrazio-lanak sinplifikatu eta murrizteko tresna hau
- IKT aplikazioak: tresnek eboluzionatu beharra dute
- Ahalmena falta da jasotzen diren datuen kopuru eskerga kudeatzeko. Informazio hori kudeatzeko tresnak behar dira, datu-kudeaketako teknikari batzuen laguntzarekin
- Ibilgailu berriak behar dira, eta bulegoak hobetu

INTERES-TALDEAK ETA HARREMANA HERRITARREKIN

- Ahulezia kanpo-komunikazioan Zerbitzuaren eginkizunei eta rolari buruz: garrantzizko eragile batzuek irudi txarra dute zerbitzuaz edo ez dute ezagutzen
- Irudia berritu behar da, eta web-orriko edukiak eguneratu

3.4 AMIA analisia: Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoaren Zerbitzua

AMIA ANALISIA

AUKERAK

ARAU- ETA ESTRATEGIA-GARAPENA

- Garatzea 4/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzkoa, eta Baso Kudeaketa Jasangarrirako Plana
- Garatzea Airearen Kalitateari buruzko Zuzentzau berria

ZERBITZUAK ETA JARDUERAK

- Garatzea Airearen Kalitateari buruzko Zuzentzau berria

FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK

- Funts berriei loturiko finantzaketa: Klima Funtza eta NextGenEU.

INTERES-TALDEAK ETA HARREMANA HERRITARREKIN

- Gizartearen eta herritarren sentsibilitatea ingurumen arloan

INDARRAK

BARNE-KULTURA ETA GIROA

- Pertsonen konpromisoa eta bokazioa beren lanarekiko
- Gardentasun kultura
- Barne-giro ona

MEHATXUAK

ARAU-ESPARRUAREN TAMAINA

- Arauen ezarpenaren bolumena eta konplexutasuna, eta hori kudeatzeko ahalmena
- Hiperregulazioa estatuko eta eskualdeko administrazioen artean koordinatu gabeko eremu batzuetan

JARDUERAREN EBOLUZIOAREN AURREIKUSPENA

- Kanpoko funtsen bolumena, eta hori zuzen kudeatzeko ahalmena

AHULEZIAK

ZERBITZUEN ESTRATEGIA ETA GARAPENA

- Ezagutzaren galera uraren arloan (zerbitzu bat izan zen 2015era arte): ahaleginak areagotu beharko lirateke, izaera estrategikoa izanen duela aurreikusirik

ANTOLAKETA ETA EGITURA

- Balioaniztasuna eginkizunak gauzatzen eta talde-lanean
- Ezagutzea bete beharreko eginkizunak eta horiei loturiko konpromiso mailak eta eskakizunak
- Telelana lantaldeak kudeatzeko alternatiba gisa

TEKNOLOGIA

- Zerbitzu aitzindaria Extr@ eta gisako tresna telematikoak ezartzen eta erabiltzen

INTERES-TALDEAK ETA HARREMANA HERRITARREKIN

- Harreman onak enpresekin

ANTOLAKETA, EGITURA ETA TALENTUA

- Zerbitzuko aldi baterako eta behin-behineko langileak % 37,50 dira
- Prestakuntza falta
- Gehiegizko mendekotasuna GAN-NIK enpresak Zerbitzuari ematen dizkion laguntza teknikoekiko

KUDEAKETA


- Prozedura koordinatuak prestatzeko beharra atalen artean
- Gehiegizko burokratizazioa egiten diren prozesuetan

TEKNOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Extr@: gehiago hedatu behar da teknikarien administrazio-lanak sinplifikatu eta murrizteko tresna hau
- IKT aplikazioak: tresnek eboluzionatu beharra dute
- Ahalmena falta da jasotzen diren datuen kopuru eskerga kudeatzeko. Informazio hori kudeatzeko tresnak behar dira, datu-kudeaketako teknikari batzuen laguntzarekin
- Ibilgailu berriak behar dira, eta bulegoak hobetu

INTERES-TALDEAK ETA HARREMANA HERRITARREKIN

- Ahulezia kanpo-komunikazioan Zerbitzuaren eginkizunei eta rolari buruz: garrantzizko eragile batzuek irudi txarra dute zerbitzuaz edo ez dute ezagutzen
- Irudia berritu behar da, eta web-orriko edukiak eguneratu



4

ESPARRU ESTRATEGIKOA

4. ESPARRU ESTRATEGIKOA

4.1 Printzipio estrategikoak

XEDEA

Gure lurraldean Europako, estatuko eta Nafarroako ingurumen araudia ezarri eta betearaztea, honako alor hauetan: biodibertsitatearen eta basoen kontserbazioa, klima-aldaketaren aurkako borroka, kutsaduraren prebentzioa, ibai-ingurunearen kudeaketa eta ekonomia zirkularraren sustapena. Horren guztiaren helburua da garapen jasangarria segurtatzea eta nafarrek Nafarroako ondarea eta baliabide naturalak oinordetzan hartu eta gozatzen dituztela bermatzea.

IKUSPEGIA

Erreferentzia bat izatea garapen ekonomiko eta soziala Nafarroako ingurumena zaindu eta babestearekin bateragarri egiteari dagokionez.

BALIOAK

Honako balio hauen gainean oinarritu eta garatu nahi ditugu gure jarduketak:

- Herritarrei arreta eta aholkuak ematea eta entzutea, IZNren eskumenekoak diren gaietan.
- Erantzukizun publikoa: profesionaltasuna eta konpromisoa, IZNren jarduera guztietan.
- Inpartzialtasuna eta gardentasuna, kudeaketan eta herritarrei zerbitzu ematean.

ESKUMENAK

Gure **eskumenak** ezarririk daude Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 23ko 255/2023 Foru Dekretuan, eta honako hauek dira:

ESKUMENAK

- Klima aldaketaren aurkako estrategia eta horretara egokitzeko ekimenak zehaztea.
- Ekonomia zirkularra sustatzea.
- Gai hauen gaineko planifikazioa: hondakinak, ur baliabideak, airearen kalitatea eta kutsaduraren prebentzioa.
- Plangintza eta kudeaketa egitea esparru hauetan: baso ondarea, naturagune babestuak eta Natura 2000 Sarea, habitatak eta basafauna.
- Azpiegitura berdea eta konektagarritasun eta leheneratze ekologikoak zehaztea, planifikatzea eta kudeatzea.
- Ingurumen-ebaluazioa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak, eta baimentze, zaintze, ikuskatze eta zehatze lanak egitea ingurumenean eragina duten jardueretan.
- Informazio sektoriala txertatzea plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioan.
- Uraren eta airearen natura-baliabideak, eta biodibertsitatea, ebaluatzea.
- Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldeko langileen araubide berariazkoa arautzen duen urtarilaren 30eko 7/2019 Foru Dekretuan ezarritako eginkizunak.
- I+G+b sustatzea Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren esparruetan, bai eta prestakuntzako eta heziketako jarduerak ere, ingurumenari eta natura-baliabideen aprobetxamendu jasangarriari buruzko gaietan.
- Koordinazioa egitea ingurumen-hezkuntzaren eta ingurumen-osasunaren esparruetan, bai eta Foru Komunitateak ingurumen politikan parte hartzearen ondoriozko beste guztietan ere.
- Erantzutea ingurumen arloko informazioaren eskaerei, horiek izapidetzen dituen unitatearekin koordinaturik.
- Beste administrazio batzuekin lankidetzan aritzea ingurumenaren arloko gaietan.
- Koordinatzea ingurumen ekimenekin (klimaren aldeko itunak) eta jasangarritasun estrategiekin (Garapen Jasangarriko Agenda 2030), hainbat esparrutan eta lurralde-mailatan.

4.2 Estrategia 2024-2027

Esparru estrategikoaren egitura orokorra


IZNren Plan Zuzentzailea 2024-2027, II. Zatia, 5 ardatz estrategikotan antolaturik dago, eta aldi horretarako antolaketaren egokitzapena hartzen da ardatz nagusizat eta planaren erdigunetzat, horren bidez erantzun ahal izateko egungo eta etorkizuneko erronka eta beharrei.

Plan zuzentzaile honetan konbinatzen dira **arau-garapenaren zein zerbitzu berrien** norainoko handiak, eta horretarako mekanismo berriak antolatu behar dira **talentua kudeatzeko eta Zuzendaritzaren ezagutza kudeatzeko**.

Antolaketaren egokitzapena, hala egitura aldatzeko nola plantilla handitu eta egonkortzeko, izanen da aldi horretako garrantzizko erronkei aurre egitea ahalbidetu duen ardatza, Administrazioak izan beharreko ikuspuntu garantistarekin betiere.

Administrazioaren erronka orokorren ildoan, **modernizazio eta efizientziako** aldi bat aurreikusten da, zenbait barne-prozesuren laguntzarekin, horien bidez egituraren bitartekoak eta baliabideak sinplifikatu, digitalizatu eta ezartzeko.

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiago emanik, bultzatu behar da **ikusgaitasuneko eta sentsibilizazioko** ardatz bat zuzendaritza nagusiak egiten duen lanaren inguruan, bai eta **harremanen kudeaketa aktibo bat ere kanpoko taldeekin** eta interes-taldeekin, haiekin egituraturiko lankidetzat eta koordinazioko testuinguru batean.



Planaren helburuak



1. ARDATZA. Arauen eta zerbitzuen garapena

1. ARDATZA

HELBURU OROKORRAK



1 ARAUEN ETA ZERBITZUEN GARAPENA

- Arau-esparrua garatzen eta betetzen dela sustatzea eta segurtatzea
- Planaren aldiko funtsezko plan eta programak bultzatzea
- Berrikuntzak sartzea zerbitzuen arloan, erronka sozial eta ekonomiko berriei erantzuteko

OINARRIAK ETA IKUSPEGIA

IZNrentzat Planaren aldiak **garrantzizko erronkak ekarriko ditu arauen garapenaren arloan**. Hala, batetik, berriki onetsiriko legediaren ondoriozko politikak eta estrategiak daude; bestetik, garapen berriak, ekimen propioak zein eskualdez gairik arauen transposizioak eraginikoak. Aurreikusten da aldi hori izanen dela **intentsitate handikoa, arauen arloan ez ezik, deialdi eta programa berrien sustapenean eta Administrazioaren beraren proiektu berrien garapenean ere**.

Hala, badira arau-garapen estrategikoak zuzendaritza nagusiaren eskumeneko hainbat arlotan, aurreko urteetan baino barne-ahalegin handiagoa eskatuko dutenak: zehazki, arlo hauetan: klima-aldaketa, ekonomia zirkularra, biodibertsitatearen babesa, kutsaduraren prebentzioa, ibai-ingurunearen kudeaketa edo baso- eta ehiza-ondarea. Itun Berdeari loturiko estrategia orokorraren babesean, Europar Batasuna arau arloko bultzada handia ematen ari da, eta horren guztiaren transposizioa zuzenean egiten da **erregelamenduko eskakizun berri batzuetara, zeinak IZNk betearazi behar baititu bere lurraldean**.

Era berean, Planaren aldiak protagonista izanen dira, batetik, **zuzendaritza nagusiaren beraren plan eta programen garapena**, ekimen propioz nahiz arauen ondorioz, eta, bestetik, deialdi eta programa berrien sustapena, Europatik datozen **funtsen aparteko zuzkidurarekin**. Kasu honetan, intentsitate handiko aldia iragartzen dute bai programa arruntetan dauden funtsen egiturazko gehikuntzak (LGENF, Klima Funtsa edo Hondakinen Funtsa), bai NextGenEU funtsen aparteko zuzkidurak. Horrek erronka erronka handia dakar, funtsak aprobetxatzeko ekimen berezietan eta funtsok kudeatzeko bat etorri Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren eskakizunekin.

Halaber, zuzendaritza nagusiak baditu **egiturazko lan-ildo batzuk hala azterlanetan nola laguntza tekniko arruntetan eta inbertsio-proiektuetan**, eta haiei ekimen berritzaile batzuk gehituko zaizkie Planaren aldiak, erronka sozial eta ekonomiko berriei erantzuteko; hala bada, horrek guztiak berekin ekarriko du ekimen berriak ezartzearen ondoriozko ahalegina.

2. ARDATZA. Talentuaren eta ezagutzaren kudeaketa

2. ARDATZA



2

TALENTUAREN ETA EZAGUTZAREN KUDEAKETA

HELBURU OROKORRAK

- Pertsonak prestatzea esleituriko eginkizunak bete ditzaten
- Ezagutzaren kudeaketa finkatzea zerbitzuetan
- Erreferentziazko figurak sustatzea funtsezkoak diren ezagutza-arloetan

OINARRIAK ETA IKUSPEGIA

Pertsonak eta haiek duten ezagutza funtsezkoak dira edozein erakundetan, baita IZNn ere, are gehiago gero eta testuinguru konplexuago bati aurre egin behar dionean arauen arloan, eta jardunez, gainera, **Nafarroako ikuspegiarekin konbinaturik, non ingurumena protagonista baita hainbat politikatan**. Hain zuen, politika horietako batzuk zuzendaritza nagusiak kudeatzen ditu zuzenean, eta beste batzuk, bestalde, beste eremu ekonomiko eta sozial batzuei dagozkie –halakoetan gero eta neurri handiagoan aplikatzen baitira– eta zuzendaritza nagusiak haietan ere lankidetzan aritu behar du.

Plan Zuzentzailearen asmoa da pertsonen prestakuntza ematea esleituriko eginkizunak bete ditzaten; horretarako, **prestakuntza eta gaikuntzako planak** sustatuko ditu, apustua egingen du **erreferentziako figuren ezagutza gordetzeko** eta **kudeaketa aktiboa** egingen du ezagutza-galeraren aurrean, **funtsezkoak diren pertsonak joaten direnan eta langile berriak sartzen direnean**, zeinek egokitzeko eta prestatzeko denbora-tarte bat behar baitute, beren postuen eginkizunak bete ahal izateko.

Kudeatu beharreko ezagutza tazitu eta esplizitu bat sortu da IZNren historian zehar, bere eginkizunak garatu eta bete ahala. Apustua da **ezagutzaren kudeaketa aktiboa egitea zerbitzuetan**, eta barne-erreferentziak sortzea, ezagutza hori trukatu eta partekatu ahal izateko. Orobat, sustatu beharko da pertsonak nolabait espezializa daitezen funtsezko gai jakin batzuetan, eta, hala, espezializazio horren bidez, transferentzia eta trukerako egitura batzuekin konbinaturik, ezagutza espezializatu bat aplikatzen ahalko da jarduerak gauzatzean, zerbitzuen gaitasun- eta jardun-maila handiagorekin.

3. ARDATZA. Antolaketaren egokitzapena

3. ARDATZA



3

ANTOLAKETAREN EGOKITZAPENA

HELBURU OROKORRAK

- Erronka berrietara egokituriko egitura bat sustatzea
- Behin-behinekotasuna murriztea zerbitzuetan
- Behar adina langile dagoela bermatzea legearen arabera gutxienekoa bete dadin
- Zerbitzuak gehiago indartzea alde ekonomikotik eta administratibotik

OINARRIAK ETA IKUSPEGIA


Zuzendaritza nagusiaren antolaketa-egiturak baditu **egiturazko defizitak**, eta heldu egin behar zaie kolapsoa gerta ez dadin, ez haren barnean, ez zerbitzuak emateko jardueretan. Planaren aldi honetan **antolaketaren gaineke hausnarketa** egin behar da; horretarako, abiapuntutzat hartu beharko du zuzendaritza nagusi bakarrari dagozkion tamaina eta irismena eta heldu beharko dio behin-behinekotasuna murrizteko erronkari, eskumen-arlo batzuei bereziki eragiten baitie. Hala, ahalmena handitu beharko da eremu jakin batzuetan, hain zuzen, plantilla eta jarduna legearen arabera gutxienekoen azpitik dituzten horietan, Administrazioak interes-taldee eta gizarteari bermatu beharko lizkiekeen aldean. Izan ere, egoera horrek frustrazioa sortzen du erakundearen barnean, bai eta kolapso handia eta kanpoko interes-taldeen etengabeko kexak ere.

Hala, aurreikusten da beharrezko zenbait aldaketa egitea Planaren aldian, berriz egituratzeko, batetik, IZNren antolaketa, zerbitzuak eta atal eta bulegoen egiturak eta, bestetik, **ezagutza sendotzeko langileen artean, behin-behinekotasun tasak murrizturik**, horrek, horrenbestez, eragin positiboa izan dezan esleituriko eginkizunak betetzeko garaian. Funtsezkoa irizten zaio zerbitzuei atxikitako pertsonak gehitzeari, **loturiko epeak hobetzeko** –horiek, gaur egun, eskatu beharreko gutxieneko mailetatik kanpo baitaude–, **legeen eskakizunak betetzeko** eta Nafarroan ezarririk dagoen **arau-esparrua behar bezala sustatzeko**.

Garrantzia ematen zaio ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketarako baliabide gehiago izateari. Azkenik, zerbitzuak administrazio-arloan indartu behar dira, aurre egiteko **administrazio-kudeaketaren karga** handiari eta txostenak eta adierazleak (datu-analisia) prestatzeak behar duen kudeaketari.

4. ARDATZA. Modernizazioa eta efizientzia

4. ARDATZA



HELBURU OROKORRAK

- Prozesuen efizientzia eta sinplifikazioa sustatzea
- Kudeaketa eta zerbitzuak digitalizatzea
- Espazio fisikoak behar berrietara egokitzea
- Lantaldeak baliabidez hornitzea

OINARRIAK ETA IKUSPEGIA


Egituraren ahalmena areagotzearekin batera (3. ardatzeko erronka), IZNk badu aurrean horrekin konbinaturiko beste erronka bat, alegia, **barne-efizientzia hobetzea jarduketak eta prozesuak sinplifikatuz, automatizatuz eta digitalizatuz**. Ikuspegi horretan sartzen dira, batetik, prozesu eta prozeduren berrikuspen ordenatua, hobetu edo aldatu beharreko alderdiak identifikatzeko, eta, bestetik, jarduketan eta kudeaketan laguntzeko **tresna digitalak** hedatzea, barneko prozesuetarako zein herritarrentzako zerbitzuak kudeatzeko.

Horri dagokionez, **kudeaketa-tresnak mugikortasun-baliabideekin batera** abian jartzeak komunikazioa eta efizientzia hobetu beharko litzuke esleituriko eginkizunak betetzeko garaian. Helburua litzateke tresna telematikoak jartzea zerbitzuetan lan egiten duten guztien esku; horretarako, aplikazio eta sistema digital batzuk diseinatu beharko lirateke, ingurune finkoetatik nahiz telelaneko edo mugikortasuneko modeloetatik erabiltzeko modukoak.

Bestalde, IZNren hazkundera dela-eta, beharrezkoa da **konponbide berriak ematea espazioaren aldetik, eta loturiko azpiegiturak egokitzea**. Planean bitarteko fisikoak berritzeko ildo bat ezartzen da, barne dela ibilgailu erabilgarrien flota berritzea eta handitzea eta, egoitza zentraleko langileentzat, azterlan bat egitea bulegoen eta espazio komun berregituratzeari buruz.

5. ARDATZA. Ikusgaitasuna eta kanpoko taldeekiko kudeaketa

5. ARDATZA



HELBURU OROKORRAK

- Ingurumenari buruzko hezkuntza sustatzea herritarren artean
- Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren ikusgaitasuna hobetzea
- Elkarrizketa eta gobernantzako esparruak segurtatu eta egituratzea kanpoko entitateekin

OINARRIAK ETA IKUSPEGIA

Ingurumenaren gaineko sentsibilizazioa baliabide eraginkorra da gizartea kontzientziatzeko ingurumena babesteko beharraz, bizi-kalitate hobea lortuko bada egungo zein etorkizuneko belaunaldientzat. Ardatzak, beraz, ezartzen du ingurumenaz sentsibilizazio hori sustatu beharra, helburu bikoitza harturik, alegia, gizartea inplikatzeko ingurumena zaintzeko eragile aktibo eta kualifikatu gisa eta, orobat, irizpideak eta ezagutzak ematea, Administrazioak betetzen duen eginkizuna zuzen interpreta eta uler dadin. Ikusi da ezen herritarrek zuzendaritza nagusiaren lanaz duten pertzepzioa askotan ez datorrela bat eskumenen eta eginkizunen barne-esparruarekin, ez eta IZNko lantaldeen pertzepzioarekin. Planaren aldirako lehentasuna da **herritarrek sentsibilizatzea, ezagutza eta irizpide propioak sor ditzaten ingurumenaren arloan**.

Era berean, asmoa da **ikusgaitasuna eta kanpo-komunikazioa hobetzea IZNren jarduketari dagokienez**. Irizten zaio hobetzeko ahalmen handia dagoela komunikatzen zer egiten den eta zergatik egiten den. Horretarako, ezinbestekoa izanen da komunikazio-kanalak hobetzea, fisikoak zein birtualak, eta ahalegina eta baliabideak bideratzea haietara; hala, mezuak eta formatuak egokitu beharko dira segmentu sozial berrientzat, gizartearen segmentu guztiengana iristeko.

Ardatz honetan garatzen da **zuzendaritza nagusiaren nahia bere interes-taldeekin dituen harremanek eboluziona dezaten eta hobe daitezen**; hartara, haiekin interrelazio eta elkarrizketa maila handiagoak sustatuko dira, eta erraztuko da bultzada koordinatu bat ematea prebentzioa, komunitatearen parte-hartzea eta arazoaren konponketa barne hartzen dituen eredu baterantz. Une honetan, IZNk baditu parte-hartze eta gobernu organo egituratu batzuk, eta haien berrikuspenak bide emanen du ikuspegi hobea izateko alderdi interesdunekin komunikatzeko eta haiek parte hartzeko prozesu jakin batzuetan, hala nola araudia garatzekoetan, planak eta programak abian jartzekoetan eta deialdiak eragilearen beharretara egokitzekoetan. Ikuspegi horrek balio behar du, bai beste administrazio publiko batzuekin ezarritako kanpoko koordinazio egituretarako, bai harreman orokorrak izateko eskualdeko erakunde eta alderdi interesdunekin.



5

EKINTZA PLANA



5. EKINTZA PLANA

1. ARDATZA Arauen eta zerbitzuen garapena

EKINTZA PLANA																					
ARDATZA	LAN-ILDOA		EKINTZ. KODEA	EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA						2024ko AKTU. EKINTZARAKO	2025eko AKTU. EKINTZARAKO	2026ko AKTU. EKINTZARAKO	2027ko AKTU. EKINTZARAKO	EKINTZA, GUZTIRA	ILDOA, GUZTIRA	2024	2025	2026	2027
						IZN	BasEhiz	BiodArr	EkZirBerr	NKIIAldkB	IHKZaintz										
1. Arauen eta zerbitzuen garapena	1.1	Arauen garapena	1.1.1	Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko 4/22 Foru Legea garatzea	Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko 4/22 Foru Legean jasoriko neurriak eta ekintzak garatzea eta gauzatzea							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.				
			1.1.2	Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Foru Legea sustatzea	Foru legearen aurreproiektua idaztea						Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						
			1.1.3	Ehizaren Kudeaketari buruzko Foru Legea	Foru legearen aurreproiektua idaztea						Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						
			1.1.4	Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea garatzea	17/2020 Foru Legean proposaturiko neurriak ezartzea eta gauzatzea						Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						
			1.1.5	Fauna Mehatxatuen Zerrendari eta Katalogoari buruzko Foru Dekretua sustatzea	Proposamen teknikoak prestatzea, zirriborroa jendaurrean jartzea, azken testua egitea eta araua izapidetzea						Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						
			1.1.6	Nafarroako Hezeguneen Inbentarioari buruzko Foru Dekretua izapidetzea	Zirriborroa jendaurrean jartzea, azken testua egitea eta foru dekretua izapidetzea						Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						
			1.1.7	Nitratoengatik Kalteberak diren Eremuei buruzko Foru Dekretuaren onespena	Proposamen teknikoak, jendaurrean jartzea, azken testua egitea eta araua izapidetzea						Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						
1. Arauen eta zerbitzuen garapena	1.2	Planen eta programen garapena	1.2.1	Klima-aldaketaren Ibilbide-orria-KLINA garatzea	Planifikaturiko ekintzak gauzatzea							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.				
			1.2.2	Airearen kalitateari buruzko epe laburreko ekintza plana	Planifikaturiko ekintzak gauzatzea						Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						
			1.2.3	Ozonoari buruzko plana	Planifikaturiko ekintzak gauzatzea						Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						
			1.2.4	Ekonomia Zirkularren Agenda garatzea	Planifikaturiko ekintzak gauzatzea						Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						
			1.2.5	Nafarroako Basogintza Agenda garatzea	Planifikaturiko ekintzak gauzatzea						Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						
			1.2.6	4 kontserbazio bereziko eremutan (KBE) iraungirik dauden kudeaketa-planak sustatzea	Proposamen teknikoak prestatzea, zirriborroak jendaurrean jartzea, azken testuak egitea eta foru dekretuak izapidetzea						Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						

EKINTZA PLANA																						
ARDATZA	LAN-ILDOA		EKINTZ. KODEA	EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA						2024ko AKTU. EKINTZARAKO	2025eko AKTU. EKINTZARAKO	2026ko AKTU. EKINTZARAKO	2027ko AKTU. EKINTZARAKO	EKINTZA, GUZTIRA	ILDOA, GUZTIRA	2024	2025	2026	2027	
						IZN	BasEhiz	BiodArr	EkZirBerr	NKIIAldkB	IHKZaintz											
1. Arauen eta zerbitzuen garapena	1.3	Laguntza arrunten deialdiak	1.2.7	Kontserbazio bereziko eremuen (KBE) kudeaketa-planak pixkanaka berrikus daitezen sustatzea	Proposamen teknikoak prestatzea, zirriborroak jendaurrean jartzea, azken testuak egitea eta foru dekretuak izapidetzea, indarrean dauden antzintasunaren arabera							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						
			1.2.8	Nafarroako Estepako Hegaztien Kontserbaziorako Plana	Proposamen teknikoak berriz prestatzea, parte-hartzea eta zirriborroa jendaurrean jartzea, azken testua egitea eta foru dekretua izapidetzea							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.		Ez-aplik.				
			1.2.9	Nafarroako Azpiegitura Berdearen Estrategiaren onespina, irizpide jasagarriekin eta irisgarritasun unibertsala aintzat harturik	Agiri teknikoak prestatzea, kontrastea eta parte-hartzea, jendaurrean jartzea, eta izapidetzea eta onestea							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.		Ez-aplik.				
			1.2.10	Nafarroako Biodibertsitatearen Estrategia eguneratzea	Agiri teknikoak prestatzea, kontrastea eta parte-hartzea, jendaurrean jartzea, eta izapidetzea eta onespina							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.		Ez-aplik.				
			1.2.11	Ibai-oztopoak Iragangarri Egiteko Plan Zuzentzailea	Agiri teknikoak prestatzea, jendaurrean jartzea, eta izapidetzea eta onestea.							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.		Ez-aplik.				
	1.3	Laguntza arrunten deialdiak	1.3.1	Klima Funtsaren laguntzak	Beharrezko tresna klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko politikak eta ekintzak gauzatzeko							300.000,00 €	300.000,00 €	300.000,00 €	300.000,00 €	1.200.000,00 €	44.651.140,00 €					
			1.3.2	Hondakinen Funtsaren laguntzak	Toki-erakundeentzako eta industriako enpresentzako dirulaguntzak, 14/2018 Foru Legeak hondakinen ezabaketaren gainean ezarri zuen zergaren diru-bilketa erabilirik							5.230.512,00 €	5.230.512,00 €	5.230.512,00 €	5.230.512,00 €	20.922.048,00 €						
			1.3.3	Basolanetarako laguntzak, Landa Garapenerako Programak, (LGP) kofinantzatuak	Deialdia prestatzea, espedienteak jasotzea, laguntza-emateak izapidetzea, gauzatutakoaren gaineko kontrolak, ordainketa-proposamena eta ordainketa egitea. Estatistikak, auditoretzak eta kofinantzaketa eskatzea							3.070.000,00 €	3.070.000,00 €	3.070.000,00 €	3.070.000,00 €	12.280.000,00 €						
			1.3.4	Baso indusrirentzako laguntzak (LGP)	Deialdia prestatzea, espedienteak jasotzea, laguntza-emateak izapidetzea, gauzatutakoaren gaineko kontrolak, ordainketa-proposamena eta ordainketa egitea. Estatistikak, auditoretzak eta kofinantzaketa eskatzea							480.000,00 €	480.000,00 €	480.000,00 €	480.000,00 €	1.920.000,00 €						
			1.3.5	Mendi-larreetarako laguntzak (LGP)	Deialdia prestatzea, espedienteak jasotzea, laguntza-emateak izapidetzea, gauzatutakoaren gaineko							222.273,00 €	222.273,00 €	222.273,00 €	222.273,00 €	889.092,00 €						

EKINTZA PLANA																					
ARDATZA	LAN-ILDOA		EKINTZ. KODEA	EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA						2024ko AKTU. EKINTZARAKO	2025eko AKTU. EKINTZARAKO	2026ko AKTU. EKINTZARAKO	2027ko AKTU. EKINTZARAKO	EKINTZA, GUZTIRA	ILDOA, GUZTIRA	2024	2025	2026	2027
						IZN	BasEhiz	BiodArr	EkZirBerr	NKIIAldkB	IHKZaintz										
1.4					kontrolak, ordainketa-proposamena eta ordainketa egitea. Estatistikak, auditoretzak eta kofinantzaketa eskatzea																
			1.3.6	Nekazaritzako lurrak oihaneztatzeko laguntzak (LGP)							170.000,00 €	170.000,00 €	170.000,00 €	170.000,00 €	680.000,00 €						
			1.3.7	Baso-kudeaketako planak idatzeko laguntzak (LGP)							20.000,00 €	20.000,00 €	20.000,00 €	20.000,00 €	80.000,00 €						
			1.3.8	Hitzarmena FORESNA-ZURGAIArekin							110.000,00 €	110.000,00 €	110.000,00 €	110.000,00 €	440.000,00 €						
			1.3.9	Hitzarmena ADEMANekin							35.000,00 €	35.000,00 €	35.000,00 €	35.000,00 €	140.000,00 €						
			1.3.10	Toki-erakundeentzako laguntzak ehiza-baliabideak kudeatzeko							100.000,00 €	100.000,00 €	100.000,00 €	100.000,00 €	400.000,00 €						
			1.3.11	Toki-erakundeentzako laguntzak habitatak hobetzeko eta ehiza-espezieek eragindako kalteak prebenitzeko							40.000,00 €	40.000,00 €	40.000,00 €	40.000,00 €	160.000,00 €						
			1.3.12	Naturaguneetan erabilera publikoa egiteko laguntzak eta hitzarmenak							200.000,00 €	200.000,00 €	200.000,00 €	200.000,00 €	800.000,00 €						
			1.3.13	Nekazaritzako eta ingurumeneko NPEPEko laguntzak			Deialdian eduki teknikoa prestatzea IZNk Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoan (NPEPE) proposatu dituen nekazaritza eta ingurumeneko 4 neurrietarako					520.000,00 €	520.000,00 €	520.000,00 €	520.000,00 €	2.080.000,00 €					
			1.3.14	Ibai-ingurunea leheneratzeko laguntzak								100.000,00 €	100.000,00 €	100.000,00 €	100.000,00 €	400.000,00 €					
			1.3.15	Linea elektrikoetarako laguntzak								- €	200.000,00 €	200.000,00 €	200.000,00 €	600.000,00 €					
			1.3.16	Tokiko Agenda 2030eko laguntzak								415.000,00 €	415.000,00 €	415.000,00 €	415.000,00 €	1.660.000,00 €					
			1.4.1	Linea elektrikoetako SEMeko laguntzak								1.115.235,15 €	- €	- €	- €	1.115.235,15 €	10.772.714,42 €				

EKINTZA PLANA																					
ARDATZA	LAN-ILDOA		EKINTZ. KODEA	EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA						2024ko AKTU. EKINTZARAKO	2025eko AKTU. EKINTZARAKO	2026ko AKTU. EKINTZARAKO	2027ko AKTU. EKINTZARAKO	EKINTZA, GUZTIRA	ILDOA, GUZTIRA	2024	2025	2026	2027
						IZN	BasEhiz	BiodArr	EkZirBerr	NKIIAldkB	IHKZaintz										
1. Arauen eta zerbitzuen garapena		Aparteko laguntzen deialdiak	1.4.2	Biosfera-erreserbetarako SEMeko laguntzak							400.000,00 €	461.956,00 €	- €	- €	861.956,00 €						
			1.4.3	Hondakinetarako SEMeko laguntzak							4.542.250,84 €	1.557.445,61 €	354.566,82 €	- €	6.454.263,27 €						
			1.4.4	Uholde-arriskura egokitzeko SEMeko laguntzak, toki-erakundeentzako laguntzak							700.000,00 €	1.000.000,00 €	641.260,00 €	- €	2.341.260,00 €						
	1.5	Inbertsio propio arruntak	1.5.1	Basoen eta ehizaren arloko inbertsioak	Inbertsioak Urbasa-Andian, azterlan eta laguntza teknikoak, suteen prebentzioa eta basoak leheneratzea eta baso plangintza, proiektuen hautapena, kontratazio-espedientea prestatzea, jarduketan jarraipena, ziurtapena, ordainketa; arreta ematea auditoretzei, kofinantzaketa eskatzea eta adierazleak prestatzea							1.215.090,03 €	1.185.090,03 €	1.185.090,03 €	1.185.090,03 €	4.770.360,12 €	31.033.023,80 €				
			1.5.2	Nafarroako Basogintza Agendak inplementatzen dituen beste inbertsio batzuk	Hobekuntzak eta ekipamenduak baso-ondareetan							270.000,00 €	270.000,00 €	270.000,00 €	270.000,00 €	1.080.000,00 €					
			1.5.3	Inbertsioak baso-osasunean, ikerketan eta esperimentazioan (I+G+b)	Beste inbertsio-tipologia batzuk dira, loturik daudenak mendien osasun-egoeraren zaintzarekin, kudeaketa-tresna digitalen garapenarekin, Europako proiektuetan parte hartzearekin eta abarrekin loturikoak							839.702,00 €	839.702,00 €	839.702,00 €	839.702,00 €	3.358.808,00 €					
			1.5.4	Naturaguneak kudeatu, kontserbatu eta mantentzeko jarduketak, barne direla naturagune babestuak eta Natura 2000 Sareko guneak								966.268,92 €	966.268,92 €	966.268,92 €	966.268,92 €	3.865.075,68 €					
			1.5.5	Naturaguneetan biodibertsitatea leheneratzeko inbertsioak, Natura 2000 Sarea barne, jasangarritasuneko eta irisgarritasun unibertsaleko irizpideekin								330.000,00 €	330.000,00 €	330.000,00 €	330.000,00 €	1.320.000,00 €					
			1.5.6	Basafaunako eta basafloorako espezie mehatxatuek babestu eta kontserbatzeko monitorizazioa eta jarduketak								1.470.795,00 €	1.470.795,00 €	1.470.795,00 €	1.470.795,00 €	5.883.180,00 €					
			1.5.7	Arrantza-jarduera kudeatzeko eta ibai-inguruneetako espezieak kontserbatzeko jarduerak								494.800,00 €	494.800,00 €	494.800,00 €	494.800,00 €	1.979.200,00 €					
			1.5.8	Ur-bazterreko landaredia leheneratzeko, ibaiak iragangarri egiteko eta ibai-ibilguak oneratzeko inbertsioak								650.000,00 €	650.000,00 €	650.000,00 €	650.000,00 €	2.600.000,00 €					
			1.5.9	Hondakinen arloko inbertsioak eta Ekonomia								336.600,00 €	336.600,00 €	336.600,00 €	336.600,00 €	1.346.400,00 €					

EKINTZA PLANA																					
ARDATZA	LAN-ILDOA		EKINTZ. KODEA	EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA						2024ko AKTU. EKINTZARAKO	2025eko AKTU. EKINTZARAKO	2026ko AKTU. EKINTZARAKO	2027ko AKTU. EKINTZARAKO	EKINTZA, GUZTIRA	ILDOA, GUZTIRA	2024	2025	2026	2027
						IZN	BasEhiz	BiodArr	EkZirBerr	NKIIAldkB	IHKZaintz										
1. Arauen eta zerbitzuen garapena	1.6	Aparteko inbertsioak		Zirkularraren Agenda garatzekoak																	
			1.5.10	Klima-aldaketaren inguruko azterlanak eta proiektuak. Uholde arriskua							30.000,00 €	300.000,00 €	1.000.000,00 €	3.500.000,00 €	4.830.000,00 €						
			1.6.1	SEMeko jarduketak biodibertsitatea kontserbatzeko							590.892,50 €	399.600,00 €	80.313,20 €	- €	1.070.805,70 €						
			1.6.2	SEMeko jarduketak ekosistemak eta azpiegitura berdea leheneratzeko, jasangarritasuneko eta irisgarritasun unibertsaleko irizpideekin							1.192.000,00 €	290.250,00 €	- €	- €	1.482.250,00 €						
			1.6.3	SEMeko jarduketak baso-kudeaketa jasangarriko, irisgarritasun unibertsaleko irizpideak aintzat harturik herritarrei begirako jarduketetan	Parke naturaletako inbertsioak lizitatzea, suteen prebentzioa, basoak leheneratzea: proiektuak prestatzea, jarduketan jarraipena egitea, ordainketa ziurtatzea, adierazleak igortzea, inbertsioak kudeaketa-sistemetan justifikatzea						2.440.212,23 €	1.849.930,27 €	1.060.500,00 €	- €	5.350.642,50 €						
			1.6.4	Ebro Resilience SEMeko jarduketak							1.780.516,91 €	1.998.593,08 €	- €	- €	3.779.109,99 €						
			1.6.5	REACTeko eta Ekosistemen PIMako jarduketak biodibertsitatearen arloan	Sakanako ekoduktua						394.087,00 €	- €	- €	- €	394.087,00 €						

2. ARDATZA Talentuaren eta ezagutzaren kudeaketa

EKINTZA PLANA																					
ARDATZA	LAN-ILDOA		EKINTZ- KODEA	EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA						2024ko AKTU. EKINTZARAKO	2025eko AKTU. EKINTZARAKO	2026ko AKTU. EKINTZARAKO	2027ko AKTU. EKINTZARAKO	EKINTZA, GUZTIRA	ILDOA, GUZTIRA	2024	2025	2026	2027
						IZN	BasEhiz	BiodArr	EZirBerr	NKIIAldkB	IHKZaintz										
2. Talentuaren eta ezagutzaren kudeaketa	2.1	Langileei gaikuntza ematea esleituriko eginkizunak betetzeko	2.1.1	Prestakuntza-planak antolaketa-unitate bakoitzean, langileen ezagutza berritu eta handitzeko araudi berriaren, planen eta programen inguruan							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.					
			2.1.2	Harrera plana								Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.						
	2.2	Zerbitzuen ezagutza babestea eta gordetzea	2.2.1	Ezagutza transferitzeko plana	Langile jakin batzuen trebetasunak eta ezagutzak transferitzeko planak garatzea, talentuaren galera murrizteko behin-behinekotasuna, erretiroak eta abar direla eta.						Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.					

3. ARDATZ Antolaketaren egokitzapena

EKINTZA PLANA																					
ARDATZA	LAN-ILDOA		EKINTZ. KODEA	EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA						2024ko AKTU. EKINTZARAKO	2025eko AKTU. EKINTZARAKO	2026ko AKTU. EKINTZARAKO	2027ko AKTU. EKINTZARAKO	EKINTZA, GUZTIRA	ILDOA, GUZTIRA	2024	2025	2026	2027
						IZN	BasEhiz	BiodArr	EZirBerr	NKIIAldeB	IHKZaintz										
3. Antolaketaren egokitzapena	3.1	Barne egitura indartzea	3.1.1	Egituraren eta eskumenen analisia	Analisa egitea beste autonomia-erkidego batzuen ildotik, eta, beharrezkoa bada, barne egitura gehiagotan banatzea							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	240.017,31 €				
			3.1.2	Zuzeneko indartzea profil juridiko batekin	Profil juridikoa duen langile bat gehitzea, IZNri izapideetan laguntzeko eta horiek berregituratzeko							- €	- €	- €	53.337,18 €	53.337,18 €					
			3.1.3	Zuzeneko indartzea ekonomista-profil batekin	Biodibertsitatearen Zerbitzua profil espezialistako langile batekin indartzea							- €	- €	53.337,18 €	53.337,18 €	106.674,36 €					
			3.1.4	Zuzeneko indartzea komunikazioko profil espezialista batekin	Komunikazioko espezialista bat gehitzea lanaldi erdian. Profil hori ez dago gaur egun IZNn, eta kudeaketako zerbitzuei lagunduko lieke edukia sortzen web-orrirako eta beste komunikazio-kanal batzuetarako							- €	26.668,59 €	26.668,59 €	26.668,59 €	80.005,77 €					

EKINTZA PLANA																					
ARDATZA	LAN-ILDOA		EKINTZ. KODEA	EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA						2024ko AKTU. EKINTZARAKO	2025eko AKTU. EKINTZARAKO	2026ko AKTU. EKINTZARAKO	2027ko AKTU. EKINTZARAKO	EKINTZA, GUZTIRA	ILDOA, GUZTIRA	2024	2025	2026	2027
3. Antolaketa-egokitzapena	3.2	Plantilla indartzea IZNko funtsezko eremuetan	3.2.1	Plantilla egonkortzea, zerbitzuetako behin-behinekotasun maila murrizteko	Lanpostu hutsak hautatzea, hurrengo lan publikoaren eskaintzan sartzeko, edo lanpostuak egonkortzeko erabakian							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	4.487.742,21 €				
			3.2.2	Plantilla indartzea ingurumen-inpaktuaren arloko gaikuntza duten teknikariek	4 langile gehitzea ingurumen-inpaktuaren arloan diharduen antolaketa-unitatean (gutxienez, 2 biologo), espero den espediente gehikuntzari erantzuteko, energia berriztagarrietarako proiektuak, obra handiak eta abar ugalztearen ondorioz						- €	107.185,64 €	160.522,82 €	213.860,00 €	481.568,46 €						
			3.2.3	Plantilla indartzea naturaguneen eta espezie babestuen kudeaketaren arloko gaikuntza duten teknikariek	5 langile gehitzea naturaguneen eta espezie babestuen arloan diharduen antolaketa-unitatean (gutxienez, 3 biologo), espezie basatiak, habitatak eta naturaguneak kudeatu, kontserbatu eta babesteko						- €	107.185,63 €	214.371,27 €	267.708,45 €	589.265,34 €						
			3.2.4	Plantilla indartzea ibai-ingurunearen kudeaketaren arloko gaikuntza duten teknikariek	2 langile gehitzea Ibai Ingurunearen Atalean (gutxienez, biologo bat), arrantza-kudeaketarako eta ibai-ingurunea oneratu, leheneratu eta mantentzeko						- €	- €	53.592,82 €	107.185,64 €	160.778,46 €						
			3.2.5	Plantilla indartzea kutsaduraren prebentzioaren arloko gaikuntza duten teknikariek	3 langile gehitzea plantillan, industria jardueraren egokitzapenean eta ikuskapenean jarduteko						- €	- €	106.674,36 €	163.274,63 €	269.948,99 €						
			3.2.6	Plantilla indartzea ingurumen-ikuskapenearen arloko gaikuntza duten teknikariek	4 langile gehitzea plantillan, industria jardueraren egokitzapenean eta ikuskapenean jarduteko						- €	213.348,72 €	213.348,72 €	213.348,72 €	640.046,16 €						
			3.2.7	Plantilla indartzea klima-aldaketaren arloko gaikuntza duten teknikariek	4 langile gehitzea plantillan (gutxienez, ingurumen arloko erdi mailako 2 teknikari), 7/2022 Foru Legean ezarritako eskumenak garatzeko						144.000,00 €	199.500,00 €	255.000,00 €	255.000,00 €	853.500,00 €						
			3.2.8	Plantilla indartzea suteen prebentzioaren arloko teknikariek	3 langile gehitzea plantillan, baso-suteak prebenitzeko jarduketak kudeatzeko						- €	53.337,18 €	106.012,54 €	160.011,54 €	319.361,26 €						
			3.2.9	Plantilla indartzea basoen eta ehizaren arloko administrazio-langileekin	2 langile gehitzea plantillan, basoen eta ehizaren arloko administrazio-kudeaketarako						- €	66.020,30 €	66.020,30 €	66.020,30 €	198.060,90 €						
			3.2.10	Plantilla indartzea baso-kudeaketaren eta Nafarroako Baso Ondareko basoen eta finken kudeaketaren arloko teknikariek	3 langile gehitzea plantillan, baso aprobetxamenduen kudeaketarako, basoak leheneratzeko, zurraren erabilera sustatzeko, etab.						- €	53.337,51 €	160.012,54 €	160.012,54 €	373.362,59 €						
			3.2.11	Plantilla indartzea ibai-ingurunea leheneratzeko arloko teknikariek	2 langile gehitzea plantillan, ur-emarien neurketen kalitatea eta uholde-arriskua kudeatzeko						55.500,00 €	111.000,00 €	111.000,00 €	111.000,00 €	388.500,00 €						
			3.2.12	Plantilla indartzea baso-plangintzaren arloko teknikariek	3 pertsona gehitzea plantillan, baso-plangintzan jarduteko						- €	- €	53.337,51 €	160.012,54 €	213.350,05 €						

4. ARDATZA Modernizazioa eta efizientzia

EKINTZA PLANA																					
ARDATZA	LAN-ILDOA		EKINTZ. KODEA	EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA						2024ko AKTU. EKINTZARAKO	2025eko AKTU. EKINTZARAKO	2026ko AKTU. EKINTZARAKO	2027ko AKTU. EKINTZARAKO	EKINTZA, GUZTIRA	ILDOA, GUZTIRA	2024	2025	2026	2027
						IZN	BasEhiz	BiodArr	EzIrBerr	NKlIAldkB	IHKZaintz										
4. Modernizazioa eta efizientzia	4.1	Prozesuen hobekuntza	4.1.1	Prozesuak homogeneizatzea eta sinplifikatzea	Zerbitzuetan betetzen diren prozesuak berrikustea, hobetzeko eta sinplifikatzeko guneak identifikatzeko eta, horrela, zerbitzuak efizienteagoak izateko							25.000,00 €	25.000,00 €	25.000,00 €	25.000,00 €	100.000,00 €	100.000,00 €				
			4.1.2	Izapide telematikoetarako laguntza garatzea	Interes-taldee laguntzeko dokumentuak garatu eta prestatzea, IZNren web-orrian jartzeko eta, horrela, izapide elektronikoak errazteko eta IZNko langileek erantzun beharreko kontsulta kopurua gutxitzeko							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.					
			4.1.3	Prozesuen digitalizazioa	Extr@ tresna digitalaren erabilera zabaltzea prozesuetan, zerbitzuen arteko lankidetzaren errazteko, agiri-kudeatzaile gisa erabiltzeko...							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.					
			4.1.4	Aplikazioei buruzko plana garatzea	Aplikazioei buruzko plan bat garatzea, zerbitzuek erabil ditzaten: ehiza tresna, ingurumen-ebaluaziorako irizpideen datu-basea, minden kudeaketa, biodibertsitateari buruzko ezagutzaren datu-basea, Natura 2000ko planak kudeatzeko aplikazioa, etab.							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.					
	4.2	Azpiegituren hobekuntza	4.2.1	IZNk okupatzen dituen espazio fisikoak egokitzea, jasangarritasun-irizpideen arabera eta desgaitasuna duten pertsonen behar berezietara egokiturik	Espazioaren antolera berria diseinatzea IZNko langileak egoten diren solairuetan, eta eremu berriak gaitzea: aldagelak, jantokia..., kontuan hartuz desgaitasuna duten pertsonen behar berezietara egokitu beharra.							Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	150.000,00 €				
			4.2.2	Ibilgailu flota berritzea, kontuan hartuz jasangarritasun eta irisgarritasuneko irizpideak	Ibilgailu partekatuak erostea analizatu diren 4 zerbitzuentzat							- €	100.000,00 €	- €	- €	100.000,00 €					
			4.2.3	Bitarteko informatikoak erostea eta haietaz hornitzea, kontuan hartuz desgaitasuna duten pertsonen behar bereziak	Ekipo informatiko eta gailu mugikor berriak erostea							- €	- €	50.000,00 €	- €	50.000,00 €					

5. ARDATZA Ikusgaitasuna eta kanpoko taldeekiko kudeaketa

EKINTZA PLANA																					
ARDATZA	LAN-ILDOA		EKINTZ. KODEA	EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURADUNA						2024ko AKTU. EKINTZARAKO	2025eko AKTU. EKINTZARAKO	2026ko AKTU. EKINTZARAKO	2027ko AKTU. EKINTZARAKO	EKINTZA, GUZTIRA	ILDOA, GUZTIRA	2024	2025	2026	2027
						IZN	BasEhiz	BiodArr	EZirBerr	NKIIAldkB	IHKZaintz										
5. Ikusgaitasuna eta kanpoko taldeekiko kudeaketa	5.1	Herritarrentzako sentsibilizazioa eta hezkuntza	5.1.1	IZNn lantzen diren gaiei buruzko argitalpenak, ahal den neurrian egokiturik irakurketa errazera eta ikusmen urria dutenentzat								20.000,00 €	20.000,00 €	20.000,00 €	20.000,00 €	80.000,00 €	80.000,00 €				
	5.2	Kanpo-komunikazioaren hobekuntza	5.2.1	Kanpo-komunikazioko plan bat prestatzea sare sozialak oinarri hartuz, ahal den neurrian egokiturik irakurketa errazera eta ikusmen urria dutenentzat	Kanpo-komunikazioko plan bat prestatzea, non estrategia eta edukiak definituko baitira xede-segmentu bakoitzarentzat; orobat, IZNk ematen dituen zerbitzuei ikusgaitasuna eman beharko die. Ahal den neurrian egokituko da irakurketa errazera eta ikusmen urria dutenentzat							- €	15.000,00 €	- €	- €	15.000,00 €	35.000,00 €				
			5.2.2	IZNren web-orria berrikustea eta eguneratzea	Web-orriko edukiak berritzea eta eguneratzea, IZNk ematen dituen zerbitzuak ezagutarazteko eta ikusgai jartzeko.							- €	20.000,00 €	- €	- €	20.000,00 €					
	5.3	Interes-taldeen koordinatzea eta lankidetzan aritzea	5.3.1	Mekanismoak ezartzea interes-taldeekiko koordinazio, lankidetzeta eta harremanetarako	Harreman-esparru egituratuagoa definitzea, hartan ekintza planifikatuak zehazteko eta, horien bidez, interes-taldeen koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko baliabideak gaitzeko								Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.	Ez-aplik.			



6 ANTOLAKETA

6. ANTOLAKETA

6.1 Antolaketaren aldaketak

Hausnarketa, egonkortzea eta antolaketa indartzea

Antolaketaren egokitzapena ardatz nagusietako bat da Plan Zuzentzailearen II. Zatiaren barnean. Planaren aldian izan beharreko eboluzioan, hiru alderdi nagusi hartu behar dira kontuan:

1. HAUSNARKETA: Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren irismena oso zabala da eskumenen nahiz eginkizunen aldetik. Nafarroa da, hain zuzen, ingurumenaren arloko eskumen guztiak zuzendaritza nagusi baten bidez kudeatzen dituen autonomia-erkidego bakarra. Erreferentziazko egiturak lantalde gehiagotan banatzen dira, zuzendaritzatan eta azpizuzendaritzatan, kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko eta loturiko izapideak arintzeko formula gisa. Zuzendaritza nagusiaren saturazioa, ordezkaritza instituzionalaren izaera, eskumen-esparrua zuzenean esleiturik edukitzea ebazpenen arloan: horrek guztiak jardunari eragiten dio. Hurrengo denbora-esparrua egokitzen ematen da hausnarketari ekiteko goi-mailako konfigurazioaren inguruan.

Era berean, hausnarketa egin behar da antolaketa-unitateen inguruan (zerbitzuak, atalak, bulegoak), eta komeni da aurrera eramatea, eta ekintza planean hala proposatzen da, une honetatik bertatik behar diren zenbait ekimen, zuzeneko eragina izanen bailukete antolaketaren hobekuntzan eta ondoriozko jardunean.

2. EGONKORTZEA: Diagnostikoko aurreko beste puntu batzuetan azaldu denez, zerbitzuetan diren behin-behinekotasun tasek nabarmen gaitzitzen dute funtzio publikoan orekatutzat jo litekeena. Hala bada, atal batzuetan tasa horiek % 75etik gorakoak dira –Naturaguneen eta Espezie Babestuen Atalean eta Ehiza Kudeaketarako Atalean, zehazki–, eta atal askotan behin-behinekotasuna % 50-60 artean dago. Horrek egonkortze baten beharra du.

3. INDARTZEA: Gaur egun zerbitzuetan dagoen saturazioa dela-eta, atzerapenak gertatu ohi dira legeak ezartzen dituen epeetan edo ez dira betetzen, ezinezko gertatzen da helburuak betetzea eta ezin dira behar bezala gauzatu zuzendaritza nagusiaren hainbat barne-eginkizun. Gainera, hori areagotu egingen da planaren aldiaren barnean izanen diren bi faktoreren ondorioz: batetik, aurreikusten da eskualdez gaindiko estamentuek gainregulazioa ekartzea, Nafarroak nahitaez bete beharrekoa, eta, bestetik, finantzaketa gehigarria kudeatu beharko da, NextGenEU funtsak direla eta, besteak beste. Zuzendaritza nagusiak analisía egin du legeak xedaturikoa betetzeko behar den dimentsionatzea objektiboki ezartzeko, eta hori da lehentasuna, hain zuzen, IZNren funtzionamendu egokirako, langileak lanpostuetan egonkortzearekin batera.

6.2 Beharrezko dimentsionatzea eta indartzea

Beharrezko plantilla-proiektzioak

2023ko abenduan, **110 langile** daude IZNren Plan Zuzentzailean azterturiko lau zerbitzuetako plantillan. Zehazki, lau zerbitzu horietan profil teknikoko 79 langile daude (A edo B mailakoak) eta profil administratiboko edo zerbitzu orokorretako 31 (C eta D mailakoak).

Azterlan bikoitza egin da zerbitzuen egungo jardunari buruz, hala barne ikuspegitik nola NUPEk garatu duen analisi-eredu baten ikuspegitik (*l. eranskinean*); haren helburua da langile beharrak dimentsionatzea zuzendaritza nagusiaren eskumen bakoitzerako.

Hurrengo taulan azterlan horien emaitzak ageri dira, eta ondorioztatzen da Planaren II. Zatiari loturiko zerbitzu teknikoetara atxiki beharreko **langile kopuru optimoa 161 litzatekeela**; horrela, behar bezala gauzatuko lirateke, epeari zein kalitateari dagokienez, legez eskaturiko jarduerak eta ekintzak, eta, era berean, esleituriko eskumenak modu egokian beteko lirateke.

ESKUMEN EREMUA	PLANEAN 2023an AZTERTURIKO 4 ZERBITZUETAKO LANGILEAK		AZTERTURIKO 4 ZERBITZUETAKO LANGILE KOPURU OPTIMOA, ALGORITMOEN ARABERA	
	TEKNIK.	ADMIN.	TEKNIK.	ADMIN.
Zuzendaritzako eta kudeaketako eginkizunak	4	1	4	1
Kudeaketa ekonomiko-juridikoa	0	0	2	0
Ingurumen-ikuskapenak	5	7	18**	8
Kutsaduraren prebentzioa	3			
Ekonomia zirkularraren arloko kudeaketa	8		10	
Europako proiektuen kudeaketa	6		6	
Klima-aldaketa arloko kudeaketa	4	1	8	2
Ibai-ingurunea leheneratzea	2		4	
Arrantza-kudeaketa	6	9*	8	7
Ingurumen-ebaluazioa eta -jarraipena	9	6	17	2
Naturaguneen eta espezieen kudeaketa	7		12	3
Suteen prebentzioa	3	7	20	10
Baso-kudeaketa	9			
Baso-plangintza	8		13	
Ehiza-kudeaketa	5		5	
Komunikazioa	0	0	1	0
EGITURA, GUZTIRA	79	31	128	33
	110		161	

*Arrantza-kudeaketa (9) = arrain-hazkuntzako langileak (7) + administrazio-langileak (2)

**Balio hauek NUPEk garaturiko analisi-ereduaren emaitza dira, eta gailendu zaizkio zerbitzuek barne-ikuspegitik jardunari buruz egin duten analisiari.

Nahiz eta lau zerbitzuetarako langile-kopuru optimoa 161 izan, langileak pixkanaka gehitzea hautatu da. Hartara, Plan Zuzentzaileak barne hartzen duen aldirako, **eskatzen da 38 langile gehi daitezela**, zehazki, profil teknikoko 36 eta profil administratiboko 2, eta **2027. urterako 148 langileko plantilla izan beharko lukete**.

ESKUMEN EREMUA	AZTERTURIKO 4 ZERBITZUETARAKO LANGILE BERRIEN ESKARIA 2024-2027 ALDIRAKO		AZTERTURIKO PLAN ZUZENTZAILEKO 4 ZERBITZUETAKO LANGILEAK 2027an	
	TEKNIK.	ADMIN.	TEKNIK.	ADMIN.
Zuzendaritzako eta kudeaketako eginkizunak	0	0	4	1
Kudeaketa ekonomiko-juridikoa	2	0	2	0
Ingurumen-ikuskapenak	4	0	9	7
Kutsaduraren prebentzioa	3		6	
Ekonomia zirkularraren arloko kudeaketa	0		8	
Europako proiektuen kudeaketa	0		6	
Klima-alaketaren arloko kudeaketa	4	0	8	1
Ibai-ingurunea leheneratzea	2	0	4	9
Arrantza-kudeaketa	2	0	8	6
Ingurumen-ebaluazioa eta -jarraipena	4	0	13	9
